2023-06-02 EGUBAKOITZA / 995. ZENBAKIA / 23. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena“

Zu hemen zaude.




\+ Mila Perez eta Ramon Sanchez-Garrido, tabakoaz

Askapen mugimenduak 50 urte bete ditu



# ALKATEGAI IRABAZLEAK, KARGUAK HARTZEKO GERTU

Domekako udal hauteskundeetan Debagoieneko bederatzi herrietan boto gehien jaso dituzten alkategaiak batu ditu GOIENAk. Ekainaren 17an karguak hartu eta erronka berriei ekiteko prest daude / 2

Debagoienean boto gehien jaso dituzten alkategaiak, martitzenean, Goienaren egoitzan, Arrasaten. XABIER URZELAI

## AED elkarteak erakusketa batekin eman dio hasiera 40. urteurrenari

Kulturateko klaustroan daude ikusgai Arrasateko euskara elkartearen lau hamarkadatako argazkiak / 8








Joxe Aranzabal eta Joxemari Muxika; ATBren sorrera, 1990ean; eta lehen auzolandegiko argazki bat. AED ETA GOIENA

## Arrasate Musikaleko Banda eta The Potes taldea elkarrekin 50. urteurreneko ospakizunetan / 34

**SINADURAK**



IÑAKI ETXEBESTE / **6**



MARIXE RUIZ DE AUSTRI / **10**



ION LIZARAZU / **25**

2MÓ 229€
PROGRESIBOAK
BAT EGUZKITAKOA
IZAN DAITEKE

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.




BETAURREKO PROGRESIBOEN HILABETEA

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

multiópticas



Herrarte, Unzetabarrenetxea, Elorza, Morras, Artola, Iturbe, Lezeta, Zubizarreta eta Elkorobarrutia, martitzenean, Arrasaten. XABIER URZELAI

# Kolore bakarreko Debagoiena

Bailarako ia udal guztietan EH Bilduk lortu du gehiengo osoa udal hauteskundeetan, baina Arrasaten ikusi egin beharko da zer gertatzen den, zinegotzi batera duelako helburu hori; Gatzagan LG Hautesleen Taldea izan zen aurkeztutako zerrenda bakarra

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA

Udal eta foru hauteskundeen ostean, Debagoieneko bederatzi alkategaiekin egon da GOIENA, emaitzez eta datozen hilabeteetan eta urteetan dituzten erronkei buruz hitz egiteko.

Olatz Lezeta (EH Bildu) izango da Antzuolako hurrengo alkatea. Aurreko agintaldian bezala, zazpi zinegotzi izango ditu alderdiak Udalean; eta EAJk, 4. Domekan izan zuten emaitzarekin gustura agertu da: "Egia esan, aukera hau oso ona da. PSE-EEkoa herritarra ez izanda, oso pozik gaude, udal osoa herritarrez osatuta egongo baita". Hala ere, lasaitasun mezua bidali du, "orain arte bezala" denak sartzen diren herria osatuko dutela gehituta.

Lehen aldiz izango da alkate, eta, erronka pertsonal "potoloa" dela badio ere, "indarrez eta gogotsu" dago agintaldia hasteko. Uste du aukera polita izango dela herria oraindik eta gertuago bizitzeko. Lehentasuna HAPO dela dio, eta, ondoren, 2018an egindako plan estrategikoarekin bidea egiten hastea. "Herritar guztien ongizatea zaindu beharra daukagu; ekologian eta jasangarritasunean ere aurrera egin. Antzuola euskaldun eta bizia jorratzen jarraituko dugu", dio.

### Hasitako proiektuetan begirada

Aramaion alderdirik bozkatuena izan da EH Bildu, baina zinegotzi bat galdu dute. Hala ere, gehiengo osoarekin Iban Herrarte (EH Bildu) izango da Aramaioko alkategaia. Herrarte ere lehen aldiz izango da alkate, eta, haren hitzetan, aurretik duen erronka "potoloa" da pertsonalki, baina baita herriaren aurrean ere: "Erronka da ahalik eta agintaldirik txukunena egitea eta talde berria martxan jartzea".

**2015ETIK EAJ ZEGOEN ALKATETZAN ARRASATEN, ARETXABALETAN ETA ESKORIATZAN**

Lehentasun bezala markatu ditu aurreko agintaldian bidean geratu diren proiektu batzuk; besteak beste, frontoia berritzea eta nerabeen lokala eta nerabeen aisialdiko taldea martxan jartzea. "Orain arte hasitakoa ea borobiltzen dugun, gero proiektu berriekin hasteko", dio. Azaldu duenez, parke eolikoen proiektuaren publikazioa ere orain izan da, eta dagoeneko alegazioekin hasi dira "buru-belarri" lanean.

### Herriarekin elkarlanean

Aldaketa nagusietako bat Aretxabaletan gertatu da. 2015eko udal hauteskundeetatik EAJ zegoen alkatetzan, baina, domekako hauteskundeen ostean, EH Bilduk hartuko du gidaritza. Gari Iturbe (EH Bildu) izango da alkate, eta domekako emaitza ez du ezustean harrapatu, "baikor, itxaropentsu eta gogotsu" zeudelako: "Jendeak ematen zigun feedbackagatik uste genuen posible zela". Hala ere, gehiengoa izan arren, beste alderdiaren parte hartzea bultzatu nahi duela dio, baita ordezkaritza barik geratu direnena ere: "Herri txikia gara eta uste dut herriak ere eskatzen duela gure arteko elkarlana".

Hark ere lehenengo aldia izango du, eta, pertsonalki, erronkak gustatzen zaizkiola aitortu du. Udala ez du zerbait isolatu modura irudikatzen: "Azkenean, Udala herrira gerturatu eta herritarrekin batera proiektuei heldu gura diegu. Guk ikusten dugu herria dela Udala bultzatzen dutenak, eta herritar barik Udala ez dela ezer".

### Balantza beste aldera

Beste ezustekoa Maider Morrasek (EH Bildu) hartu zuen Arrasaten. Dioenez, zailtasunak ikusten zituen alkatetza lortzeko, irabazita ere EAJk eta PSE-EEk aukera

**MORRASEK NAHIKOA DU ELKARREKIN ALDERDIAREN BABESA GEHIENGO OSOA ESKURATZEKO**

kenduko ziotela uste baitzuen. Elkarrekinekin paktua egin dezaketen galdetuta, hasiera batean, gehiengo sinplearekin gobernatu dezaketela dio, baina, hala ere, prest agertu da gainontzeko alderdi guztiekin berba egiteko: "Hori esan genuen eta hori egingo dugu".

Lehen aldiz izango da alkate, eta izateko "pozik" dago, baina, aldi berean, penaz agertu da, lanbidea utzi behar duelako; hala ere, ziur dago itzuliko dela abokatutzara. Haren erronken artean daude herritarren ondoan egotea eta beste alderdiekin harreman ona berreskuratzea: "Gobernu-oposizio dikotomia hori apurtzea eta ahalik eta akordio gehien lortzea denon artean, hori baita ona herriarentzat". Haren esanetan, "gobernatzeko eredua" da euren bereizgarria. "Alderdien arteko adostasuna eta elkarlana, langileriaren ondoan egotea eta herriak dituen arazoei aurre egitea beste aldera begiratu barik", dio Arrasateko alkategaiak.

### Azken agintaldiari jarraipena

Gorka Artolarentzat (EH Bildu) bigarren agintaldia izango da hurrengoa. Emaitzak onak izatea espero zuen, "baina halakorik ez zen kiniela askotan sartzen"; izan ere, eserleku bat gehiago eskuratu dute. Aurreko lau urteetan Bergarako alkate izanda, martxan jarritako lan egiteko moduarekin herri proiektua elikatzen joango direla aurreratu du. Dio abiapuntua ezberdina dela helburuak ezarrita dituztelako, eta, hortaz, lehenbailehen jarriko direla martxan. Lehentasuna da Gobernu taldea ezarri eta ardurak banatuta agintaldirako plana bideratu eta herriratzea.

Orain arteko proiektuei dagokienez, adierazi du jarraipena emango diotela zenbait proiekturi, hala nola Arrizuriaga Jauregia, zaintza plana, Zabalotegiko jolas-eremua, ur-jolasak eta Martokoko urbanizazioaren idazketa.

### Herrigintza lehentasun

Lau botora izan du zazpigarren zinegotzia Elgetan EH Bilduk, baina 2019ko emaitzak berretsi dituzte. Ibon Unzetabarrenetxea (EH Bildu) izango da alkate, eta erroka pertsonal "handia" du aurretik: "Jendeak gugan harri du konfiantza, eta eskertzekoa

# Zure iritziz, zein da bailararen premia nagusia?



**OLATZ LEZETA**
ANTZUOLAKO ALKATEGAIA

"Aztertu beharko dira bailara mailan zer-nolako erronkak dauden, eta denon artean irtenbideak aurkitu. Debagoiena 2030 ekimenean ere sakondu beharko da. Mugikortasunean, zaintzan eta trantsizio energetikoan lan egin beharko dugu".



**IBAN HERRARTE**
ARAMAIOKO ALKATEGAIA

"Debagoien mailan energiaren gaineko hausnarketa egin beharko genukeela uste dut. Herri txikien eta herri handien arteko oreka bilatze aldera, hausnarketa egitea beharrezkoa da energiaren gaiaren eta mugikortasunaren gainean".



**GARI ITURBE**
ARETXABALETAKO ALKATEGAIA

"Hiru ildo nagusi ditugula esango nuke: mugikortasuna, zaintza eta energia kontuak. Gero, esku artean baditugu beste zenbait premia ere, baina, horiek lasai hartu eta gero, ildo horiek markatuko ditugu. Halaber, lanean ari garela ere sortuko dira gehiago".



**MAIDER MORRAS**
ARRASATEKO ALKATEGAIA

"Nik ere hiru alor aipatu nahiko nituzke Debagoienean: mugikortasuna hobetzea, bailara mailako zaintza plana eta energiaren gaia. Lanean hasteko gogoz gaude, eta datozen urteetan ere sortuko dira premia gehiago. Horiek ere landuko ditugu".



**GORKA ARTOLA**
BERGARAKO ALKATEGAIA

"Programan jasota ditugu mugikortasuna, zaintza eta energia berriztagarriak, baina seguru nago gehiago identifikatzeko gai garela. Debagoiena 2030en bidez aurreko agintaldian hastapenak egin dira, eta bide horretan sakontzea komeni da".



**IBON UNZETABARRENETXEA**
ELGETAKO ALKATEGAIA

"Herri arteko konexioa hobetzea, herrietako zerbitzuak indartzea eta eskaintza handitzeko proposamenaren alde egitea. Bailarako energia aholkularitza zerbitzua sortzea. Beharrezkoa da udalen arteko elkarlana sakondu eta Mankomunitatearen aukerak aprobetxatzea".



**EDORTA ZUBIZARRETA**
ESKORIATZAKO ALKATEGAIA

"Lanean hasten garenean sortuko dira premia gehiago, baina, gaur-gaurkoz, uste dut energia aholkularitza martxan jartzea oso inportantea dela. Bestalde, mugikortasuna hobetzea ere azpimarratu nahi dut, iruditzen baitzait badagoela zer hobetu".



**DORLETA ELKOROBARRUTIA**
LEINTZ GATZAGAKO ALKATEGAIA

"Mugikortasuna da ardatz garrantzitsuenetako bat; gu Gatzagakoak izanda, oraindik eta gehiago. Eta egin dugu herrian galdeketa. Lortu nahi duguna da Arrasatetik beste autobus bat edukitzea. Jasangarritasun sozialaren ikuspegitik beharrezkoa da".



**IZARO ELORZA**
OÑATIKO ALKATEGAIA

"Mugikortasun plan integrala lantzea eta zaintza zerbitzu berritzailea, bailaran eskaini daitezkeenak. Energia bulegoa martxan daukagu; eredua izan gaitezke eta laguntza eskaini. Debagoiena 2030ean gaude eta beste gai batzuk erantzun ditzakegu beste eragileekin".

da, baina orain erantzukizun handia sentitzen du elgetarrekiko. Gauzak ondo egitea da erronka handiena".

Herrigintza dute lehentasun, eta, nabarmendu duenez, herritar nahiz eragile guztiei irekita dauden batzorde irekiak izango dira euren gobernantzaren oinarri. Proiektu nagusi gisa, energia berriztagarrien aldeko apustua egiten jarraitu nahi dute. Horrez gainera, beharrezkoa ikusten dute kultur etxea berritzea eta memoria historikoa bultzatzea.

### 20 urteren ostean, berriro

Eskoriatzan ere alderdi aldaketa egongo da alkatetzan, 2015etik EAJ baitzegoen agintean, eta horri buelta eman diote Edorta Zubizarretak (EH Bildu) eta bere taldeak –EH Bilduk zazpi eserleku; EAJk, lau–. Zubizarretak badaki zer den Eskoriatzako alkate izatea, 1999-2003ko agintaldian izan baitzuen kargu hori. Emaitza askoz ere parekatuagoa izango zela uste zuen, eta "oso pozik" agertu da. Dioenez, jendea oraindik gogoratzen da duela 20 urte egindako lanaz, eta uste du horrek ere eragina izan duela emaitzan: "Herritarrek aldaketaren beharra ikusi dute". Bi garaien alderaketa egin du eta dio orduan gauzak aldatzeko borrokatu zirela eta aldatu zituztela; eta orain ere antzeko egoeran daudela uste du.

"Saiatu behar dugu orain dagoen dinamika aldatzen", dio. Beste modu batera egin nahi du lan, eta argi utzi nahi du lehenengo herria dela, eta gero, alderdia. Horregatik, herritarren konfiantza berreskuratzea da haren lehentasuna: "Ikus dezatela Udala laguntzeko dagoela".

**20 URTEREN OSTEAN, EDORTA ZUBIZARRETA IZANGO DA BERRIRO ERE ESKORIATZAKO ALKATE**

### Jasangarritasun soziala

2019ko hauteskundeetan ez bezala, Leintz Gatzagan aurkeztu da zerrenda bat, eta, ondorioz, Dorleta Elkorobarrutia (LG Hautesleen Taldea) izango da alkate, lehen aldiz. Udaletik herriarekiko perspektiba aldatuko zaiola uste du. Gainera, haren ogibidean lanean jarraitu behar du; beraz, arlo pertsonalean, eguneroko agenda aldatu egingo zaio, "%100ean" sartuko baita alkatetzan. Taldearen hasierako erronka da hilabete gutxian egoerara egokitu eta talde "indartsua" osatzea.

Herrian duen erronka epe motz, ertain eta luzera, herri txikien jasangarritasuna dagoela dio; hau da, herria bizirik mantentzea: "Azken urteetan biztanleria jaitsi egin da eta gai izan behar dugu ditugun herritarrak mantentzeko eta familia nahiz gazte berriak erakartzeko. Ez bakarrik etxebizitza ingurutik. Baizik eta bizirik mantentze horretan zerbitzuak eta bestelakoak sustatzen jakin behar da".

### "Poza" lanaren berrespenagatik

Izaro Elorza (EH Bildu) izango da Oñatiko alkate, bigarren aldiz, eta azken agintaldian baino zinegotzi bat gehiago izango du. Pozez hartu du emaitza, lau urtean egindako lana berretsi dela iritzita: "Ezustekoa eta poza izan da. Egia da zerrenda egiteko momentuan eszenatoki ezberdinak hartzen direla aintzat, eta prest geunden hamaikagarrena etorrita ere". Azpimarratu duenez, agintaldi bakoitzak izaten du bere erronka, eta horiek identifikatu dituzte programa lantzen aritu direnean. Epe ertain eta luzerako erronkak ere badituztela, eta horiek helduko dituztela, "talde indartsuarekin".

**AURREKO AGINTALDITIK ARTOLA ETA ELORZA DIRA ERREPIKATUKO DUTEN BAKARRAK**

Programan "zuzenean martxan jartzeko" sei egitasmo plazaratu zituzten –energia berriztagarrien merkaturatzailea, harrera plana, zaintza plan integrala, Bazterkeria Zero egitasmoa, unibertsitatea zabaltzea eta elikaduraren burujabetzarako urratsak egite horretan mahaia sortzea–. Dio 2023ko aurrekontuetako proiektuei jarraipena eman eta gero, datozen proiektu handiagoei bide emango dietela.

# Zortzitik zortzi EH Bilduk

EH Bilduk eskuratu ditu boto gehien Debagoienean, eta udal garrantzitsu bat berreskuratzeko bidean da: Arrasate. Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere EH Bildu izan da lehen indarra. EAJk oposizioa egin beharko du ordezkaritza duen zortzi herrietan

**Mikel Zumalde Etxabe** DEBAGOIENA

Domekako udal hauteskundeetan Debagoieneko herri guztietan izan da garaile EH Bildu. 2019ko datuak ondu ditu, eta 15.875 boto jaso ditu, guztira, ia sei puntu gora eginez, abstentzioa eskualdean duela lau urte baino ia zortzi puntu handiagoa izan den arren. Gainera, zortzi urteren ondoren, Arrasaten irabazi du eta eskura du alkatetza. Horrez gain, jeltzaleenak ziren Aretxabaletaren eta Eskoriatzaren aginte makilak izango ditu ezker abertzaleak, domekan irabazita. Gainerako herrietan EH Bilduk jarraituko du alkatetzan, orain arte bezala.

2019ko udal hauteskundeetan baino ia lau mila pertsona gutxiago joan dira bozkatzera oraingoan. Horrek kalte egin dio EAJri, ia 3.500 boto eta lau zinegotzi galdu baititu –ia sei puntu behera–. PSE-EEk ere botoak galdu ditu –459–, baina %7,18ko ordezkaritza lortu du, duela lau urte lortutakoaren antzekoa. Bi zinegotzi galdu ditu: bat Arrasaten eta beste bat Antzuolan –lehen aldiz historian ordezkaritza barik han–. Elkarrekin koalizioak zinegotzi bakar bat izaten jarraituko du, Arrasaten. PPk ez du ordezkaritzarik izango.

### Hiru herritan aldaketa

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako alkatetzak berreskuratuta, zazpi herritan erabateko gehiengoa izango du EH Bilduk. Arrasaten eta Leintz Gatzagan –han ez zen aurkeztu– izan ezik, gainerakoetan. Arrasateren kasuan, Maider Morrasek lortu ditu boto gehien –%42,74–. Eta, hamar zinegotzirekin, lehen indarra izango da udalbatzan. Gau "magikotzat" definitu zuen domekakoa. Maria Ubarretxena buru duen EAJk, ostera, mila boto galdu ditu, eta zortzi zinegotzi eskuratu. Jeltzaleek eta PSE-EEk –zinegotzi bi– batera bozkatuko balute, EH Bilduk, ezinbestean, Elkarrekin koalizioko Eva Abuin erabakigarria izango litzateke ekainaren 17an alkatetza lortzeko.

Aretxabaletan, alkate berria: EH Bilduko Gari Iturbe. 2019an baino 222 boto gehiago jaso ditu, eta EAJk, aldiz, laurehun boto galdu ditu. Iturbek domeka gauean etxekoak izan zituen gogoan: "Aita eta, bereziki, ama, izugarri poztuko litzateke". Udalbatza honela geratu da: EH Bilduk zazpi eserleku izango ditu eta EAJk, sei.

Eskoriatza izan da kasu deigarriena. EH Bilduk bikoiztu egin ditu EAJren botoak. Hala, orain dela hogei urte alkate izan zen Edorta Zubizarreta izango da berriro ere udalbatzako buru. Era horretan, lehengusu Joserra Zubizarreta ordezkatuko du. EH Bilduk herriko plazan ospatu zuen garaipena eta dagoeneko hasia da datozen lau urteetako plangintza prestatzen. EH Bilduk zazpi zinegotzi izango ditu; EAJk, lau.

### Aldaketarik ez besteetan

Gainerako herrietan ez da egon aldaketa handirik. Aurpegi berriak daude herri batzuetan, baina EH Bilduk jarraituko du udal guztietan agintean. Bergaran, Gorka Artolak; gainera, zinegotzi bat gehiago lortuta. EAJk, aldiz, zinegotzi bat galdu du, eta botoetan behera egin du nabarmen, 800 boto baino gehiago galdu ditu eta. Bergarako udalbatza honela geratuko da: EH Bilduk hamar zinegotzi, EAJk sei eta PSE-EEk bat.

Oñatin ere EH Bildu izan da nagusi, eta Izaro Elorzarena izango da aginte makila hurrengo agintaldian. Bi alderdik bakarrik osatuko dute udalbatza: EH Bilduk –hamaika zinegotzi, duela lau urte baino bat gehiago– eta Amaia Erostarbe buru duen EAJk, sei.

Antzuolan Olatz Lezetak Beñardo Kortabarria ordezkatuko du. EH Bilduk zazpi zinegotzi izango ditu. Eta PSE-EEk galdutako zinegotzia EAJk irabazi du: lau izango ditu. Elgetan Ibon Unzetabarrenetxea izango da alkate datozen lau urteotan, Iraitz Lazkanoren lekukoa hartuta. Deigarria da EH Bilduk boto kopuru bera jaso duela 2019an eta 2023an: 412. Udalbatza, orain arte bezala: EH Bilduk sei zinegotzi izango ditu eta EAJk, hiru.

Aramaion ere EH Bilduk jarraituko du, baina zinegotzi bat gutxiagorekin. Iban Herrarte izango da alkate hurrengo lau urteetan; Lierni Altuna ordezkatuko du. Nabarmentzekoa da 160 boto galdu dituela Aramaion EH Bilduk. Jeltzaleak bi zinegotzi izatetik hiru izatera pasa dira.

Gatzagan, hirurogeita hamabi botorekin, Dorleta Elkorobarrutia izango da alkate. Udal hauteskundeetara zerrenda bakarra aurkeztu da: Hautesleen Taldea.

## Galera handiena, jeltzaleek

ehbildu ↑ 246

Udal eta foru hauteskunde hauetan boto gehien jaso dituen alderdia da. 2019ean baino zazpi zinegotzi gehiago lortu ditu; denera, 64. Aurreko agintaldian eskualdeko boto guztien %44,76 zituen eta oraingoan, berriz, %51,87. Zortzi urteren ondoren, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan irabazi du.

eaj pnv ↓ 3.413

EAJk beherakada nabarmena izan du. 2019an baino 3.400 boto gutxiago lortu ditu –ia sei puntu gutxiago–. Boto guztien %33,44 batu ditu, eta, denera, 40 zinegotzi, duela lau urte baino lau gutxiago. Alkatetza barik geratuko da, Arrasaten EH Bilduk eta Elkarrekin koalizioak bat egiten badute.

PSE-EE PSOE ↓ 459

PSE-EEk, gutxi bada ere, behera egin du udal hauteskunde hauetan. 2.198 boto eskuratu ditu, 2019an baino 459 gutxiago. Boto guztien %7,18 lortu ditu, eta Debagoieneko hirugarren indarra da. Zinegotziei dagokienez, bi galdu ditu: bat Arrasaten eta beste bat Antzuolan.

elkarrekin ↓ 528

Orain dela lau urte, Irabazi –Ezker Anitza eta Equo– eta Ahal Dugu nor bere aldetik joan zen hainbat herritan. Denen botoak zenbatuta, guztira, 1.731 boto jaso zituzten. Oraingoan, koalizioan joan dira eta 1.203 lortu dituzte. Bailara osoan zinegotzi bakarra izaten jarraituko dute: Arrasatekoa, Eva Abuin.

PP ↑ 279

Alderdi Popularrak 2019an jasotako boto kopuruak ia bikoiztu egin ditu, baina ez du ordezkaritzarik izango Debagoienean. Guztira, 596 boto lortu ditu, 2019an baino 279 gehiago. Denera, bost udalerritan aurkeztu dituzte zerrendak popularrek, eta boto gehien Oñatin jaso dituzte: 55.

## DEBAGOIENA

### ZINEGOTZIAK




### EMAITZAK

**2023**

| Alderdia | Botoak | % | Zinegotziak |
|---|---|---|---|
| EH BILDU | 15.875 | %51,87 | 64 |
| EAJ | 10.233 | %33,44 | 40 |
| PSE-EE | 2.198 | %7,18 | 3 |
| ELKARREKIN | 1.203 | %3,93 | 1 |
| PP | 565 | %1,85 | 0 |
| LG | 72 | %0,24 | 5 |

- **Errolda:** 49.597.
- **Boto emaileak:** 30.958.
- **Abstentzioa:** %37,58.

**2019**

| Alderdia | Botoak | % | Zinegotziak |
|---|---|---|---|
| EH BILDU | 15.629 | %44,76 | 57 |
| EAJ | 13.646 | %39,08 | 44 |
| PSE-EE | 2.657 | %7,61 | 5 |
| ELK. POD. | 1.169 | %3,35 | 1 |
| IRABAZI | 355 | %1,02 | 0 |
| PP | 286 | %0,82 | 0 |
| ARRA. AU. | 271 | %0,78 | 0 |
| ELIZATEAK | 209 | %0,60 | 1 |
| AHAL DUG. | 207 | %0,59 | 0 |

- **Errolda:** 50.266.
- **Boto emaileak:** 35.232.
- **Abstentzioa:** %29,89.


Aitor Irure
EH BILDU


Iker Intza
EH BILDU


Eneritz Otamendi
EH BILDU


Aintzane Oiarbide
EAJ


Ander Garay
EAJ


Rafaela Romero
PSE-EE

# EH Bildu nagusi Batzar Nagusietarako; eta sei batzarkide debagoiendar

Batzar Nagusietarako ere EH Bildu izan da garaile eskualdean, eta duela lau urteko hauteskundeekiko gora egin duen bakarra da; halere, udaletarako baino mila boto gutxiago lortu ditu. Bestetik, sei debagoiendar izango dira Gipuzkoako Batzarretan

**Eneko Azkarate Laspiur** DEBAGOIENA

Foru hauteskundeetan ere EH Bildu izan da nagusi Debagoienean –Aramaioko Arabako Batzar Nagusietako botoak gehituta–, 14.852 botorekin (%48,73). Bigarrena, EAJ, 10.546 botorekin (%34,60); hirugarrena, PSE-EE, 2.527 botorekin (%8,29); Elkarrekin koalizioa izan da laugarrena, 1.613 botorekin (%5,29) eta PP bosgarrena, 463 botorekin (%1,52).

Parte hartzea 2019an baino ia zazpi puntu txikiagoa izan da oraingoan. Hala, gora egin duen alderdi bakarra EH Bildu izan da –nabarmen gora, gainera–. Sei puntu egin du gora, nahiz eta botoetan apur batzuk gutxiago jaso. Ostera, behera egin duena EAJ izan da, lau puntu behera. Gainerakoak nahiko antzera aritu dira, botoetan behera egin arren guztiek.

### EH Bilduk, udaletarako gehiago

Alderatuz gero alderdi bakoitzak Batzar Nagusietara eta udaletara jaso dituen botoak, alderdi guztiek jaso dituzte boto gehiago Batzar Nagusietarako udaletarako baino –aldea oso nabarmena ez izan arren–, EH Bilduk izan ezik; azken horrek 1.023 boto gutxiago jaso ditu Batzar Nagusietarako. EAJren kasuan, Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan udalerako Aldundirako baino boto gehiago jaso ditu.

### Sei debagoiendar Batzarretan

Sei debagoiendarrek eskuratu dituzte eserlekuak Gipuzkoako Batzar Nagusietarako. EH Bilduk eskuratu ditu boto gehien Gipuzkoan, eta hiru debagoiendarrek eskuratu dituzte aulkiak. EAJko bi debagoiendar egongo dira eta PSE-EEko bat.

Deba-Urola barrutian, EH Bildutik Aitor Irure aretxabaletarrak eta Iker Intza bergararrak eskuratu dituzte eserlekuak; EAJtik, bestalde, Aintzane Oiarbide bergararrak eta Ander Garay arrasatearrak eskuratu dituzte eserlekuak.

Donostialdea barrutian, EH Bilduko Eneritz Otamendi eskoriatzarrak lortu du eserlekua; eta Bidasoa-Oiartzun barrutian, PSEko Rafaela Romero arrasatearrak.

Oria barrutian, bestalde, EAJko Rafa Uribarren arrasatearra eserlekua lortzetik oso gertu gelditu da –1.300 boto inguru–, baina, azkenean, ez da hautatua izan. Deba-Urola barrutian, berriz, Elkarrekineko Juan Luis Merino eserlekua lortzetik gertu gelditu da –1.460 boto inguru–.

### Debagoienetik kanpo

Bestalde, Debagoienetik kanpo, hainbat erakundetan aurkeztu dituzte hautagaitzak debagoiendarrek. Kasu nabarmenena da Koldo Martinez (Eskoriatza, 1953), Geroa Bairen aurpegi ospetsuenetakoa eta azken hauteskundeetan Iruñeko alkategai izan dena. Geroa Baik Iruñean lortu dituen bi zinegotzietako bat da eta giltza izan dezake alkatea aukeratzeko orduan.

Badira beste kasu batzuk, ordea. Esaterako, Lemoizen, Bizkaian, Jesus Mari Arizmendi 62 urteko bergararra izango da alkate (EH Bildu). Domekako hauteskundeetan bost zinegotzi lortu zituen haren zerrendak eta lau EAJk. Lapuebla de Labarcan, Araban, ostera, Carlos Errasti 62 urteko arrasatearra zen EH Bilduren alkategaia, baina ez du ordezkaritzarik lortu.

Eta, bestetik, Mikel Etxebeste arrasatearrak Nafarroako Lezaungo alkate izaten segituko du; izan ere, domekako hauteskundeetan ez zen zerrendarik aurkeztu, eta, horrenbestez, azaroan berriro hauteskundeak antolatu arte, gutxienez, alkate izan beharko du.

**KOLDO MARTINEZ, ZINEGOTZI IRUÑEAN; JESUS MARI ARIZMENDI, LEMOIZEKO ALKATE**

### 'Goiena.eus': 18.000 lagun

Hauteskunde egunean eta biharamunean 18.000 erabiltzailek jo zuten *Goiena.eus*-era udal eta foru hauteskundeen jarraipena egiteko. Sarean, telebistan, irratian eta paperean jaso zituen hauteskundeetako emaitzak Goienak. 35 langilek jardun zuten. Lau orduko telebistako saioa 3.000 lagunek jarraitu zuten webgunearen bidez. Biharamunean, GOIENA aldizkari bereziaren 6.000 ale banatu ziren eskualdean; 4.000, Goienakideei, etxeetan.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN

**BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Honen bidez, 2023ko ekainaren 15ean, eguena, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako deia egiten dut.

Batzarra Arrasateko Kulturaten izango da, Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenean.

**GAI ZERRENDA**

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2022ko ekainaren 16ko batzar orokoreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2022ko kudeaketaren memoria onartzea.
4. 2022ko kontuak onartzea.
5. 2022ko emaitzen erabilera onartzea.
6. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
7. 2023ko kudeaketa plana onartzea.
8. 2023ko aurrekontua onartzea.
9. Bazkide ekarpenen eguneratzea onartzea.
10. Kontseilu Sozialeko kideak izendatzea.
11. Galderak eta eskaerak.

i. Euskadiko Kooperatiben Legearen 24.4 artikuluaren arabera, bazkideei jakinarazten zaie euren eskura dituztela kooperatibaren egoitza sozialean, ekitaldiko Urteko Kontuak, emaitzen aplikazioko proposamena eta Kudeaketa txostena jasotzen dituzten dokumentuak.
ii. Era berean, Euskadiko Kooperatiben Legearen 36.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, berariaz adierazten da bazkide guztiek eskubidea dutela kooperatibaren **egoitza sozialean aztertzeko** gai-zerrendako puntuei dagozkien agiriak.

Arrasaten, 2023ko maiatzaren 29an.

**Monica Belastegi Aranzabal**
**Errektore Kontseiluko presidentea**

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

ZABALIK



IÑAKI ETXEBESTE

# Biziraueatearen albo-kalteak

Edozein gauza edo bizidun multzori buruzko iritzi bat eraikitzerakoan oso garrantzitsua da multzoa bera zein den ongi zehaztea. Ikerketan erabili ohi den adibide batekin ongi ulertzen da hori.

Katuak oso trebeak omen dira garaiera handietatik jauzi eta bizirauten. Albaitariarengana eramandako katu zauritu ugariren kasuak aztertu ondoren, seigarren pisutik gorako garaieratik jauzi egindako katuek garaiera txikiagotik jauzi egindakoek baino zauri txikiagoak zituztela egiaztatu zuen ikerketa batek. Seigarren pisutik behera eroriz gero, katuek ez omen zuten denbora nahiko erlaxatu eta lurreratzea prestatzeko. Baina adi, ikerlariek ez zituzten kontuan hartu erortzean hildako katuak, eta jauzi egin ez zutenak ere ez. Beraz, biziraun zuten katuetara soilik mugatzen da ondorio hori, eta ezin daiteke esan katu guztiak trebeak direnik.

**SEIGARREN PISUTIK GORA JAUZI EGIN DUTENEI AGINTZEKO AUKERA EMANGO ZAIE, ETA BESTEEI EZ**

Hauteskundeak pasa direla aprobetxatuta, hona hemen datozen lau urteetan ordezkatuko gaituzten pertsonei egingo zaien azterketari buruzko gogoeta.

Hasteko, kontuan izan, adibideko katuen antzera, hautetsiak jauzi egin duten zure herrikideak direla. Lau urtez bizirauten saiatuko dira, agintean edo agintearì aurre egiten. Azterketa horretan, seigarren pisutik gora jauzi egin dutenei agintzeko aukera emango zaie, eta besteei ez.

Hausnarketa horren emaitza gaurtik badakigu. Askok ondorioztatuko dute zinegotziak botere goseak, berekoikeriak eta beste hainbeste gogo ilunek bultzatuta sartu direla politikan, eta, beraz, lan eskasa egingo dutela. Beste batzuek egindako lanaren aitortza helaraziko diete, edo, behintzat, saiatu izanarengatik merezi duten esker ona. Berdin dio irabazi edo ez.

Datozen lau urteetan zure herriko udaletxera begiratzerakoan gogoan izan adibidean jauzi egin ez zuten katuak. Ikergai den multzoa jendartea bera bada, gu jauzi egin ez dugun jendarteko pertsonak baikara.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

## Ama, lagunduidazu

SALMA AHMED
BATXILERGOKO LEHEN MAILAKO IKASLEA
ARRASATE BHI-N
ARETXABALETA

Institutuan soziolinguistikaren ezagutza lantzeak gauza askoren gaineko hausnarketa egitea eragin dit; adibidez, konturatu naiz hizkuntza hautua baldintzatua dela, hizkuntza bat barneratzeko ibilbide ezberdinak hartu ditzakegula, baina gehien kezkatu nauena gauza bakarra izan da: nire ama-hizkuntza galtzen ari naiz.

Ez dakit zein izan den arrazoia; nerabe eleanitz batek halako egoera batetik pasatzea normala da, ezta?

Banekien lehenago edo geroago hori gertatuko zela; kontuan hartuta euskara eta gaztelera eskolan, kalean eta etxean erabiltzen ditudala, nire ama-hizkuntza bazter batean uzteak ez nau harritzen. Hala ere, nire identitatea zulotik behera bota dudala sentitzen dut; nire ama-hizkuntza gabe zelan esan dezaket harro sahararra naizela?

Hau idazten ari naizela lotsagabe sentitzen naiz, hasaniarrek Afrikan milaka urtez daramatzaten nomaden izaerari omen egiten baitiote, lehen erabiltzen ziren esaerak eta esapideak erabiliz.

Nire amona bizirik egongo balitz, seguruenik lotsatu egingo litzateke. Beraiek errepresio garaian ezkutatu egiten ziren hasanieraz abestu eta hitz egiteko, eta egun nik etxean nire askatasun guztiarekin kolonizatzaileen hizkuntza darabilt; lotsagarria.

Badakit nire egoeran bizi direnak asko direla. Diasporan bizi garen etorkinen seme-alabok errealitate latz baten bizi gara; gure gurasoek bizi zutena baino askoz egoera latzagoan ez, baina bai egoera gogorretan. Batzuetan, nire amaren jakinduria edukitzea gustatuko litzaidake, berak badaki-eta zer egin horrelako egoeretan, berak badaki-eta zer egin behar dudan berak niri emandako hizkuntza berreskuratzeko.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.500 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

LAGUNTZAILEAK
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

# "Avanzak Pesa erosi zuenetik dena joan da okerrera"

**EUGENIA PABLOS** AUTOBUS-GIDARIA ETA ELA-REN ORDEZKARIA AVANZAN

**Mikel Zumalde Etxabe** DEBAGOIENA

Avanzako langileek hiru eguneko lanuztea egin berritan, ELAko ordezkari Eugenia Pablos autobus-gidariarekin egon da GOIENA. Grebak Ertzaintza eta Gipuzkoako Foru Aldundia mugitzen hasteko balio izan duela dio. Azkenaldian, autobusak egoera "tamalgarrian" daudelako, linea batzuk bertan behera gelditzen ari direla adierazi du.

**Nola joan da hiru eguneko lanuztea?**

Egia esan, pozik gaude, oso erantzun ona eman dute langileek. Egoera larrian gaude, eta langileek erantzun ona eman dute, guztion bizitza dago-eta jokoan. Balorazioa oso ona da, dagoeneko norbait eskua sartzen hasi delako. Ertzainak ibilgailu bat gelditu zuen martitzenean Zumarragako geltokian, eta beste batek isuna eraman zuen.



Eugenia Pablos, autobusean, lanlekuan. MIKEL ZUMALDE

**Ez duzue soldata igoerarik eskatzen, ezta opor gehiago ere. Segurtasuna soilik. Horrela da?**

Guztiz. Hemen ez gara ezer eskatzen ari, enpresatik egoera desitxuratu nahian ari diren arren. Hilabete daramagu lan hitzarmena negoziatzen, hiru urte baino gehiago eman ditugu abenduan azken hitzarmena sinatzeko, eta hemen inork ez du ezer esan, inork ez du ezer argitaratu, ez dugu izan greba egiteko asmorik ere, eta hiru urte baino gehiago behar izan ditugu hitzarmena sinatzeko. Eta ez da inor konturatu.

**Egoera horren aurrean, zein da enpresan jarrera? Zer diote?**

Hobetzeko lanean ari direla diote. Haiek esaten dizute flota berrituko dutela %30. Urtebete baino gehiago beharko dute eta ez dakit hamazortzi autobus edo zenbat etorriko diren. Horrekin ez dugu ezer egiten. Herriak konektatzen dituen autobusak suntsituta daude. Avanzak Pesa erosi zuenetik dena joan da okerrera. Eguaztenean Arrasate-Zumarraga linea bertan behera gelditu zen, autobusak behar bezala ez egoteagatik. Lotsagarria da diru publikoa jasotzen duen enpresa pribatu baten horrela lan egitea.

**Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zer dio?**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, greba deialdia hauteskundeetatik hain gertu zegoela ikusita, gurekin hitzartzeko tarte bat egin zigun. Aldundiak esaten duena da adi egongo direla, eta helbide elektroniko bat jarri dute martxan Enpresa Batzordetik izaten ari garen arazoak haiei bidaltzeko. Ikuskatzaileak ere jarri dituzte.

**Herri artean dabiltzan autobusak egoera tamalgarrian daudela diozue. Zein egoeratan daude, zehazki?**

Potentzia gutxitzen zaigu edonon. Eguaztenean, Eibartik Gasteizerako bidean, Soraluzen orduko hogeiko murrizketa egin zuen autobus batek. Zer gertatzen da? Mekanikariak joaten direla, ordenagailua sartzen dutela, anomalia ezabatzen diotela eta, tira, tarte batez berriro martxan dagoela. Baina, noski, bi egun barru beste bati gauza bera gertatuko zaio. Matxura ez da konpontzen, estali egiten da, ezkutatu.

**Aurrerantzean greba gehiago egiteko asmorik bai?**

Oraingoz, ez dugu greba gehiago egin nahi. Ikusten ari gara enpresaren aldetik ez direla ezer egiten ari, baina beste alde batetik bai. Ertzaintza tartean sartzen ari da eta Aldundia ikuskapenak egiten hasi da. Ea ikuskapen horiek noraino iristen diren.

**Zein da errudun nagusia?**

Honek guztionek errudun nagusi bat du eta hori Juan Santiago da, Avanzako esplotazioen gerentea eta mantentze-lanen arduraduna. Izan ere, argi gelditu da hark ez duela balio kargu horretarako.

Eskerrik asko gertukoenaren alde egitearren

GOIENA ALDIZKARIA
35.000
irakurle astero

GOIENA.EUS
13.000
erabiltzaile egunero

GOIENA TELEBISTA
7.000
ikus-entzule egunero

0 km
HEDABIDEEKIN ERE BAI

goiena
Zu hemen zaude.

Iturria: CIES, 2023ko lehen neurketa



Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteko bazkideak, lokalaren atean, hasierako urteetan. AED




Arrasate Telebistako hainbat kide, hasierako urteetan. GOIENA

# 40 urte Arrasate euskalduntzen

1983ko azaroaren 29an sortu zuten Arrasate Euskaldun Dezagun elkartea, orduko hartan euskarak bizi zuen egoera zaila iraultzeko helburuarekin; aurten dira 40 urte

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

AEDk atzo inauguratu zuen 40. urteurreneko erakusketa eta ekainaren 22ra arte egongo da ikusgai, Kulturateko klaustroan, astelehenetik zapatura, 17:30etik 20:30era. Urte hauetako argazki eta panelez gain, ekintzen kartelak eta egitarauak ere erakusgai egongo dira, baita AEDri buruzko dokumentuak, elkartetik sortutako argitalpenak zein Arrasateko euskarari eta toponimiari buruzko lanak ere. Halaber, bisita gidatuak ere egingo dituzte eta izena eman beharko da aurrez, *aed@aedelkartea.eus* helbidera idatzita edo 943 77 12 28 zenbakira deituta.

### Euskara biziberritzeko nahitik

1983an sortu zuten AED elkartea. Frankismoa atzean utzi arren, garai zailak bizi zituen euskarak 80ko hamarkadaren hasieran, eta Arrasate ez zen salbuespena. "Oso triste zegoen gure hizkuntza eta zerbait egin beharra sentitzen genuen", azaldu du Patxi Goikoleak, AEDren sortzaileetako batek. "Garai hartan, zorionez, lan handia egin zuten Gipuzkoa aldetik Arrasatera bizi izatera etorri ziren euskaltzale batzuek". Rufina Olasagasti zen haietako bat: "Orduko hartan, arrasatearrek konplexuz ikusten zuten euren euskalkia. Esaten zuten euren euskara zatarra zela eta gurea, berriz, polita. Baina hori ez zen horrela. Nik Txillardegiri entzuna nion Arrasateko euskara jatorragoa dela Tolosaldeakoa baino", dio.

1982an, ikastaro soziolinguistiko baten baitan, hitzaldi batzuk egin zituzten Arrasaten. Batetik, Siadeco Ikerketa Elkarteko Iñaki Larrañagak euskararen egoerari buruzko azterketa plazaratu zuen, eta "beltza baino ilunagoa" zela konturatu ziren. "Ohartu ginen neurri batzuk ez baziren hartzen desagertzeko bidean zegoela euskara; izan ere, hiztunak %10-12 ziren Debagoienean, eta Arrasaten gutxiago", azaldu du Olasagastik. Era berean, Tolosako Galtzaundi taldetik Kike Amonarriz etorri zen eta Lazkaoko Maizpide barnetegitik, Dionisio Amundarain. "Hor ikusi genuen talde bat sortzeko beharra, eta hala egin genuen".

### Aitzindaria Euskal Herrian

Iñaki Mendiguren, Joxe Mari Muxika, Rufina Olasagasti, Bittori Etxeberria, Mattin Amondarain eta Txomin Otamendi izan ziren AEDren sortzaileetako batzuk, eta, arrasatearrei dagokienez, Goikolea bera eta Mariasun Ibabe, besteak beste. "Ez ginen hainbeste arrasatear".

AED aitzindari izan zen, orduko hartan ez baitzegoen halako euskara elkarterik. Hortik sortu ziren bailarako eta Euskal Herri mailako gainontzekoak. "Lehenak izan ginen horretan, eta, gure eredua aintzat hartuta, elkarte gehiago sortzen hasi ziren ondorengo urteetan", dio Goikoleak. "Tolosako Galtzaundi izango zen bakarrenetakoa", gaineratu du Olasagastik.

## Patxi Goikolearen bertsoak

Elkartea sortu eta berehala, 1983ko abenduan, Patxi Goikoleak sei bertso jarri zituen: orduko egoera azaldu eta elkartea sortu izanaren garrantzia nabarmendu zuen. Hauek dira bertsoak:

*Nola gure hizkuntza.*
*oso gaixo dugun,*
*indar handienakin*
*behar zaio lagun;*
*ez da nahikoa esan.*
*garela euskaldun.*
*abertzaletasuna.*
*jarriaz ezagun.*
*Arrasate herria.*
*"Euskaldun Dezagun".*

*Euskara ia galdu.*
*zaigu ikastolan,*
*kale ta udaletxean*
*ere dugu holan;*
*ehunetik hamahirua*
*nola mintzatzen dan*
*euskara etxean dugu*
*bigarrengo mailan*
*lehenengoan jartzeko*
*egin dezagun lan.*

*Euskara salbatzeko.*
*da beharrezkoa*
*Udalbatzorde on bat*
*indar haundikoa*
*ondoan gabinete*
*talde teknikoa,*
*ta iriki herrian*
*euskaldun txokoa,*
*ez uste dana ere*
*danikan nahikoa.*

*Lehen herri zaharra*
*/ gendun*
*euskararen abe,*
*baina gaur gazteleraz*
*hitz egiten dabe;*
*euskara hilzorian*
*dugu oso grabe*
*honen kalte larriaz*
*behar dugu jabe,*
*ez baita aberririk*
*hizkuntzarik gabe.*

*Abertzale geraden*
*lagun ta kideak*
*garbi eduki ditzagun*
*laneko ideak*
*azaltzen ditugula*
*gure eskubideak*
*udalbatzar gabinete*
*eta euskaltegiak,*
*herria euskalduntzeko*
*lehenengo bideak.*

*Euskaldunok erderaz*
*hizketan gabiltza,*
*geuk ezartzen diogu*
*hizkuntzari gaitza*
*dakigunok geurean*
*behar dugu mintza,*
*nahi badugu herriak*
*eduki bizitza*
*euskarai laguntzeko*
*eman daigun hitza.*

### Hasieran, lan zailak Udalarekin

Arrasatearrak aitortu du martxa hartzea kosta egin zitzaiela, "esfortzu handia" egin behar izan zutela aurrera egiteko, eta Olasagastik ere bat egin du horrekin. Izan ere, herritarren aktibazioaz gain, Udalaren inplikazioa "derrigorrezkoa" ikusten zuten. Lehen harremanak Jose Antonio Ardanza alkatearekin egin zituzten, eta gero, Alvaro Arregirekin. Elkartea sortzearekin bat, hiru eskari zehatz egin zizkioten Udalari: "Batetik, Euskara Batzordea sortzea; bestetik, euskara zerbitzua edo kabinete teknikoa deitzen geniona sortzea, hau da, udal teknikari bat egotea, euskara arloko politikak lantzeko; azkenik, itzultzaile zerbitzu osoa. Izan ere, egun erdiz zegoen garai hartan. Era berean, lokal bat ere eskatu genion, gu biltzeko eta ekintzak han egin ahal izateko", dio Olasagastik. "Itxialdi bat ere egin genuen lokalean, espazio hori aldarrikatzeko. Eskatutakoa ez genuen berehala lortu, baina lanean segi genuen, eta, azkenean, lortu genuen hitzarmen bat Udalarekin, gauzak erraztu zizkiguna".

Behin Pablo Uranga kaleko lokala eskuratuta, taberna bat jarri zuten. "Maria Jesus zen sukaldaria, atxondarra. Oso adeitsua zen eta sekulako berakatz-zopak prestatzen zituen. Jatordu onak egiten genituen, eta afalostean kantuan aritzen ginen. Obligazioa zen euskaraz aritzea, ezin genuen gaztelaniaz berba egin. Gogorrak ginen gero! Hanka-sartze batzuk egongo ziren, baina jendea ohitura hartzen joan zen", adierazi du Goikoleak.

### Lantaldeak, beharren arabera

Garai hartarako "dezente altuak" ziren kuotekin hasi ziren mar-


Ekin Emakumeak Elkarteak antolatutako joskintza ikastaroetako bat. AED


Lehen auzolandegia. AED


Txatxilipurdiren baitan egindako lehenengo ekintzetako bat. AED

txan, ulertzen zutelako taldeak "laguntza iraunkorra" behar zuela, Olasagastiren esanetan. "Gainera, herritar asko halako zerbaiten zain zeuden eta segituan egin zuten bat elkartearekin. Hala, hainbat lantalde jarri genituen martxan, ikusten genituen beharren arabera".

Batetik, umeak zeuden. "Ikastetxetik irteterakoan, ez zeukaten ezer, eta hiru irakasle hasi ziren, larunbatero, haientzako jolasak prestatzen. Pixkanaka, hazten joan zen hori, eta udalekuak eta ludotekak sortzen joan ziren". Bide horri jarraiki, Txatxilipurdi sortu zuten 1994an, haur eta gazteen euskarazko aisialdia ardatz hartuta.

Bestetik, emakumeak ere "oinarrizkotzat" zituzten euskararen transmisioan, ama eta irakasle ziren neurrian. Hortik sortu zuten Ekin Emakumeak Elkartea; tartean ziren Bittori Etxeberria, Marilu Ajuria eta Ana Unzalu, besteak beste. "Gai asko lantzen hasi ziren, historia, sexualitatea, heziketa sexuala eta abar, eta emakume asko oso pozik geratzen ziren halako gaiak euskaraz lantzeko aukera izateagatik", dio Olasagastik.

Era berean, euskarazko komunikabideak ere funtsezkoak ziren, ordura arte gaztelaniak "erabat janda" zuelako euskara arlo horretan. Hala, 1994an, ARKO eratu zuten, *Arrasate press* eta Arrasate Telebista ekoizteko. Joxe Aranzabal izan zen motor nagusia, Jose Mari Eraña, Iñaki Mendiguren eta Joxefe Diaz de Tuestarekin batera. Gerora, 2000an, Goienan integratu zen ARKO.

Euskalan ere sortu zuten, 1996an, lan munduan, bereziki enpresetan, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

**URTEURRENA BALIATUTA, BAZKIDE KANPAINA IREKIKO DUTE; EGUN, 600 BAT BAZKIDE DITUZTE**

**EKAINAREN 22RA ARTE EGONGO DA IKUSGAI ERAKUSKETA, KULTURATEKO KLAUSTROAN**

**Urteurrenera, "gazi-gozo"**

AEDko lehendakari Eñaut Muxikak aitortu du zapore "gazi-gozoa" utzi diola 40. urteurrenak. "Gozo, 40 urtera iritsi garelako eta horrelako elkarte batek hainbeste denbora irauteak baduelako meritua. Gazi, ikusten dugulako 40 urte hauetan ez dela aurreratu guk nahiko genukeen beste. Aurrerapauso handiak egin dira urte hauetan, hainbat eragile eta elkartek egindako lana handia izan delako. Halaber, ezagutza ere asko hazi da, baina erabilerari dagokionez ez dugu aurrerapauso hori ematen".

Euskararen normalizazioak segitzen du izaten elkartearen xede, eta, lehengoez gain, ekimen berriak sortzen ere badihardute bide horretan. Horren adibide da, esaterako, *Euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko Arrasateko protokoloa:* "Horren helburua ez da salaketa, baizik eta kontzientziazioa. Hemezortzi eragile batu dira eta zifra polita da, guk gehiago nahi arren".

Ttak gazte taldearen sorrerari ere balioa eman dio. "Aspalditik ikusten genuen beharra nerabe eta gazte talde bat sortzeko, hutsune bat antzematen baikenuen 18 eta 26 urte artekoetan; hau da, Txatxilipurdi ez zen iristen haiengana eta AEDra ere ez ziren hurbiltzen". Orain, Ttakek bete du hutsune hori eta talde bizia da, askotariko ekintzak egiten dituena.

Etorkizuneko erronkez galdetuta, Muxikak uste du garaia dela erabileran zentratutako erabaki irmoak hartzeko, bere garaian ezagutza arloan egindako apustua bezala. "Herritarrak kontzientziatu beharra dago, haien bizitzako esparru guztietan euskara erabiltzeko. Aisialdian bai, baina arlo sozioekonomikoan eragitea ere funtsezkoa da, gure bizitzaren zati handi bat han pasatzen baitugu".

Euskararen normalizazioari dagokionez, azkenik, zera dio Olasagastik: "Askok pentsatzen dute egungo egoera dela normala, baina egun ez dugu euskararen normalizazioa bizi. Estatistikoki, normala da kasuen %95 barnebiltzen dituena, eta euskararen kasuan ez da hala. Guk gurako genukeena da hemen euskaraz funtzionatzea Parisen frantsesez funtzionatzen duten moduan, adibidez. Horretarako, lanean jarraitu beharra dago".

## Udazkenean askotariko ekintzak

Lehenik, urriaren 22an, AEDk ekoitzitako antzezlan berria aurkeztuko dute. Azaroaren 3an, literatura emanaldi musikatua izango da Juan Arzamendi Musika Etxean, Joxe Mari Iturralde eta Joseba Sarrionandiarekin, besteak beste. Azaroaren 8an, Lanartea elkartearen *Loreak ,elaunetan* lanaren proiekzioa eta solasaldia egingo dituzte eta euskal kantagintzaren gaineko tailer bat ere badute lotuta, Gotzon Barandiaran eta Rafa Ruedarekin, nahiz eta eguna zehazteke duten oraindik. Azkenik, abenduaren 2an, Euskaltzaleen Egunaren baitan, Uarkapen bazkaria, kontzertuak eta beste hainbat sorpresa izango dituzte.





Emaitzak jakin berritan, EH Bilduko zerrendakideak Iratin, festa-giroan. IMANOL SORIANO

# Biharamun gozoa alde batean; gazia bestean

EH Bildu alderdirik bozkatuena izan da udal hauteskundeetan Arrasaten, eta EAJ bigarrena, 818 botoko aldearekin. Hala, Maider Morrasek esku-eskura dauka alkatetza, oposizioan bazkide izan den Elkarrekin Arrasateren babesa nahikoa baitu

**Hasier Larrea** ARRASATE
Botoa ematera deituta zeuden hamar arrasatearretik lauk abstentzioaren alde jo zuten, aurreko udal hauteskundeetan baino %6 gehiagok, eta EH Bildu izan zen parte hartzearen beherakadak negatiboki eragin ez zion alderdi bakarra. 4.301 boto eskuratuta, 21 eserlekutatik hamar egokitu zitzaizkion, 2019an baino bi gehiago. Emaitza horiek ez zioten Udal Gobernua osatzeko gehiengoa bermatu, baina, Elkarrekin Arrasatek zinegotzi bat lortu zuela kontuan hartuta, oposizioan egon diren bi alderdiak ados jarrita alkatetzarako ateak irekiko zaizkio Maider Morrasi.

Izan ere, EH Bilduk "herrigintzan eta ezkerreko politiketan oinarrituko den Gobernua" eratzeko prestutasuna erakutsi du egunotan, eta Eva Abuinek, Elkarrekin koalizioko zerrendaburuak, "progresistak diren alderdien ondoan" egoteko borondatea azaldu du. Herriak "aldaketa politikoa" aukeratu duela erantsi zuen Eva Abuinek; beraz, itxura guztien arabera, beste norabide bat hartuko du Arrasateko Udal Gobernuak, zortzi urteren ostean.

**EAJk, 1.001 boto gutxiago**

EAJk eta PSEk, berriz, zinegotzi bana galdu zuten, eta, bien artean hamar eserleku batuta –zortzi EAJk eta bi PSEk–, ez zaizkie kontuak ateratzen kolore bereko Udal Gobernua osatzen jarraitzeko. Jeltzaleek eta sozialistek gogotik ordaindu dituzte parte hartze baxuaren ondorioak. Hauteskunde gauean Maria Ubarretxena alkateak zoriondu egin zituen irabazleak, eta herritarren borondatea aintzat hartuta datozen lau urteotan oposizioa egitea tokatuko zaiela onartu zuen.

Era berean, PSEko zerrendaburu Aritz Muruak parte hartzearen beherakadari egotzi zion herritarrek sozialistengan zuten konfiantza gutxitu izana: "Guk boto asko galdu ez ditugun arren, EH Bilduren igoera nabarmena izan da; beraz, haiek dira irabazle argiak".

**EKAINAREN 17AN OSATUKO DEN UDALBATZAN ERATUKO DA UDAL GOBERNU BERRIA**

**"Guztien alde lan egitera"**

EH Bilduk herriaren eta herritar guztien alde lan egiteko konpromisoa agertu du asteon: "EH Bildu bozkatu zuten, beste aukera batzuen alde apustu egin zuten eta hauteskundeetan parte hartu ez zuten horien guztien mesedetan eraikiko dugu Arrasate. Elkarlanean eta adostasunean oinarritutako udalgintza eta herrigintza eredua izango da gurea, herritar eta eragileak erdigunean jarriko dituena, denon artean maite dugun Arrasate biziberritzeko".

## Botoak, hauteslekuz hautesleku

| | EH BILDU | EAJ | PSE-EE | ELKARR. | PP |
|---|---|---|---|---|---|
| Erdigunea | 2.215 | 1.663 | 296 | 226 | 73 |
| Musakola | 536 | 371 | 147 | 109 | 15 |
| Makatzena | 221 | 207 | 241 | 104 | 37 |
| San Andres | 369 | 410 | 190 | 105 | 43 |
| Erguin | 718 | 592 | 278 | 166 | 52 |
| Uribarri | 238 | 282 | 29 | 21 | 6 |
| Baserri-auzoak | 92 | 96 | 8 | 19 | 6 |
| GUZTIRA | **4.389** %43,3 | **3.571** %35,2 | **1.189** %11,7 | **750** %7,4 | **229** %2,7 |
| ZINEGOTZIAK | 10 | 8 | 2 | 1 | 0 |

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA


NIRE USTEZ
**MARIXE RUIZ DE AUSTRI**

### Troiako zaldia

Gezurretan aritzea beti egon izan da modan. Mitologia grekoak Troiako zaldia deritzona aipatzen digu akeoen engainua azaltzeko. Hain urrunera joan beharrik gabe ere, hogeita batgarren mende loriatsu honetan komentatu zuten bloke inperialistako buruek suntsipen handiko armak zituztela Ekialde Hurbilean; mundu berriko biztanleek arimarik ez zutela zioten eran, ustiaketa eta genozidioa justifikatzeko.

Dena den, iruzurgilearen teknika ere ez da estatikoa, aldatu egiten da urteak aurrera joan ahala, bi metodoren bidez, egoeraren arabera: batetik, jendeak zerbait ezkutatzen ari den susmoa badu, are disimulatuago arituko da; bestetik, jendeak guztiz irensten badu esandakoa, gero eta ageriagoan utziko du egia, teknikak ez duelako axola.

Orain kapitalismoak hegemonia kulturala lortua den garaian gaude, eta jasangarritasuna da askok Barakaldon izan den Munduko Bankuari kritikatzen diona, kapitalaren metaketa zikloan duen rola kontuan izan gabe. Troiako zaldia gure ateetan dugu, eta itxuratik esentziara pasatu ezean gainetik pasako zaigu.

## Seber Altube plaza, herrialde pobreei laguntzeko topaleku

Arrasateko gobernuz kanpoko erakundeek zapatu osorako egitaraua prestatu dute, disko-festa eta guzti

**H.L.** ARRASATE
"Beste mundu bat posible dela ikustarazteko", 24. aldiz egingo dute Elkartasun Eguna Arrasaten, Harreman erakundeak kudeatuta eta elkarte askoren ekarpenarekin. GKEen mundu-mailako proiektuak ezagutu eta ekitaldi ugaritan parte hartzeko aukera egongo da. Tonbolarekin hasiko dituzte ekintzak, 10:30ean, eta bildutako dirua Mumbaiko (India) Ankur harrera-etxeko 200 haurren beharrizanak asetzera bideratuko dute. Kultur taldeen plaza ere izango da Seber Altube: 11:30ean, Trikitixa Eskolako kideek, 12:00etan Lore Gazteak dantza taldekoek, 12:30ean gaiteroek eta 13:00etan Arrasate Musikaleko gazteek emanaldiak egingo dituzte.

Haurrentzako puzgarriak ere egongo dira, eta Txatxilipurdik disko-festan murgilduko ditu, 17:30ean hasita. 18:00etan tripaki lehiaketa, 18:30ean txokolate-jana, eta 19:00etan Arragoa folk taldearen kontzertua egongo dira. Azkenik, 20:30ean, Ibai-artek tonbolako 300 euroko bonua zozkatuko du.

### Atzerritik etortzean eman beharreko pausoak hizketagai

Ekainaren 7an, eguaztena, atzerritartasunari buruzko hitzaldia egingo dute Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 18:00etan. Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Biltzen integrazio zerbitzuak antolatuta, dokumentuen berritzea, atzerritarren eskubideak, familia berriro elkartzea, egonaldia eta egoitza landuko dituzte. Eman izena *arrasate.eus*-en.

### Greba feministarako bide-orria markatzen hasiko dira domekan

Arrasateko Mugimendu Feministak asanblada irekia antolatu du domeka goizerako, hilak 4, Biteri plazan, 11:00etatik 13:00etara. Zaintzarako eskubide kolektiboa helburu, dinamikaren kokapena, Arrasateko zaintza lanen erradiografia eta datozen hilabeteetarako erronken definizioa landuko dituzte, aliantzak jostearekin batera.

# Beteranoak goizean eta zazpikoa arratsaldean

Garagardo Azokarekin batera ARTk egun osoko errugbi jaia antolatu du zapaturako Mojategin. Goizean herensugeek lagunarteko partidua jokatuko dute eta arratsaldean (16:00) emakumezkoen eta gizonezkoen seina talde izango dira zazpiko torneoan

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE

Garagardo jaiarekin eztarria freskatu bai, baina horrekin batera egunotan egongo da izerdia botako duenik. Izan ere, Arrasate Rugby Taldeak hainbat kirol hitzordu prestatu ditu egunotarako. Batetik, atzo, eguena, azokako ateak irekitzearekin batera, MUko lagunekin batera herri kirol probak egin zituzten Arrasateko plazan. Errugbi partiduak, baina, zapaturako utzi dituzte. Goizean, beteranoek lagunarteko partidua jokatuko dute Mojategin, 12:00etan hasita, Gaztediren kontra. Ondoren, bi taldeek elkarrekin bazkalduko dute Herriko Plazako karpan.

Eta zazpiko torneoa arratsaldean izango da. Hala, ARTkoek hamabi talde batuko dituzte Mojategin. "Gizonezkoen eta emakumezkoen torneoa izango da eta seina talde gonbidatu ditugu: Bera Bera, Hernani, Durango, Eibar, euskal selekzioa eta gu geu", adierazi du Julen Barrutiak.



Emakumezkoen zazpiko torneoko artxibo irudi bat. GOIENA

**ZAZPIKO TORNEORAKO HAMABI TALDE BATU DITUZTE; 16:00ETAN HASIKO DIRA, BIHAR**

### Esfortzuak banatuta

Arrasateko ordezkariek ez dute lan makala izango; izan ere, zelaian eta karpako barra atzean eman beharko dute asteburuan neurria, eta torneoa jokatzearekin batera lan txandak egin beharko dituzte Garagardo Azokan: "Bai, guretako asteburu betea izaten da, baina zorionez, lantalde sendoa dugu eta denera iritsiko gara, seguru, aurreko urteetan egin dugun moduan. Asteburu berezia da hau klubarendako". Eta, torneora begira ARTko entrenatzaileak faboritoak ere nabarmendu ditu: "Uste dut faboritoak Bera Bera eta Hernani direla; seguruenik, eurek ekarriko dituzte talde indartsuenak".

### Partiduak bi zelaietan

Esan bezala, partiduak 16:00etan hasiko dituzte, Mojategiko bi zelaiak erabiliko dituzte zazpiko formatuan jokatzeko eta aurreikuspena da 19:00 aldera amaitzea: "Ondoren, karpara joango gara denok *hirugarren denbora* egitera, eta sariak banatuko ditugu han".

## Garagardo Azoka, atzotik zabalik

Atzo, eguena, zabaldu zituzten Garagardo Azokako ateak, eta zapatu goizaldera bitartean ARTko lagunak arrasatearren gose eta egarria asetzen saiatuko dira: 2.300 garagardo litro dituzte salgai, beste 600 garagardo botilatxo, 576 txerri-ukondo, 220 oilasko eta 1.300 saltxitxatik gora, hain zuzen ere. Egunero 19:00etan irekiko dute karpa.



Errugbi jokalariak, artxiboko irudi baten, garagardoaz gozatzen. GOIENA



Murua eta Aldave, senior mailako txapelekin, astelehenean. M.Z

# Ander Muruak Bergara Hiria Txapelketa poltsikoratu du

Astelehenean jokatu zuen finala, Pentekoste jaietan, eta Arrasatekoak 22-13 irabazi zuen Aldaverekin batera

**X.U.** ARRASATE

Astelehenean jokatu zituzten Bergara Hiriko 25. edizioko finalak, eta senior mailan debagoiendar bat gailendu zen: Ander Murua. Joan den astean finalerdietan galdu arren, Oskoz pilotariaren ordez finala jokatzeko aukera izan zuen Muruak, eta, beste behin, joko maila onean dagoela erakutsi zuen aurrelari arrasatearrak. Aldaverekin batera hasieratik aldea hartu zioten Azketa eta Lizeaga bikoteari, eta aldeari eusten joan ziren neurketa osoan, partidua irabazi zuten arte (22-13). "Nire bikotekideak oso partidu ona egin du, eman egin dio pilotari, moztu egin behar zenean halaxe egin du... Esango nuke euren atzelaria ernegatzea lortu duela, eta gero, uste dut nik izan ditudan pilotetan ere ondo asmatu dudala. Txapelketa ona egin dudala uste dut".

### Galeano ere finalean

Emakumezkoetan beste debagoiendar bat izan zen finalean, Leire Galeano. Neurketa polita jokatu arren, hark eta Aldaik ezin izan zieten irabazi Garairi eta Gaminderi (19-22).

## OHARRAK

### Tourrerako boluntarioak behar dituzte

Uztailaren 2an pasako da Frantziako Tourra Arrasatetik, eta Tour Lagunak taldea osatzeko boluntario bila dabiltza. *Arrasate.eus* atariaren bitartez eman daiteke izena, ekainaren 11 baino lehen.

### Eskuter jaialdia Musakolan zapatuan

Ekainaren 4an eskuter jaia egingo dute Musakolako skategunean. 17:00etatik 20:00etara egingo dute jaia eta OMK *indoor rider* erakusketa egingo dute, eta baita amateur txapelketa ere.

### Ointxe!-k gertu du uztaileko campusa

Astebeteko lau txanda egingo dituzte, ekainaren 26an hasi eta uztailaren 21era arte, eta adinaren arabera bereiziko dituzte taldeak. Campusa Musakolan egingo dute (09:00-14:00). Informazio gehiago 653 01 48 60 zenbakian eta izen-emateak *kirolzuzendaria@ointxe.eus* helbidean.

### Mondra futbol taldea neska bila dabil

Mondra emakumezkoen saila sortzeko lanean dabil, eta Arrasateko neskei deialdia egin die. Ekainaren 2ra arte eman daiteke izena, formulario hau beteta: *https://labur.eus/AgloJ*.

# "Frantziar okupazioa oso gogorra izan zen hemen"

**JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA** ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEKO IKERLARIA

'Napoleón jamás subió Gazteluondo' ikerketa-liburua kaleratu du, 1807tik 1813ra arte Napoleonen soldadu frantsesek Arrasaten utzitako arrastoa ikusarazteko

**Hasier Larrea** ARRASATE

XIX. mende hasieran, Napoleon Bonaparte Frantziako enperadoreak Iberiar penintsula konkistatzeko milaka eta milaka soldadu mobilizatu zituen Arrasate zeharkatzen duen errege-bidetik. Soldaduek sei urtez okupatu zuten herria, eta epe hartan gertatutakoak batu ditu Jose Angel Barrutiabengoak liburuan.

**Ikerketa-liburu hori aurrez egindako lan mardul baten emaitza dela diozu.**

1992an Javier Eguiarak ideia proposatu zigun AZEkooi; Udalaren Jose Letona beka jaso genuen eta urtebete pasatxo aritu ginen Debagoien osoko udal artxiboetan arakatzen. Datu interesgarrienak batu eta txosten kronologikoa atera genuen. Liburu hori txosten haren laburpena da, irakurtzeko askoz errazagoa. AZEren bulegoan dago eskuragai.

**Koka gaitzazu garai hartan.**

Espainiako erregea Carlos IV.a zen. Napoleon, Frantziako enperadorea, hura baino indartsuagoa zen, eta penintsula guztia konkistatzeko asmoa zeukan. Baina Carlos IV.ari jomugan Portugal bakarrik zeukala esan zion, Ingalaterrako aliatua zelako, eta, hala, haren tropekin modu baketsuan Espainia zeharkatzeko baimena jaso zuen. Bidean, baina, Iruñea, Burgos, Valladolid eta Madrid hiribilduak bereganatu zituen. Espainiako koroa eskuratzeko, Napoleonek Carlos IV.a erregea eta haren seme Fernando VII deitu zituen Hendaian, abdikatu egin zuten han eta koroa haren anaia Jose I.a Bonaparteri eman zion.



Barrutiabengoa, Gazteluondoko aldaparen eta Arrasate pasealekuaren artean. H.L.

**Okupazio hartan, Arrasate etapa-herria izan zen. Zergatik?**

Baionatik Madrilera joateko erre-gebidea bertatik pasatzen zelako. Irun, Tolosa, Beasain, Zumarraga, Arrasate eta Gasteiz tropa frantsesen atseden-leku izan ziren. Egunez egun 2.000 eta 3.000 soldaduko saldoak iristen ziren, zalditeriarekin eta armekin. Beraz, logelak ez ezik, guztientzako jana, lursailak... eman behar zitzaizkien. Pentsa, 1807an Arrasatek 2.190 biztanle inguru zeuzkan. Herriaren ekonomiarako galbidea izan zen hura. Aldundiak Udalari dirua emango ziola eta inguruko herriek lagunduko ziotela hitz eman zion, baina ez zen halakorik gertatu. Urte haietan luze borrokatu ziren Udala eta Aldundia, mehatxu eta diru-eskaerak tarteko. 1810etik aurrera egoera are gehiago konplikatu zen, soldadu batzuk Portugalerantz zihoazen bitartean beste batzuk bueltan zihoazelako Frantziarantz, zaurituta. Kontzezinoko komentua ospitale moduan egokitu zuten, eta soldadu asko hil ziren han. Laubideko hilerrian lurperatzen zituzten.

**Nolako harremanak izan zituzten herritarrek frantsesekin?**

Inoiz ez ziren onak izan. Soldaduek hilketa eta urkamendu asko egin zituzten; izan ere, haien aurkako gerrillek soldadu frantses asko hiltzen zituzten Arlabandik Deskargarako tartean. Soldaduak etxez etxe joaten ziren familiak mehatxatzen; gerrillan zegoelakoan gizonen bat falta bazen, senitartekoak zigortzen zituzten. Bestalde, frantziar jatorriko hamabi abizen inguru topatu ditugu orduko haur jaioberrien agirietan. Oro har, arrasatearrek euskaraz egiten zuten, Udal kKntseiluko kideek bazekiten gazteleraz, eta bazegoen Markaide abizeneko emakume bat, frantsesez zekiena. Udalaren eta frantziar komandantearen arteko interpretea izan zen.

**Egon al zen aparteko liburua merezi duen arrasatearren bat?**

Ramon Barrutia, Ferreriasen jaioa, familia dirudun batean. Gerrillaria zen, baina Otxandion entregatu zen kuadrilla guztiarekin. Zigortu beharrean, jendarmeria bateko kide izatea proposatu zioten, eta bandoz aldatu zen. Herri osoak gorrotatzen zuen, gerrillak harrapatu egin nahi zuen, baina, oso bizkorra zenez, ez zuten lortu. Frantziarrek, aldiz, estima handiz tratatu zuten. Gerra bukatzean Frantziara joan, eta Fernando VII.a Espainiako erregearen aurka konspiratzen hasi zen. Gero, Espainiara itzuli eta Fernando-zalea zela esanda salbatu zen. Aurrerago, Hirurteko Liberalean, liberal egin zen, berriz salbatzea lortuta. Eta asmatu Fernando VII.a itzultzerakoan ze bandotakoa zen orduan... Tira, kontua da egiten zituen gehiegikeriengatik kartzelara sartu zutela, eta han *garrote vil* delakoa aplikatu ziotela, emaztea akabatu zuelako. Konklusio moduan, Barrutia fronte guztietan egon zen arrasatear bakarra dela esan dezakegu.

**Nola bukatu zen okupazioa?**

Ehunka baja sortuta, gerrillariek Arlabanen garaitu zituzten frantsesak, eta ingelesek Gasteizen. Arlabanen Jose I.a Bonaparteren gutun bat atzeman zuten, Espainiako errege izateari uzteko nahia adierazten zuena. Gutun haiek Cadizera eraman eta publikatu egin zituzten. Frantziarrentzat oso mingarria izan zen hori.

**Amaitzeko, Napoleon zergatik ez zen inoiz Gazteluondora igo?**

1765era arte, errege-bidea Erdiko kaletik Gazteluondoko aldapa igota egiten zen, handik Santa Barbara inguratu eta Aretxabaletarantz hartuta. Kontua da aldapa hura hain zorrotza zela, euriarekin gurdiak ezin ziren pasa. Hori saihesteko, Arrasate pasealekua eraiki zuten. Beraz, Napoleonen tropak ez ziren sekula Gazteluondora igo.

**"2.500 SOLDADU PASATZEN ZIREN EGUNERO 2.000 BIZTANLE ZITUEN ARRASATETIK"**

## Gaur estreinatuko du obra berria Doke antzerki taldeak

Herriko antzerkilariek prest dute Dario Foren *Hemen ez du inork ordaintzen* obra euskaratua. Gaur, ostirala, aurkeztuko dute, Amaia antzokian, 19:30ean. Antzezlanak bi etxekoandre xumek hilabetearen amaierara iristeko dituzten arazoak aurkezten ditu. Andreetako bat supermerkatu batera sartzen da eta ahal duen guztia eramaten du ordaindu gabe. Gero, bi andreek, lapurretaz inor kontura ez dadin, plan bat asmatzen dute, gero eta nahasiagoa, senarrak ere konplize bihurtzeraino. Hauxe dio Vene Herrero zuzendariak: "Gaur egun bizi dugun egoerarekin zerikusia du obrak, inflazioari buruz asko hitz egiten delako, eta nola jendeak ez duen dirurik gauzak ordaintzeko. Hausnartzeko balio izan digu, gauza batzuk duela bost hamarkada baino aurreratuagoak baitaude, baina beste batzuk ez".

## Asteburuan bi kontzertu egingo dituzte gaztetxean

Koolturrek ikasturtea itxi duen arren, gaztetxeak emanaldi musikalen plaza izaten jarraituko du, ohi bezala. Gaur, 22:00etan, Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldeak kantu afaria egingo du, euskal abesti tradizionalez betetako errepertorioa plazaratzeko.

Bihar, ostera, doinu akustikoetatik elektrikoetara egingo dute jauzi: Perlata arrasatearrek joko dute, baita Aretxabaletako bi taldek ere, 22:00etan hasita; Jasan eta Txerrikumeak taldeek, hain zuzen ere. Ikus-entzuleek nobedadez betetako emanaldia izango dute aurretik, bi talde horiek disko berriak aurkeztuko baitituzte aretoan. Jasanek metal eta rock gogorra lantzen duen *Heuretik jo* izenekoa ondu du, ibilbideko lehena. Txerrikumeak taldekoek bigarren lana dute, *Nora heldu* izenekoa. Sarean daude bi taldeen berrikuntzak entzungai.

## Askotariko tresnak entzuteko aukera aste barruan zehar

Arrasate Musikalen Udaberri Ziklo Musikalaren egitarauaren baitan, ikasleek klarinete kontzertua emango dute martitzenean, hilak 6, 18:30ean, Juan Arzamendin. Biharamunean, 18:00etan, perkusio emanaldia egingo dute Monterron jauregian, eta eguenean gitarra hotsak izango dira protagonista Juan Arzamendin, 18:00etan.

# AUKEREN AZOKA

JAGUAR · LAND-ROVER · HYUNDAI · Ford · PEUGEOT · CITROËN · OPEL · FIAT · ABARTH · Jeep · mazda · MITSUBISHI MOTORS · AIWAYS · MAXUS




# 10.000 €-TIK HASITA

## FERIARA IRISTEKO

*Zarauztik edo Tolosatik:*
AP-8a Frantzia – Irun - Baiona norabidea
Hemen atera **GI-20 Errenteria**
Jarri lerro honetan:
Irteera **GI-2132 ERRENTERIA** (ordainlekua)
- 1. birigilgunea: GI-2132 norabidea – ERRENTERIA
- 2. biribilgunea: segi kartelari 1,5 km-ra Lintzirin edo G1-2132 ERRENTERIA
- 3. biribilgunea: **GI-636 IRUN**

Irteera horretatik atera eta 800 metrora hona iritsiko zara **LINTZIRIN**
- **BUS: Donostia Hondarrabia linea, Lintzirin geltokia**
- **Trena: Donostia – Irun, Oiartzun geltokia**




## BEREHALA ENTREGATZEKO 300 AUTO

## Ekainaren 2an, 3an eta 4an

Lintzirin, N-1 errepidea, 469. kilometroa
20180 Oiartzun

Ordutegi jarraitua, 10:00etatik 20:00etara

682 90 96 25

**Euskal Herriko ibilgailu berrietan, aukerakoetan eta Zero kilometrokoetan abagunerik onena**

GRUPO EASO MOTOR

www.grupoeasomotor.com


Hauteskunde gauean, A mahaiko presidentea eta bokalak boto baliogabeak sinatzen. A.E.G.

# EH Bildu nagusi, zinegotzi bat galdu arren

Domekan egindako udal eta foru hauteskundeetan abstentzioa %43,19koa izan zen Aramaion. Emandako botoetatik, gainera, baliogabeak 32 izan ziren eta zuriak, 25. EH Bilduk 405 boto lortu zituen, EAJk 179, PSE-EEk hamahiru eta PPk bat

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO
Domekako udal eta foru hauteskundeetan aipagarria izan zen abstentzioaren eta boto baliogabeen datua. Aramaioko kasuan, botoa ematera deituta zeuden hamar herritarretatik lauk ez zuten eman; zehazki, abstentzioa %43,19koa izan zen. 2019ko datuarekin alderatuta, 14,45 puntuko igoera izan du abstentzioak Aramaion. Gainera, nabarmentzekoa da boto baliogabeen kopurua. Domekako hauteskundeetan 32 boto baliogabe eman zituzten, eta 25 zuri. Baliogabeen kasuan, orain dela lau urteko datuarekin alderatuta, aurten 23 boto baliogabe gehiago egon dira; zurien kasuan, aldea ez da nabarmena: aurten 25 boto zuri egon dira eta 2019an, 26.

**Zinegotzi bat jokoan**
Emaitzei begira jarrita, EH Bildu koalizioa nagusitu zen domekan, eta gehiengo absolutua berretsi du Aramaioko Udalean. Hala ere, iazko datuekin alderatuta, 165 boto gutxiago izan dituzte; horrek ekarri die zinegotzi bat galtzea. Agintaldi berrian EH Bilduk sei zinegotzi izango ditu eta EAJk, hiru. Alderdi jeltzaleak, berriz, orain dela lau urte baino 39 boto gutxiago izan ditu, baina, hala ere, zinegotzi bat irabaztea lortu du.

Emaitzak jakin ostean, hauxe izan zen EH Bilduren alkategai Iban Herrarteren balorazioa: "Kezka geneukan abstentzioarekin, eta emaitzek konfirmatu egin dute gure kezka. Orokorrean, pozik gaude ez direlako emaitza txarrak izan". Emaitza horiekin, Iban Herrarte izango da Aramaioko alkate berria: "Lanerako gogoz gaude, badakigu ze *txolopote* dugun aurrean; gogor eta gogoz egingo dugu aurrera lantalde guztiarekin. Herria aurrera ateratzea da gure helburua". EAJko zerrendaburu Alberto Amenabar ere pozik zegoen emaitzarekin: "Balorazio positiboa da, zinegotzi bat gehiago lortu dugu".

**Aldundiko emaitzak**
Batzar Nagusietarako Aramaioko emaitzak hauek izan ziren: EH Bilduk, 345 boto; EAJk, 196; PSE-EEk, 14; Elkarrekin Posemosek, 47; eta, PPk, sei.

Aramaioko EH Bilduk oharra argitaratu du eskerrak emateko, jasotako babesagatik. Emaitzen irakurketak hausnarketarako bidea dakarrela ere gehitu dute.

## Emaitzak

| Alderdiak | Botoak | % | Zineg. |
|---|---|---|---|
| EH BILDU | 405 | %65,01 | 6 |
| EAJ | 179 | %28,73 | 3 |
| PSE-EE | 13 | %2,09 | 0 |
| PSE-EE | 1 | %0,16 | 0 |
| *Zuriak* | 25 | %3,82 | - |
| *Baliogabeak* | 32 | %4,89 | - |
| **GUZTIRA** | **655** | **%100** | **9** |

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA


*Ir a kurrin kurrin* saioaren momentu bat. IMANOL SORIANO

# Senegalgo herriari elkartasuna adieraziko diote eskolako jaian

Aramaixo Herri Eskolak ikasturte amaierako jaia egingo du; 10:30ean hasiko dute kalejira, plazan

**A.E.G.** ARAMAIO
Ikasturtea amaitzeko gutxi falta da, eta, amaiera ona emateko, eskolako jaia egingo dute bihar. Urtero egiten duten moduan, ekintza solidarioa izango da biharko jaialdia. Aurten, *Ir a kurrin kurrin* ekimenean parte hartu zuen Bergarako Ndank Ndank elkartea lagunduko dute. Hain zuzen, batutako dirua bideratuko dute Senegalen plastikoa egoki birziklatzeko sortutako proiektu batera; izan ere, plastikoarekin arazo handia dute Afrikako herrialdean.

Eguna hasiko dute plazatik eskolara egingo duten kalejirarekin. 10:30ean elkartuko dira, plazan, eta buruhandien laguntzarekin egingo dute kalejira. Ondoren, LHko 6. mailakoek pregoia irakurriko dute, eta, modu horretan, jaiari hasiera emango zaio. Eskola inguruan hainbat gune izango dituzte, eta gune bakoitzean askotariko jolasak egiteko aukera izango dute; adibidez, eskulanak, Afrikako eskulanak, pintxoak, *slackline*-a...

**Ekintza solidarioa**
Ndank Ndank elkarteak Senegalgo Dionewar eskualdean duen kulturgunea sinbolizatuko dute, eta, horretarako, sortuko duten eraikin bati plastikoak itsatsiko dizkiote.

Bazkaria ere egingo dute: 100 lagun inguru elkartuko dira, eta familiek eramango dute jana. Arratsalde partean jolasak izango dituzte.

**Gaur, eskola txikien topaketa**
Aramaixo Herri Eskolako ikasleak eta irakasleak Maeztura joango dira gaur, Arabako Eskola txikin topaketara –2 eta 3 urtekoak Aramaion geratuko dira–. Jolasak egingo dituzte beste ikasleekin batera.

## Martxan dituzte jaietako kartel eta lelo lehiaketak

San Martin jaietako kartel eta lelo lehiaketak martxan daude. Lanak aurkeztu behar dira udaletxean edo *itxasokultura@gorbeialdea.eus* helbidera idatzita, ekainaren 6rako. Kartel lehiaketan bi kategoria egongo dira: umeen saria izango da 100 euro eta nagusiena, 160. Lelo lehiaketan sari bakarra egongo da, 100 eurokoa.

## Ikasleei zuzendutako garraio laguntzak eskatzeko epea

Aldundiko Gazteriaren Foru Erakundeak garraiorako dirulaguntzak emango ditu euren bizilekutik beste udalerri batera mugitu behar duten ikasle gazteendako; zehazki, unibertsitateko, batxilergoko, erdi mailako edo goi mailako zikloetako ikasleendako. Eskaerak ekainaren 12tik 30era bitartean egin beharko dira –biak barne–.

# "Liburua testuinguruan kokatu behar da"

**AINHOA ALDAZABAL** LITERATURA TALDEKO DINAMIZATZAILEA

Skolastika Literatur Zerbitzuetako kidea eta Gorbeialdeko Kuadrillak sustatzen duen Laia eskolaren Irakurle Klub Feministako dinamizatzailea da Aldazabal

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Irakurle Klub Feministaren azken saioa egingo dute ekainaren 5ean, astelehena. Miren Agur Meabe idazle lekeitiarra izango da gonbidatua; hain zuzen, *Begiak zerumugan* lana aztertuko dute.

**2018-2019ko ikasturtean jarri zenuten martxan irakurketa taldea. Nolako ibilbidea izan du?**

Taldera datozenen arrazoiak antzerakoak izaten dira beti: irakurleak dira eta feministak dira. Jendearengan badago, nolabait, irakurtzen den hori partekatzeko gogoa. Hori da aldatu ez dena; aldatu dena da taldearen tamaina. Hasieran, oso talde txikia zen, eta, urtetik urtera, jende berria etorri eta taldea handitu eta egonkortu egin dela esan daiteke.

**Urte horietan guztietan ze erronka izan dituzue?**

Nire erronka bakarrik ez, guztien erronka izan da taldea aurrera ateratzea. Poz handia ematen du talde handia izateak, jende gutxirekin oso murritz gera daiteke eta. Emakumeen liburuak irakurtzen ditugu, feministak direnak edo begirada feminista dutenak. Hain zuzen ere, urtetik urtera taldea handitzen joateak erakusten du badagoela interesa gaiaren gainean, eta zentzua ematen dio taldeari.

**Zein da taldearen helburua?**

Batetik, irakurtzen gozatzea; eta esango nuke baita irakurtzen ikastea ere. Begirada zorroztu egin behar da: liburua kokatu egin behar da bere testuinguruan, modu kritikoan, beste liburu batzuekin alderatu; askotariko genero literarioak aztertzen ditugu; euskal literaturan sakontzea ere bada helburua, eta pentsamendu kritikoa sakontzea, hausnartzea... Taldeak ibiltaria izan behar zuen, Kuadrilla mailakoa, baina aramaioarrak bakarrik apuntatu ziren.

**Nolako liburuak irakurri dituzue aurtengo ikasturtean?**



Ainhoa Aldazabal. A.A.

## "TALDEAK ERAKUSTEN DU BADAGOELA INTERESA, ETA ZENTZUA EMATEN DIO TALDEARI"

Irakurri dugu Nobel saria irabazi duen Annie Ernaux idazle frantziarraren lana, abortuari buruzko autobiografia. Irakurri dugu Ana Malagonen *Lasai ez da ezer gertatzen. Pipi Kaltzaluze* irakurri dugu; denok ezagutzen dugu telebistako seriea, baina ez horrenbeste liburua. Bada, autorea kokatu egin dugu testuinguruan. Astelehenean Miren Agur Meabe izango dugu: poesia ilustrazioekin ekarriko digu... oso estimulatzailea da.

***Begiak zerumugan* lanak ze jorratzen du?**

Ez da gai konkretu bat, metafora bat da, bidaia baten metafora da. Hasieran, iparrorratza dago, eta, ondoren, irudien eta koloreen bitartez bidaia argitzen doa. Pertsonaia batek egiten duen bidaiaren metafora da; hainbat estadiotatik pasatzen dena. Ez da kontatzen zergatik hasi duen bidaia eta nora helduko den, fisikoki. Bidaiaren metafora da.

**Nolako ekarpena egin dio Miren Agur Meabek literaturari?**

Idatzi du poesia, nobela, kontaketa, autofikzioa, haur eta gazte literatura... Oso aukera zabala dauka, eta hori ez da erraza. Esku handia behar da horretarako. Horretaz gain, badauka oso begirada zorrotza, oso poetikoa, eta gai asko jorratzen ditu baina oso modu dotorean; dotoretasuna bada haren ezaugarri inportantea. Lehena izan zen euskaraz *klitori* hitza idazten.

**Solasaldira idazlea bera etorriko da. Nolako ekitaldia izango da astelehenekoa?**

Solasaldi moduko bat izango da. Taldekideek liburua irakurri dute, edo orain dabiltza irakurtzen. Ni egongo naiz galderak egiteko, eta liburuaren aurkezpen moduko bat izango da. Irakurketa elkarrekin egingo dugu, liburuaren sakontasuna ikusteko. Sinbolismo handia dauka, irudiak... ez dago ezer nahi gabe jarrita. Kapitulu bakoitzetik hainbat pasarte aukeratuko ditu idazleak, eta horiek irakurriko ditugu.





MIGUEL LOITI

## Mus eta briska txapeldunak

Maiatzaren 25ean briska txapelketa jokatu zuten erretiratuek: irabazleak izan ziren Antonio Elejalde eta Loreto Bengoa. Untzueta sagardotegian bi bazkari irabazi zituzten. Barikuan, aldiz, mus txapelketa jokatu zuten. Irabazleak izan ziren Bittor Kortabarria eta Antonio Elejalde. Haiek ere bi bazkari irabazi zituzten Untzueta sagardotegian.

## Sabin Abarrategi, Euskal Herriko Eskolarteko finalean

Lurraldez lurralde jokatutako eskolartekoetan sailkatutako hamar bertsolarik parte hartuko dute bihar, zapatua, Iurretan egingo den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketako finalean. Final nagusian Sabin Abarrategi aramaioarra egongo da; izan ere, maiatzaren 20an Aramaion jokatutako Arabako Eskolarteko finalean bigarren postua eskuratu zuen, Maddi Agirreren atzetik.

Saioa doan izango da eta dagoeneko gonbidapenak eskuragai daude *bertsosarrerak.eus* atarian. 11:30ean hasiko da Euskal Herriko Eskolartekoa, Iurretako frontoian, eta saioa amaitutakoan mokadua eskainiko dute eta hara joandakoen artean zozketa egingo dute.

Bestalde, gaurtik domekara bitartean Arabako bertsozale gazteen topaketa egingo dute Abadiñon, Murueta baserrian.

## OHARRAK

### Aldakan Beltz taldearen kontzertua

Vital Fundazioak antolatuta, Aldakan Beltz taldeak musika kontzertua egingo du gaur, 19:30ean, Bizente Goikoetxea plazan.

### Itur Zuri taldearekin Getariara

Emakume taldeak irteera egingo du ekainaren 17an. Balenciaga museoa bisitatu eta Balearri jatetxean bazkalduko dute. Izena eman behar da 685 72 12 23 zenbakian edo *iturzuri@gmail.com* helbidean ekainaren 5erako.

### Santikurtz eguna ospatuko dute domekan

Meza esango dute ermitan, 12:00etan; ondoren, salda eta luntxa beheko txabolan. Arexola eta Arriolako auzotarrek antolatuta.



Gari Iturbe alkategaia eta EH Bilduko zerrendako kideak domekan ospatzen, emaitzak jakin ostean. UXUE IGARZA

## Botoen emaitzak mahairik mahai

| | EAJ | EH BILDU | PSE-EE | ELKARR. | PP |
|---|---|---|---|---|---|
| Iparraldea | 272 | 270 | 47 | 28 | 4 |
| Erdigunea | 448 | 466 | 37 | 49 | 5 |
| Hegoaldea | 425 | 429 | 67 | 37 | 7 |
| Auzoak | 274 | 558 | 30 | 36 | 5 |
| GUZTIRA | 1.419 %40,15 | 1.723 %48,75 | 181 %5,12 | 150 %4,24 | 21 % 0,59 |
| ZINEGOTZIAK | 6 | 7 | 0 | 0 | 0 |

ITURRIA: ARETXABALETAKO UDALA

# Alkatetza eskuratuta, "oso pozik" EH Bildu

Ezker abertzaleak jaso zituen boto gehien domekako hauteskundeetan, 1.723, hain zuzen ere, eta bigarrena EAJ izan zen, 1.419 botorekin. Hala, Gari Iturbek izango du alkate ardura eta udalbatza osatuko dute EH Bilduko zazpi kidek eta EAJko seik

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Orain dela lau urte baino aretxabaletar gutxiago joan zen botoa ematera domekako udal eta foru hauteskundeetan. 3.571 herritarrek bozkatu zuen kiroldegian jarritako hauteslekuan eta abstentzioa %35,55ekoa izan zen. Jasotako boto zuriak 40 izan ziren eta baliogabeak, 37.

EH Bilduk eskuratu zituen boto gehien: 1.723, hain zuzen ere (%48,75). Orain dela lau urte baino 222 gehiago jaso zituen, eta, horrela, udalbatzan zazpigarren zinegotzia izatea lortu du.

EAJk, ostera, 1.419 boto jaso zituen (%40,15). 2019an baino 407 boto gutxiago izan ziren, eta, ondorioz, zinegotzi bat galdu du.

Gainerako hiru alderdiek –PSE-EE, Elkarrekin koalizioa eta PP– ere galdu egin zituzten botoak eta agintaldi honetan, aurrekoan legez, ez dute ordezkaritzarik izango.

**Balorazioak**

Alkate ardura hartuko duen Gari Iturbek bazutela esperantza adierazi du: "Bibrazio onak genituen eta emaitzek berretsi egin dute; hortaz, oso pozik gaude". Eskerrak eman gura izan dizkie EH Bilduko zinegotzi izandakoei, taldea osatzen duten gainerakoei eta haiengan konfiantza izan duten herritarrei. Martxan hasteko, "bidelagun" izango dituzten udal langileekin harremanetan jarriko direla adierazi du: "Presazko gai batzuk badaude eta lehenbailehen heldu gura dizkiegu". Herriarendako lan egin gura dutela azaldu du, "herritarrekin garatuta proiektuak" izanik. Eta gaineratu du: "Arreta gauza txikietan jarriko dugu, eta, zirri-zirri, gure ilusio eta gogoa lanera bideratzeko gertu ditugu".

EAJko alkategai izan den Mikel Uribetxebarriak euren proiektuan konfiantza jarritako guztiak eskertu ditu: "Udal hauteskundeen helburua alkatetzari eustea zen, eta ezinezkoa izan da; beraz, balorazioa ez da positiboa. Abstentzioaren igoera, 2019arekin alderatuta, batez ere, EAJren kalterako izan da; datuak sakon aztertu behar badira ere, ez dirudi faktore erabakigarria izan denik. EH Bilduren igoera eta EAJren jaitsiera Euskadin gertatu denaren isla dira". EH Bildu zoriondu du, eta Aretxabaletak "aurrera egiten" jarrai dezan jardungo dutela lanean gaineratu.

**Batzar Nagusietarako emaitzak**

EH Bilduk zein EAJk boto gutxiago jaso zituzten Batzar Nagusietarako, lehenengoak 51 (1.672, guztira) eta bigarrenak hogei (1.399, guztira). Gainerako alderdiek boto gutxi batzuk irabazi zituzten: 39 PSE-EEk (220), hamazazpi Elkarrekinek (167) eta bat PPk (22). Stop Hautagaitzak, ostera, hamar boto jaso zituen.

## Antzezlanek eta musikak kaleak beteko dituzte ekainean

7x7 Kultura Kalean ekimenari eguaztenean emango diote hasiera, txotxongilo emanaldiarekin

**M.A.** ARETXABALETA

7x7 Kultura Kalean ekimena bueltan dator, Udaleko Kultura Sailak antolatuta. Ekainaren 7an hasita, askotariko kultura ekitaldiak eskainiko dituzte herriko hainbat gunetan –guztiak dira 19:00etan–. Familia giroan gozatzeko ikuskizunak izango dira gehienak; besteak beste, antzezlanak, zirkuko jolasak eta musika.

**Antzezlan asko eta banda**

Ekimenari hasiera emango dio Bihar txotxongilo taldeak Santakurtz plazan umeendako aurkeztuko duen *Harritzeko ipuinak* ikuskizunak; eguaztenean izango da hori, ekainaren 7an.

Ekainaren 9an Herriko Plazan izango da emanaldia. Trokolo Teatroak *Txus& Txu* lana eroango du; familian gozatzeko muntaia dinamikoa eta gertukoa.

Ekainaren 14an musika eta umorea uztartuta dantzan eta jolasean jarduteko aukera izango dute umeek, *DJ Porru 3.0* ikuskizunarekin.

Antolatu den egitarauan etxeko taldeak ere izango du lekua, eta hilaren 16an, egubakoitzean, Leizarra musika eskolako bandak kontzertua eskainiko die aretxabaletarrei Felix Iñurrategi lorategian.

Hotzmuga Teatroak ez du hutsik egiten Aretxabaletako kultura programan, eta aurten ere han izango da. Hilaren 18an *Agurea, urpekaria eta itsasoa* antzezlana eroango du Herriko Plazan jarritako oholtzara. Kontsumismoa, sortzen den hondakin kopuru handia eta itsasora egiten diren isurketak ikusaraztea du helburu lanak, umore handiz kontatuta. Ekainaren 21ean, ostera, zirkuko kontuekin gozatuko dute neska-mutikoek zein helduek, *Begiekin ikusten gara!* lanarekin. Malabarrak, magia eta pailazoen emanaldia eskainiko ditu Zirkoloretsua taldeak Iralabarri plazan.

Egitarauari bukaera emango dio Patata Tropikala Antzerki Laborategiak hilaren 27an. *Azken eguzkilorea* lana eroango du Mitarte kalera; maskarekin eta umorez eta irudimenez jositako abentura dibertigarria.

**Judit Neddermann abeslaria**

Bestalde, ekainaren 11n, Judit Neddermann Kataluniako kantautoreak kontzertua eskainiko du Herriko Plazan. Folka eta musika modernoa oinarri dituen kanten sortzailea da eta abeslari ezagunekin lan egin izan du; besteak beste, Alejandro Sanz, Jorge Drexler, Joan Manuel Serrat, Rozalen eta Macacorekin. Kaleratu berri duen bosgarren diskoa aurkeztuko du: brasildar musikari eta iberiar folkloreari esker oneko albuma, hain zuzen ere.

## OHARRAK

### Kintoen bazkaria

1943an jaiotako kintoak bazkaltzeko elkartuko dira ekainaren 3an. Izena aurretik eman behar da, Taberna Berri jatetxean, 10 euro ordainduta.

### Bazkari multikulturala

Gu Haziak Gara elkarteak kultura arteko bazkaria antolatu du eta Iturrigorri pilotalekuan egingo dute. Norberak etxean kozinatutako espezialitatea eramatera gonbidatu dituzte herritarrak, gainerakoekin partekatzeko.

### Dantza emanaldia

Aretoko dantzak eskainiko dituzte hilaren 6an Basotxo taldekoek; Mitarte kalean izango da, 18:00etan.

# Montferritik datozenen zain topaketari ekiteko

Tarragonako herritik 47 lagun iritsiko dira gaur iluntzean, asteburua Aretxabaletan pasatzeko; Urbaltz elkartekoek gonbidatu dituzte eta laugarrenez elkartuko dira; ekitaldi sortaz osatutako egitaraua antolatu dute eta jai giroak ez du hutsik egingo

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Gaur iluntzean iritsiko dira Aretxabaletara Kataluniatik datozen 47 lagun. Tarragonako Montferri herriko bizilagunak dira, helduak, gazteak eta umeak, eta Urbaltz elkarteko kideek gonbidatuta datoz. Hainbat astetako antolaketa lanen ondoren, "gogotsu" daude haiei ongietorria egin eta asteburuari ekiteko.



Urbaltzeko antolatzaile taldea, martitzenean, batzartuta. MIRARI ALTUBE

### 2019an hasitako bidea

Orain dela lau urte, 2019ko otsailean, ekin zioten elkartrukeari, hainbat bazkidek bazutelako kataluniar batzuekin harremana. Orduan aretxabaletarrak joan ziren Tarragonara, autobusa bete lagun, eta harrera benetan beroa egin zieten. Lehen topaketa hark arrakasta izan zuenez, urte bereko ekainean bisita itzuli zieten Montferrikoek. Orduan hasitako bideak jarraipena behar zuela sentitu zuten, baina, pandemia tarteko, iaz arte ezin izan zioten berrekin; otsailean izan ziren han Urbaltzekoak. Orduko bisita itzultzera datoz orain, laugarren topaketa izango den honetan.

### Talo-txosna eta bazkaria

Aretxabaletako jardueren, ekoizpenen eta kultura sormenaren berri emango diete; hori guztia, jai giroak zipriztinduta. Horretarako, egitarau bete-betea zehaztu dute.

Gaur, egubakoitza, talo-txosna jarriko dute Mitarte plazan, eta herrian ekoiztutako jakiak dastatu ahal izango dira: Zaloña aurrekoa baserriko hanburgesak eta Mendibitzu, Etxezuri eta Gazteluko Haitza gaztak.

Zapatu eguerdian (13:30), Trigger txelo-joleak eta Larraitz Iparragirre margolariak ekitaldi inprobisatua egingo dute. Bitartean, Montferriko *Clandestines* artisau-garagardoa dastatu ahal izango da. Ondoren, kataluniarrek eta aretxabaletarrek elkarrekin bazkalduko dute Mitarte plazan; 150 lagun batuko dira. Gauerako bola-joko txapelketa antolatu dute bolatokian.

Domekako ekitaldiak topaketako kideendako izango dira. Batzuek gazta egingo dute Mendibitzu baserrian, beste batzuek Arientza-Etxebarri baserriko behi ustiategia ezagutu, eta hainbat Otalora jauregian elkartuko dira, *Erraiak* filma ikusteko eta kooperatibagintzaren gaineko azalpenak jasotzeko. Bazkalostean etxerako bidea hartuko dute.

## "Harreman estuak sortu dira gure artean"

**UNAI ITURRIOTZ** URBALTZEKO BAZKIDEA ETA ANTOLATZAILEA



M.A.

Topaketa antolatzen dihardute hainbat astez, eta talde horren buru da Iturriotz.

**Nola sortu zen ekimena?**

2018an erabaki genuen Herrialde Katalanei elkartasuna adieraztea, eta idatzi baten bidez egin beharrean elkartruke bat egitea pentsatu genuen.

**Zelakoa da Montferri?**

Herri oso txikia da, Leintz Gatzagaren antzekoa. 200 biztanle inguru ditu, baina aktiboak eta biziak dira, eta oso jatorrak. Etxean moduan sentiarazi gintuzten hara joan ginenean, eta harreman estuak sortu dira.

**Zelan antolatuko zarete hona datozenean?**

Guztira, 47 lagun datoz: helduak, umeak eta zazpi bat gazte ere bai; pentsa, herriaren laurdena dira. Geure etxeetan banatuko ditugu, gu han izan garenetan ere etxeetan hartu gaituzte eta.

# Jolasak, bazkaria, kontzertuak eta gehiago Aretxarte Jaian

Gaur ekingo diete ekitaldiei, umeendako puzgarriekin, eta bihar paellaren bueltan 360 lagun elkartuko dira

**M.A.** ARETXABALETA

Herriko kaleak girotzeko eta merkataritzari bultzada emateko Aretxarte Jaia antolatu du merkatarien elkarteak, lehenengoz, eta ekintza mordoa iragarri dituzte –eguraldiaren arabera aldaketaren bat egon daiteke–.

Gaur, egubakoitza, puzgarriak izango dira umeentzat Herriko Plazan, Ilargi plazan, Mitarten eta Durana kalean. Eta helduek triki-poteoa izango dute.

Zapatuari batukada doinuekin ekingo diote eta UDAk txosna jarriko du plazan, eguerdian. Bazkaltzeko paella prestatuko dute eta mahaiaren bueltan 360 bat lagun elkartuko dira; hanburgesa jateko gunea ere egongo da. Bazkalostea girotzeko, haur jolasak eta karaokea izango dira, eta, bien bitartean, mus txapelketa jokatuko dute Express taberna inguruan. 19:00etan, herriko bi taldek kontzertuak eskainiko dituzte: lehenengo, musikari eskarmentudunez osatutako Neallta Fola igoko da oholtzara; eta, ondoren, musika mundura iritsi berri den Eten taldea.



M.A.

## Dantzariz bete dira kaleak

Askotariko dantza estiloak ikusi dituzte herritarrek, Jaikik antolatutako Dantza Asteari esker –argazkian, Basotxoko taldea–. Gaur, egubakoitza, dantza garaikidea izango da protagonista: Other Side Company konpainiak *Cuatro puntos* ikuskizuna eskainiko du (19:00) eta Candem Dance Studioko ikasleek, flamenkoa, klakea eta sabel dantza (19:30).

## Katarsi Feminista erakusketa irekiko dute bihar Arkupen

Presio estetikoaren eta lodifobiaren aurkako erakusketa da Katarsi Feminista. Ekain osoan egongo da ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan. Irekiera ekitaldia bihar, zapatua, 12:00etan egingo dute eta herritarrak ere gonbidatu dituzte.

Arkupeko aretoan egongo diren argazkiek erakutsiko dute ezarritako edertasun-aginduetara egokitzen ez diren gorputzak dituzten pertsonek diskriminazioak eta presio estetikoak jasaten dituztela bizitzako esparru guztietan. Horregatik, "presio estetikoa indarkeria mota bat" dela utzi gura da agerian, "gorputz feminizatuak diziplinatu eta kontrolatu nahi dituena". Autoestimua eta gorputz-onarpen kolektiboa sustatu gura dituzte erakusketarekin, eta kritika estrukturala egin "gorputz guztiekiko errespetuaren erantzukizuna indibidualizatzeko nahiari".

# Inor gutxik esperotako 'sorpasso'-a Udalean

EH Bilduk nabarmen aurreratu zuen EAJ udal hauteskundeetan Eskoriatzan, Gobernua osatzeko gehiengo lortuta. Emaitzak jakin bezain pronto, bi alderdietako alkategaiak bat etorri ziren: botoetan hainbesteko aldea egoteaz harritu egin ziren

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Zortzi urteren ostean, eskoriatzarren gehiengoa Udal Gobernua aldatzearen alde agertu da hauteskundeetan. EAJk aginte makila izan du 2015a ezkero Udalean, azken agintaldian Eskoriatzako Elizateen Elkargoaren babesarekin, baina jakina zen ekuazio horrek ez zuela jarraipenik izango, EEEk ez aurkeztea erabaki zuelako.

Hortaz, pentsatzekoa zen bi alderdi nagusien arteko lehia estutu egingo zela, eta emaitzek argi eta garbi eman diote garaipena EH Bilduri: lau zinegotzi izatetik zazpi izatera pasa da; eta EAJ, seitik laura. Hori horrela, alkatetza eta Udal Gobernua bere kabuz osatzeko berme guztiak dauzka EH Bilduk; ekainaren 17an, udalbatzaren eraketan, Edorta Zubizarreta izendatuko dute alkate datozen lau urteotarako, eta alboan izango ditu zinegotzi karguetan Alaitz Orueta, Edorta Barandiaran, Xabier Uriarte, Irati Iglesias, Mikel Luengo eta Dorleta Sologaistoa. Era berean, EAJk oposizioa egingo du Joserra Zubizarreta, Maite Uribe, Antonio Regaño eta Maria Purificacion Regidor zinegotzien bitartez.



EH Bilduko zerrendakideak, pozarren, hauteskundeak irabazi berritan. GOIENA

## Emaitzak

| Alderdiak | Botoak | % | Zineg. |
|---|---|---|---|
| EH BILDU | 1.241 | %59,9 | 7 |
| EAJ | 626 | %30,2 | 4 |
| ELKARREKIN | 88 | %4,2 | 0 |
| PSE-EE | 84 | %4,1 | 0 |
| *Zuriak* | 32 | %1,5 | |
| *Baliogabeak* | 21 | %1 | |
| **GUZTIRA** | **2.092** | **%100** | **11** |

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

### 1.200 boto baino gehiago

Goienaren hemerotekan begiratuta, lehen aldia izan da, 1979ko udal hauteskundeetatik, Eskoriatzan alderdi batek 1.200 boto baino gehiago jasotzen dituena. Errekorra ezarri du, beraz, EH Bilduk, eta, parte hartzea ia zazpi puntu jaitsi dela kontuan hartuta, are deigarriagoa da kopurua –2019an %28,64koa izan zen eta 2023an %35,25ekoa–.

### Harridura nagusi

Emaitza jakin eta berehala iritsi ziren alkategaien erreakzioak. Edorta Zubizarretak sorpresa adierazi zuen: "Egia esan, lehia parekatuagoa espero genuen, baina, gertatu dena ikusita, indartsu irteten gara, datozen lau urteetako plangintza prestatzen hasteko gogoz".

Joserra Zubizarretak "aitzakiarik gabeko porrota" izan zela onartu zuen: "Zorionak EH Bilduri, guk galdu ditugun botoak haiek irabazi baitituzte; herriak aldaketa eskatu du eta guk zintzo beteko dugu, bozkatu gaituztenak ahalik eta ondoen ordezkatuta".

Aurrerantzean "hausnartzeko egunak" izango zituztela gehitu zuen zortzi urtez alkate izan denak, 500 boto-emaile baino gehiagoko galera izan baitute jeltzaleek.

### Beste alderdiak, esku hutsik

Bestalde, ez PSEk ezta Elkarrekin Eskoriatzak ez zuten udalbatzan ordezkaririk izaterik lortu. Azken horretako alkategaiak, Juan Luis Merinok, "botoaren polarizazioan" zentratu zuen emaitzen irakurketa.

### Foru hauteskundeak

Gipuzkoako Batzar Nagusiei begira ere Eskoriatzako boto-emaile gehienek EH Bildurengan erakutsi dute konfiantza, baina EAJrekiko aldea udal hauteskundeetan baino txikiagoa izan da: botoen %49,80k EH Bilduren aldekoak izan dira eta %35,81, EAJren aldekoak. PSEri %6,7k eman diote babesa, Elkarrekin Gipuzkoari %4,75ek, Stop plataformari %0,78k eta PPri %0,64k.

**LEHEN ALDIA IZAN DA ALDERDI BATEK 1.200 BOTO BAINO GEHIAGO LORTZEN DITUENA ESKORIATZAN**

# 'Chicas... ¡al salón!' antzezlan umoretsua domekan Zaldibarren

Burgeluko (Araba) La Farandula antzerki taldeak zita-etxe bateko pasarte pikanteak kontatuko ditu, 19:00etan

**H.L.** ESKORIATZA

Zaldibar aretoa emakumeekin harreman sexualak edukitzeko egongela bihurtuko da ekainaren 5ean, domeka, *Chicas... ¡al salón!* obraren baitan. Protagonistak Burgeluko La Farandula taldeko hamar kideak izango dira, zortzi emakume eta bi gizonezko. Arantxa Lopez de Letona da zuzendaria, Eskoriatzako Ausartak taldea zuzentzen duen bera. "Duela hiru urte bi talden arteko trukea egiten hasi ginen, ikasturte amaierako lanak bi herrietan aurkeztu ahal izateko", dio. Aurten, Ausartak ez da oholtzara irtengo, baina bai La Farandula; gaur eta bihar Burgelun aurkeztuko dute obra eta etzi Eskoriatzan. 5 euro da sarrera.

Zuzendariak azaldu duenez, ikasturte hasieran ideiak bota, testua garatu eta entseatu ondoren, prest dute uzta propioko lana: "Gizonezko bezeroak zita-etxera sartzen dira, emakumeekin enkontruak izatera; sartu-irten horietan egoera dibertigarriak gertatuko dira, askotariko pertsonaiek gorpuztutakoak, eta publikoak barre-algaraka amaituko du".



Obrako protagonista batzuk. A.L.L.

# Energiaren arazoari irtenbide praktikoak emateko hitzaldia

Autokontsumo esperientziak eta energia komunitateak hizpide astelehenean, hilak 5, 18:30ean, Ibarraundin

**H.L.** ARRASATE

Trantsizio energetikoaren erronka "potoloa" dela iritzita, Jauzi Ekosozialak eta Goienerrek hitzaldi-merienda antolatu dute, joan den otsailean elektrizitate eta gas fakturen prezioak interpretatzeko egindakoari jarraipena emanda.

Nestor Aranak eta Oier Etxebarriak gidatuta, bi gairi buruz egingo dute berba: "Batetik, autokontsumo taldeei buruzko informazioa helaraziko dugu, herrian gero eta interes handiagoa pizten duen gaia baita; izan ere, Intxaurtxuetako atarte batean eguzki plakak instalatuko dira modu komunitarioan, eta jendeak prozeduraren nondik norakoak jakin nahi ditu. Bestetik, komunitate energetikoak aztertuko ditugu, inguruko esperientzietan oinarrituta; halako taldeetan aerotermia eta isolamendua moduko kontzeptuak lantzen dituzte, etxebizitza eta eraikinetan konponbide energetiko osoagoak planteatuta", azaldu du Aranak.

Ordu eta erdi inguruko saioaren ostean, merienda eskainiko dute antolatzaileek.



Eguzki-plaka erakusten. N.A.



Iazko Ferixien, bi urteko geldialdiaren ostean, gazta saltzaileak dotore postuan. GOIENA

# Badator Ferixie, atzera begirako keinuarekin

Bihar, zapatua, 25. aldiz ospatuko dute Eskoriatzako Ferixie, Ikastolak herriarekin bat egiteko festa. 86 bat artisauren produktuak egongo dira plaza inguruan. Ekitaldien artean, azokaren sortzaileei omenaldia egingo diete Jose Arana gunean eguerdian

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Egun handia ospatuko dute bihar Eskoriatzan: inguruko herrietako jendea ere erakarri izan duen Ferixie. Sorreratik hona bilakaera izan duen ekitaldia dela aipatu du Arizmendi Ikastolako Jose Arana guneko Esti Aguado irakasleak: "Hasieran, baserritarren produktuen erakusleihoa zen, eta, gaur egun, zilarrarekin zein narruarekin lan egiten duten artisauak ere etortzen dira, baina baita ipuin kontalariak eta serigrafistak ere", azaldu du.

Herriaren ondarea sinbolizatzen duten objektu bitxiak ere aurkituko ditu bisitariak erdigunean zehar. Esaterako, Sergio Some bitxigile madrildarrak eskuz egin dituen Axtrokien erreplikak eroango ditu, eta Edurne Unamuno artisauak txorimaloa eta Ezkurtxo bateratzen dituen arigumia aurkeztuko du.

09:00etan emango diote hasiera egunari, etxafuego jaurtiketarekin eta txistularien kalejirarekin. 10:00etarako irekiko dituzte azokako postuak, eta, jarraian, ekintzak bata bestearen atzetik jarriko dira martxan. Jose Arana gunean txorimalo lehiaketan hartuko dute parte neska-mutilek, eta haur eta gazteentzako puzgarrietan ere dibertitu ahalko dira. Santa Marinan, 11:30ean, gazta dastaketa eta txapelketa egingo dute, eta elizaren azpian taloen postuak eta tabernak emango dute zerbitzu.

Trikitilarien kalejira ez da faltako, ezta euskal dantzak ere, herriko dantzariak 12:30ean Gorosarri plaza girotzera deituta baitaude. Argitxo ere kalean gora eta behera ibiliko da, bere saltsan, urtero moduan.

**BAZKALAURRETIK, EKITALDI HUNKIGARRI UGARI EGINGO DITUZTE JOSE ARANA GUNEAN**

### Lan egin dutenei keinua

Bazkalaurrea ekitaldi hunkigarri ugari egiteko baliatuko dute. 13:00etan, batukadan irtengo dira ikasleak, eta, 13:30etik aurrera, Jose Arana gunean, azokako postuen eta txorimalo lehiaketaren sari banaketarekin hasi, errifen zozketarekin jarraitu eta omenaldi txiki bat egingo diete Ferixie sortu zutenei, txalapartarien hotsek lagunduta. "Hasierako urteetako lantaldearen ekarpena txalotuko dugu, garrantzitsua izan baita denen artean egin duten lana", aipatu du Aguadok. Horrekin batera, Jose Aranako haurrek Olatz Zugastiren *Bizirik gaudelako* kanta abestuko dute.

Bazkaltzeko, Herriko Plazan *Zuk ekarri zuk jan* egingo dute. 18:30ean txapel jaurtiketa txapelketa egingo dute, eta, "jaia luzatze aldera", larrain dantzak daude programatuta 19:30erako; eta 21:00etarako, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañagaren erromeria.



Udal Gobernu berriko bost kideak –Elkorobarrutia, eskumatik bigarrena–. L.G.H.E.

## Udal Gobernu berrian Dorleta Elkorobarrutia izango da alkatea

Leintz Gatzagako Hautesleen Elkarteak 72 boto eskuratu ditu; abstentzioa %30,3koa izan da

**H.L.** LEINTZ GATZAGA

Udal hauteskundeetara zerrenda bakarra aurkeztu da, Hautesleen Elkartea, eta, 2019an baino 50 boto gutxiago eskuratu arren, hark osatuko du Udal Gobernua. 72 gatzagarrek erakutsi diete konfiantza, hamarrek bozkatu dute zuri eta bosten botoak baliogabeak izan dira.

Hala, Dorleta Elkorobarrutia izango da Leintz Gatzagako alkatea hurrengo agintaldian, eta alboan izango ditu Idoia Armendariz, Aiora Elkorobarrutia, Eneka Zankada eta Juan Bengoa, zinegotzi lanetan.

Emaitzak jakin eta berehala, Elkorobarrutiak "bertigo puntu batekin" zegoela adierazi zuen, nahiz eta taldean egindako lanketarekin lasai egon: "Hilabete batzuk daramatzagu bostok biltzen, eta bagabiltza ibilbide bat egiten; herri txikietan gauza asko egoten dira egiteko, eta guk gauza handiak egiteko ilusioa daukagu".

Batzar Nagusietarako, ostera, EH Bilduk jaso ditu boto gehien (57), EAJren aurretik (35). Elkarrekin Podemosek eta PSEk bina boto jaso dituzte, eta Stopek boto bakarra.



MIKEL URKIA

## Juanito Bengoa garaile

52. Gipuzkoako hiru txirlo bola-joko txapelketako hamargarren jardunaldia jokatu zuten joan den zapatuan Lasturren, eta UDAko Juanito Bengoa gatzagarra izan zen irabazlea, zortzi txirlo botata. Hura izan zen 62 partaideen artean txirlo gehien bota zituena. Bihar, zapatua, torneoko azken jardunaldia egingo dute Elgoibarko San Migel auzoan, 17:00etan.

PENTEKOSTEAK 2023



Jaietako ekitaldi kutunetako bat: iazko jaietatik jaiotako bergararren familia-argazkia. ARGAZKIAK: A. AGIRIANO, I. SORIANO ETA XAXAU



Goraino bete zen plaza suziri jaurtiketarako eta Bitorianatxoren jaitsierarako.

# Bereziki izan dira jendetsuak

Bitorianatxo jatsi eta igo bitartean igaro diren bost egunetan jende asko ibili dela adierazi dute Udalak eta Jai Batzordeak; eguraldiak egun guztietan lagundu du eta aurreikusitako ekintza guztiak egin dira. Ez da eraso matxisten aurkako protokolorik aktibatu behar izan



Gure Ametsako Juan Mari Bengoak eta Patxi Uribesalgok egin zuten bakailaorik onena.

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Pentekosteen bueltan aritzen diren askotariko eragileak bat datoz esaterakoan bereziki jendetsuak izan direla aurtengo Pentekosteak. Egubakoitz gaua, zapatu goizaldea –Xaxauk antolatzen duen *gaupaseroen* argazkia urtez urte jendetsuagoa da eta–, zapatu gaua eta asteleheneko egun osoa izan ziren jendetsuenak, baina gainerako egunetan ere jende asko ibili da kalean. Eguraldiak egun guztietan lagundu du eta aurreikusitako ekitaldi guztiak egin dira.

**Artola: "Gogotsu gozatu dute"**

Pentekosteen balorazio "oso ona" egin du jarduneko alkate Gorka Artolak: "Aisiarako eta gozamenerako tartea eskaintzearekin batera, kulturaren aldeko apustua egin dugu. Aurretik esan izan dut Bergara herri bizia izan dadin nahi dugula, parte-hartzailea eta aberatsa. Eta kulturak herri bat aberats egiten du. Pentekosteak ere horretarako bide izan dira, eta jendea gogotsu ikusi dugu gozatzen. Eta hori oso polita izan da".

Bestalde, zaintza lanetan aritzen diren emakumeak omendu ditu Jai Batzordeak aurten. "Oso ekimen polita izan zen jaien hasierakoa. Zaintzaren gaia jaien erdigunera ekarri nahi izan genuen, eta zaintza planean jasota dagoen helburuetako bat betetzen hasi: ikusgaitasuna eta aitortza". Giro ona nabaritu da herrian, Artolaren iritziz. "Gogotsu zeuden bergararrak. Gozatu dute, eta jarrera ona izan dute, oro har, baita kanpotik etorritakoek ere". Pertsona askoren lanari esker egin ahal izan dira jaiak, gazteek lan handia egin dute, eta lanean jardun duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie jarduneko Udal Gobernuak.

**JAIEN HASIERAN ZAINTZAREN GAIA LEHEN PLANORA EKARRI IZANAREKIN POZIK DAGO UDALA**

Jaietako ekitaldi politenetako bat izan ohi da iazko jaietatik aurtengoetara jaiotako bergararrei zapia jarri eta ondoren familia-argazkia ateratzearena. Aurten, aldaketa txiki bat egin dute: umeak alfabetikoki deitu zituzten alkatearengana edo beste udal ordezkari batengana joateko, eta, halaxe, modu ordenatuagoan egin zen ekitaldia.

Pentekosteetako beste klasiko bat elkarte gastronomikoen arteko bakailao lehiaketa izan ohi da. Aurten, zazpi elkarte animatu dira bakailaoa pil-pil erara prestatzera. Alazne Etxabarrik, Julen Muruamendiarazek eta Unai Agirrek osatutako epaimahaiak erabaki zuen Gure Ametsa elkartekoena izan zela bakailao onena. Bigarren saria Pertxa elkartekoek eraman zuten eta hirugarrena, azkenik, Aizepe elkartekoek.

**Protokolorik ez da aktibatu**

Jai-espazioak "inklusiboak eta indarkeriarik gabekoak" izateko neurri bereziak hartu dituzte Udalak eta Martxanterak talde feministak aurtengo Pentekosteetarako. Besteak beste, Udalak arreta-gunea egokitu zuen Irizar jauregian 22:00etatik 06:00etara eta Martxanterek indarkeria matxistaren aurkako protokoloaren berri emateko formakuntza saioak egin zituzten txosnagunean. Martxanteren, arabera, "zorionez" ez da indarkeria matxistaren aurkako protokolorik aktibatu behar izan. Bestalde, guateke morearekin "oso pozik" dago talde feminista: "Oso-oso joan zen, ederto pasatu genuen. Giro oso ona sortu genuen, guateke indartsua izan zen".

**TALDE FEMINISTEK EZ DUTE ERASO MATXISTEN AURKAKO PROTOKOLORIK AKTIBATU BEHAR IZAN**

Era berean, Mugimendu Sozialistako Itaia erakunde feministak ere esan du "normaltasunez" igaro direla jaiak: "Jaiak normaltasunez joan dira, eta ez dugu protokoloa aktibatu behar izan. Positiboki baloratzen dugu jaietan erasorik ez gertatu izana. Hala ere, garrantzitsua iruditzen


Paulo Azpiazu bergararra, harria jasotzen.


Ume bi barrakez gozatzen.


Zapatuko protagonistak izan ziren erraldoiak, Bergarakoak eta beste zenbait txokotatik etorritakoak.


Txosnak itxi ostean, zapatu goizean gaupasan zirenak ibili ziren kalez kale txarangarekin batera; argazkia Irizar kalean atera zuten.


Asteleheneko kuadrillen olinpiadetan lehia, algara eta kolpeak izan ziren nagusi.

zaigu horrelako mekanismoak martxan jartzen jarraitzea, espazio seguruak sortzea eta erasoen aurrean jarrera irmoa adieraztea".

**Almorza, errekortadore onena**

Zezen-plazak Pentekosteetako ezinbesteko gune izaten jarraitzen du; esan daiteke Bergara dela bailarako herririk zezen-zaleena. Zapatuan errekortadoreen txapelketa jokatu zuten, eta Euskal Herriko, Valentziako eta Gaztela eta Leongo launa errekortadore aritu ziren nor baino nor gehiago; eta Anartz Almorza bergararrak jantzi zuen txapela goraino bete zen zezen-plazan.

Zezen-plaza izan zen, urtero moduan, kuadrillen arteko olinpiaden lehiarako gunea. Sei kuadrilla aritu ziren nor baino nor gehiago, eta igarri zen gazteen artean badela ohorea lehiaketa hori irabaztea, lehiaz harago tranpak ere izan ziren eta; hori bai, betiere, festa giroan eta irribarrea ahoan. Epaimahaiak Musta taldea izendatu zuen irabazle; herriko komertzioetan trukatzeko 300 euroko bonua irabazi zuten.

**Xaxauk 15 urte, eta segi aurrera**

Xaxau Jai Herrikoien Konpartsak 15 urte bete ditu aurten. Zaintza ordezkatzen zuten emakumeez gain, jaien hasierako protagonistetako bat izan zen Xaxau, Musika Bandak konpartsari eskainitako martxa zela eta.

**TXOSNAGUNEAN ETA ZEZEN-PLAZAN MUGIMENDU HANDIA EGON DA IA EGUN GUZTIETAN**

Balorazioari dagokionez, xaxautarrak oso pozik daude jaiekin: "Oso-oso ondo joan dira jaiak. Jende pila bat ibili da, oro har, Bergaran eta, bereziki, Bideberriko txosnagunean. Iaz Oxirondo azoka kanpoan jarri genuen txosnagunea eta orduan jende asko ibili zen, baina ez zen azokan izan zelako, aurten ere Bideberrin jendetza elkartu da eta. Askotan hornitu behar izan ditugu txosnak, bereziki edariei eta izotzei dagokienez. Gau baten izotz barik atera behar izan genituen trago batzuk... Bideberrira itzultzearekin oso pozik gaude". Azpimarratzeko ekitaldien artean, film labur lehiaketa nabarmendu du Gonzalezek egitarau osotik: "Urtez urte gero eta jende gehiago etortzen da txosnagunera film laburren lehiaketaz gozatzera; hori bai, aurten aurreko urteetan baino lan gutxiago aurkeztu dira". Amaitzeko, txosnagunea muntatzen eta desmuntatzen ibili direnentzako, txandak egin dituztenentzako eta Xaxauri modu batera edo bestera lagundu diotenentzako esker on hitzak izan dituzte: "Denok jarri behar dugu gure aletxoa Bideberri ikusi dugun moduan ikusi ahal izateko".

**Mugimendu Sozialista, pozik**

Mugimendu Sozialista arduratu da San Martin plazako txosnaz: "Balorazio oso positiboa egiten dugu. Lanak fruituak eman ditu eta plazan giro txukuna izan dugu". Hala ere, Udalaren partetik jasotako "oztopoak" salatu dituzte: "Eragile bezala txosnagunean parte hartzea ukatu ziguten, eta abenduan txosna bat jartzeko eskaera egin genuen Udalean. Txosna izateko eskubidea defendatu dugu, eragile bezala lan egiteko eskubidea. Hala, Udalarekin akordiora iristeko prestutasuna adierazi dugu. Udalaren jarrera, aldiz, oso bestelakoa izan da. Ez du inolako borondaterik izan hitzarmenetarako, denborak luzatu ditu, eta, plazako txosna kudeatzeko adostasunera iritsita geundela, jaiak hasi baino astebete lehenago txosna esleipen publikora atera du. Horrek ekarri du azken unera arte txosna jartzeko baimena kolokan izatea, eta antolakuntzarako oztopo nabarmena".

**MUGIMENDU SOZIALISTA OSO POZIK DAGO PLAZAKO TXOSNAREN BUELTAN SORTU DUTEN GIROAZ**




Irala kaleko Bilgunean jarraitu zuten EH Bildukoek hauteskunde gaua, ospakizun giroan. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

# Gehiengo osoa berretsi, eta zinegotzi bat irabazi

EH Bildu 1.626 botoko aldearekin gailendu da EAJren aurrean; gehiengo osoa berresteaz gain, zinegotzi bat gehiago izango dute hurrengo agintaldian. EAJk zinegotzi bat galdu du, PSE-EEk mantendu egin du eserlekua eta Elkarrekin koalizioak ez du ordezkaritzarik lortu

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Hurrengo agintaldirako ere lortu du gehiengo osoa Bergarako EH Bilduk (3.921 boto), eta datozen lau urteetan orain arte baino zinegotzi bat gehiago izango du. EAJk (2.295 boto) zinegotzi bat galdu du –zazpi izatetik sei izatera pasatuko da– eta alderdi sozialistak (439 boto) ere bototan behera egin duen arren eserlekua mantendu du. Andres Diez zerrendaburu zuen Elkarrekin koalizioak (212 boto) ez du ordezkaritzarik lortu. PPk 47 boto jaso ditu.

**Artola: "Datu oso pozgarriak dira"**

Gorka Artola beste lau urtez izango da Bergarako alkate, botoa ematera joan diren bergararren artean 2019n baino babes handiagoa lortuta. 3.921 boto lortuta, gehiengo osoa berretsi dute, eta bederatzi zinegotzi izatetik hamar izatera pasatu dira. Artolaren arabera, "oso pozgarriak" dira emaitzak, eta azken lau urteetan egin duten lanari aitortza bat: "Azken lau urteetan egindako lanari aitortza bat da, eta sekulako indarra ematen digu beste lau urtez lanean jarraitzeko. Abstentzioa igo egin da eta gure boto kopuruan ez gara 2019ko datuak berdintzera helduko, baina portzentajeari dagokionez oso datu onak dira. Oso pozik gaude".

**ABSTENTZIOAK 10,26 PUNTU EGIN DU GORA 2019KO UDAL HAUTESKUNDEEKIN ALDERATUTA**

Daturen bat nabarmenduko zuen galdetuta, Artolak Zubieta kalean lortutako emaitzak aipatu zituen, kalea berritzeko obrez harago emaitzok lan egiteko modu bat ere babestu zutela iritzita: "Oso lan ona egin dugu Zubieta-Masterrekan, agintaldi osoan. Eta ez da obraren exekuzioa bakarrik, egiteko moduetan ere asmatu dugula esango nuke". Esker on hitzak ere izan zituen datozen lau urteetan Bergarako alkate izango denak: "Guri botoa eman digutenei eskerrak eta baita boto emaile guztiei ere. Emaitza hauek sekulako indarra ematen digute hurrengo lau urteei begira".

**Lete: "Ez da izan espero genuena"**

EAJk, berriz, ez zituen esperotako emaitzak lortu. 2.295 boto lortu zituzten, eta horrek zinegotzi bat galtzea ekarriko die jeltzaleei. Egun "tristea" izan zela aitortuta, EAJko alkategai Mikel Letek EH Bildu zoriondu eta esker on hitzak izan zituen euren boto emaileentzat eta ondoan duen taldearentzat; oposiziotik proposamenak egiten jarraituko dutela azpimarratu zuen: "Ez dira izan espero genituen emaitzak. Ia 2.300 bergararrek eman digute babesa, baina garbi dago irabazlea EH Bildu izan dela, eta zoriontzea besterik ez zaigu geratzen. Oposiziotik gure programako proiektuak aurrera ateratzen saiatuko gara, bergararren bizitza hobetzea delako gure helburua. Botoa eman digutenez gain, ondoan izan dudan taldeari ere eskerrik beroenak eman nahi dizkiot".

**PSE-EEk bai, Elkarrekinek ez**

Bestalde, alderdi sozialistak behera egin du bototan baina Alberto Alonso oñatiarrak mantendu egingo du eserlekua. Azken agintaldian PSE-EEko eledun izan dena pozik zegoen emaitzarekin: "Bergarako herritar zati esanguratsu baten ahotsa izaten jarraitzen dugu. Errepikatu egingo dut, eta hori nahiko ona da. Beste alderdi batzuek izan dituzte aldaketak, eta haiek egin dezatela hausnarketa".

Udal hauteskundeetako beste zalantzetako bat zen ea Elkarrekin koalizioak ordezkaritzarik lortuko zuen. 2019ko udal hauteskundeetan Irabazi eta Ahal Dugu/Podemos bakoitza bere aldetik aurkeztu izanak ordura arte zuten zinegotzia galtzea ekarri zien. Oraingoan batera aurkeztu arren, 212 boto bakarrik lortu dituzte eta zinegotzi bat lortzetik urrun geratu dira. "Uste genuen zinegotzi bat atera genezakeela, baina lanean jarraituko dugu. Zorionak EH Bilduri".

Gainerako herrietan bezala, 2023-2027ko agintaldirako udalbatza eratzeko osoko bilkura ekainaren 17an izango da.

## Boto kopurua bost hauteslekuetan

| | EH BILDU | EAJ | PSE-EE | ELKARREKIN |
|---|---|---|---|---|
| **Erdigunea** | 2.038 | 1.277 | 189 | 91 |
| **Matxiategi** | 972 | 509 | 101 | 60 |
| **Martokoa** | 499 | 345 | 108 | 42 |
| **Labegaraieta** | 289 | 107 | 22 | 14 |
| **Osintxu** | 123 | 57 | 19 | 5 |
| **GUZTIRA** | **3.921** %34,58 | **2.295** %20,24 | **439** %3,87 | **212** %1,87 |
| **ZINEGOTZIAK** | **10** | **6** | **1** | **-** |

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

## Kartzela zaharrak 23 urte egin dituela-eta, hil osorako egitaraua

Urteurreneko festa ekainaren 17an egingo dute, bazkari batekin eta Amustei taldearen kontzertuarekin

**J.B.L.** BERGARA

Ekain osorako egitaraua antolatu dute kartzela zaharrean 23. urteurrena ospatzeko. Gaur, ekainak 2, Zakill eta Bekar taldeen kontzertua izango dute (22:30); sarrera bost euro da. Hilaren 10ean, Las Felliniren *drag* festa egongo da (00:00), eta ondoren DJak; hilaren 11rako, mahai-jokoen festa antolatu du Maijoku elkarteak; hilaren 15ean, *Su festak: euskal musika jaialdiak XXI. mendean* liburuaren aurkezpena egongo da (18:30); hilaren 17an egingo dute urteurren festa, bazkariarekin (15:00) eta Amustei taldearen kontzertuarekin (22:30); hilaren 18an, xake txapelketa (16:00); hilaren 20an, Txapa Irratia entzun eta ikusteko aukera egongo da (18:00); hilaren 22an, irakurketa taldearen saioa (18:30); hilaren 23an, *Alemaniaren mamua* liburuaren aurkezpena (18:30); eta hilaren 24an, AHTaren kontrako erakusketa jarriko dute Irala kalean, egunean zehar.

## OHARRAK

### Skate festa atzeratu egin dute, eguraldiagatik

Ekainaren 3an Labegaraietan egitekoa zen skate festa ekainaren 24an egingo dute; eguraldi txarragatik erabaki dute atzeratzea.

### Debeku taldearen disko berria salgai dago

Bergarako musika taldearen *Ohartu gara* diskoa erosi daiteke Pol-Pol, Laino, Aldoka Maldoka (Popis), Arrano eta Matxiategi tabernetan eta Clorofila dendan. Diskoaren prezioa zazpi euro da. Aurrerapen-abestietako bat *debeku.bandcamp.com* webgunean entzun daiteke.

### Kontzertua: Hiri Galduak Gorlako kantinan

Urretxuko taldeak gaur joko du, ekainak 2, 19:30ean hasita.



Jardun Antzerki Eskolako zenbait ikasle entsegu batean. J.A.E.

# Ikasturtean ikasitakoa, taula gainean ikusgai

Jardun Antzerki Eskolako 8 eta 12 urte bitarteko 25 ikaslek eurek sortutako bi antzezlan interpretatuko dituzte arratsaldean Seminarixoan; Jardunek eta irakasleek argi utzi dute helburua ez dela bukaerako lana, baizik eta prozesu osoan ikastea

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA
Jardun Antzerki Eskolako 8 eta 12 urte bitarteko ikasleek ikasturteari agur esango diote urte honetan ikasitakoa taularatuz. Emanaldia gaur izango da, arratsaldeko seietan, Seminarixoan. Denera, 25 haur eta gazte igoko dira oholtzara eta bi lan interpretatuko dituzte: *Karmaren hamabi arauak* eta *Pijama jaia*. Doakoa da, baina gonbidapenak Jardunen eskatu behar dira.

Urte osoan egin dute lanketa Olatz Pagalday eta Sonia Villamor irakasleekin gazteek, eta bi antzezlanak denen artean sortu dituzte. "Konturatu ginen ikasleek beti esaten zutela *karma* hitza, baina ez zekitela zer zen. Beraz, pentsatu genuen horren inguruko zerbait egitea. Bigarrena ikasleek nahi zuten gai baten bueltan egin dugu", adierazi du Pagaldayk.

### Antzerki taldea baino gehiago

Ikasturtean zehar "oso gustura eta giro onean" egon direla nabarmendu du irakasleak, baina antzerkia beste gauza batzuk zeharka lantzeko aitzakia dela dio: "Gure helburua ondo pasatzea da euskaraz hitz egiten eta antzerkia egiten. Hori da guretzat baliorik garrantzitsuena". Sormen-lanera heltzeko, kurtso hasieran hasten dira talde-lanean: "Jolasekin hasten gara taldea taldetzen, talde-lanerako kontzientzia hartzen, gure artean gatazkak konpontzen... Gabonak aldera hitz egiten dugu ikasleekin, eurak ere sormenean parte-hartzaile izan daitezen".

Jardun Euskara Elkarteko Maitane Arizabaletak ildo beretik jarraitu du. Entseguetan sortzen den sorkuntza-lanean, ikasleen arteko elkarlanean, errespetuan eta hizkuntzaren lanketan jarri du azpimarra, besteak beste. "Guretzat, gure herriarentzat, kulturarentzat eta euskararentzat oso aberasgarria da antzerki taldea. Hizkuntza aldetik, ahozkotasuna eta hiztegia lantzen da, eta. hortaz, euskara maila hobetzen da", azaldu du Arizabaletak.

**ANTZERKIAREKIN ZEHARKA LANTZEN DITUZTE SORMENA, TALDE-LANA ETA EUSKARA**

### Izen-ematea irailean

2006an sortu zen Jardun Antzerki Eskola, eta Debagoieneko Antzerki Plataformako (DAP) kide da. Hainbat lan-ildo ditu plataformak; tartean, formakuntza –formala eta informala–, eta formakuntza informalean jartzen du bere alea talde bergararrak.

Datorren ikasturtean ere antzerki taldeak lanean jarraitzeko asmoa dauka. Izen-ematea irailean zabalduko dutela jakinarazi dute Jardunetik, baina dagoeneko norbaitek interesa izanez gero aurreratu dute Jardun Euskara Elkartearekin harremanetan jarri daitekeela.



Iazko sari-banaketako argazki bat. GOIENA

## Koldo Eleizalde lehiaketen sariak banatuko dituzte bihar

467 lan jaso dituzte, eta interpretazio eta kontaketa arloan "inoiz baino lan gehiago" aurkeztu dira

**I.A.A.** BERGARA
Koldo Eleizalde lehiaketen 38. edizioaren sari banaketa egingo da bihar eguerdiko hamabietan Seminarixoan. Bertaratu ezin dutenek zuzenean jarraitu ahal izango dute, *streaming* bidez, Bergarako Udalaren Youtube kanalean –Ekitaldiaren izena *Koldo Eleizalde sari emate ekitaldia* izango da–. 467 lan jaso dituzte eta Bergaran jaiotakoek edo bertan bizi direnek zein ikasi edo lan egiten dutenek aurkeztu dituzte lanok.

Lau genero-multzotan banatu dituzte lanak: ipuin idatzia eta poesia; komikia; bertsoa; eta kontakizuna eta interpretazioa. Azken arlo horren barruan daude antzerkia, podcasta, ipuin-kontaketa eta txiste edo umorezko pasadizoen kontaketa. Era berean, genero bakoitza adin taldeka bereizitako kategoriatan banatu dute.

### Lanen balorazioa

Bergarako Udalak interpretazioaren eta kontaketaren arloa nabarmendu du, lan "asko" jaso dituztelako, "sekula baino gehiago". Gainera, "oso maila oneko lanak izan dira".

Sariei dagokienez, zenbait kategoriatan ez da bereizi posturik, eta opariz osatutako hiru sari emango dituzte. Beste zenbait kategoria, aldiz, lehen, bigarren eta hirugarren sarietan banatu dituzte eta hainbat diru-kantitatetako bonuak eskuratuko dituzte irabazleek. Halaber, antolatzaileek parte-hartzea saritu nahi izan dute, eta, horregatik, aldizkarien harpidetzak zozkatuko dituzte partaideen artean.

**Saridunak ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.**

## Nazioarteko sukaldaritzako pintxo dastaketa Osintxun

Domekan, Pintxo World Eguna egingo dute Osintxun. 12:00etan hasiko dute eguna, umeentzako clownarekin, eta 13:00etan egingo dute pintxo aurkezpena. Nazioarteko hainbat sukaldaritzatako pintxoak dastatu ahal izango dira. Suitza, Peru, Gambia, Kuba, Senegal, Txile, Maroko, India, Argentina, Japonia eta Kanariar uharteetako auzokideek euren herrialdeetako mokaduak jarriko dituzte salgai, 1,50 eurotan, Osintxuko plazan eta Euskalduna tabernaren parean. Bildutako dirua Osintxuko Eskolarentzat izango da. 13:30ean, berriz, Terrukos musika taldeak girotuko du auzoa.

Osintxuko auzo-elkarteko kideek adierazi dute bi helburu dituela egun horrek: janaria hari bezala hartuta auzokideen arteko elkargunea sortzea eta Osintxuko Eskolako umeen zaintzarako dirua ateratzea.



Antzuolako EH Bilduko kideak, domekan, emaitzak jakin ostean. Ezkerraldean, Olatz Lezeta, hurrengo alkatea. A.R.K.

# EH Bilduk gehiengo osoa lortu du Udal Gobernuan

Botoen %57,23 eskuratuta, Olatz Lezeta izango da datorren agintaldian alkatea, zazpi zinegotzirekin. EAJ hiru zinegotzi izatetik lau izatera pasatu da; eta sozialistek, beraz, ez dute ordezkaritzarik eskuratu. Herritarren abstentzioa igo egin da

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Maiatzaren 28an egin ziren udal eta foru hauteskundeak Debagoienean, eta, 594 boto lortuta, EH Bilduk jarraituko du Udal Gobernuan datorren agintaldian; hala, ekainaren 17an hartuko du Beñardo Kortabarria jarduneko alkatearen lekukoa Olatz Lezetak. "Emaitzak onak dira guretako. Prest eta gogoz nago. Lau urtean saiatuko gara gauzak ondo egiten, jendearekin elkarlanean, herritarrak gustura egon daitezen".

1.599 herritarrek zuten botoa emateko aukera Antzuolan, eta 1.066k eman zuten. EH Bilduk botoen %57,23 jaso zituen, zazpi kideko ordezkaritza eskuratuta. 350 herritarrek EAJ babestu zuten, %33,72k, eta, ondorioz, hiru zinegotzi izatetik lau izatera igaro da alderdi jeltzalea. "Argi dago lan gehiago egiten jarraitu behar dugula, helburua irabaztea delako, baina herriak berba egin du, eta beti gora joatea pozgarria da", azaldu du Josu Xabier Arangurenek, EAJko hautagaia zenak eta zinegotzi izango denak.

Sozialistek, aldiz, ez dute ordezkaririk eskuratu. Izan ere, hamaika zinegotzi daude Antzuolako udalbatzan, baina EH Bilduk eta EAJk lortu dituzte ordezkaritza guztiak. PSE-EEk 68 boto jaso ditu, eta, ondorioz, lehenengo aldiz, Antzuolako Udalean sozialistek ez dute eserlekurik izango. "Herritarrek hitz egin dute; emaitzak direnak dira. Eskerrak eman nahi dizkiegu PSEri botoa eman dioten guztiei, izandako konfiantzarengatik. Antzuolaren alde jarraituko dugu lanean", adierazi du Miren Gallastegi hautagai sozialistak.

Gainontzeko 54 botoei dagokienez, 28 baliogabeak izan ziren eta 26, zuriak. Beraz, 1.012 herritarrek egin zuten alderdiren baten aldeko hautua.

**Elkarlanerako aukerak**

EH Bildu eta EAJ arituko dira, beraz, Antzuolako Udalean jardunean. Lezetak azpimarratu duenez, elkarlanerako prest daude, eta Arangurenek ere gaineratu du "momentuz ezer argirik" esan ezin dezakeen arren, "berba egiteko jarrera, gutxienez", izaten dutela, eta horri ez diotela ezetzik esango. "Ados gauden kontuetan, aurrera; ez gaudenean, gehiengo absolutua dute, eta ez dute arazo handirik edukiko".

## Emaitzak

| Alderdiak | Botoak | | % Zineg. |
|---|---|---|---|
| EH BILDU | 594 | %57,23 | 7 |
| EAJ | 350 | %33,72 | 4 |
| PSE-EE | 68 | %6,55 | 0 |
| **Guztira** | **1.012** | **%100** | **11** |

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

**Gora egin du abstentzioak**

Espainiako Barne Ministerioak emandako datuen arabera, ordea, boto emaileak ohi baino gutxiago izan dira, eta horrek eragina izan du, alderdi guztiek jaso baitituzte boto gutxiago. Hain justu, %33,33koa izan da bozkatzera deituta zeuden antzuolarren abstentzioa, duela lau urtekoa baino zortzi puntu handiagoa; orduan, %25,26koa izan zen.

2019ko datuekin alderatuz, EH Bilduk 91 boto gutxiago jaso ditu azken udal hauteskundeetan; EAJk, hamazazpi gutxiago; eta sozialistek, 34 gutxiago.

**1.012 HERRITARREK ALDERDIREN BATEN ALDE EGIN DUTE; 28 BOTO BALIOGABE ETA 26 ZURI IZAN DIRA**

## Bihar ospatuko dute AKE eguna, gorri janzteko dei eginda

2016an ospatu zuten lehenengo aldiz; orduz geroztik, bost egin dituzte, egun osoko egitarauarekin

**A.R.K.** ANTZUOLA

Herria gorri janzteko eguna dela diote AKE elkarteko kideek, eta horretarako aukera izango dela bihar; izan ere, beste urte batez, AKE eguna ospatuko dute.

11:00etan hasiko da festa, puzgarriak izango baitira Zurrategi plazan. 12:00etan, berriz, karro-poteoa egingo dute; alabaina, Ibon Gezalaga AKEko lehendakariak azpimarratu du bazkaria dela jende gehien batuko duen ekintza, gutxi gorabehera, 415 herritar inguru bilduko baitira 14:30ean.

Bazkalostean, sari banaketa egingo dute, eta jokalari erregularrenak sarituko dituzte. "Kategorietan banatuta, oroigarri eta argazki bana banatuko diegu erregularren aritu diren jokalariei, entrenatzaileekin kontsulta eginda; ez baitira gol gehien sartu dituztenak". 17:30ean izango da hori, eta, horren ostean, Gotx elektrotxaranga izango da, 18:30ean.

**AKEren eragina**

Egun, AKEk berrehun jokalari inguru ditu, zazpi taldetan banatuta; horietatik hiru neskenak dira eta beste laurak, mutilenak. Horrez gain, bada futbol eskola ere. "2011tik 2014ra bitartean jaiotakoak daude aurten, eta nahastuta egoten dira jokalariak, neska zein mutil; ez da lehiaketa bat, gerora futbolean aritzeko eskola bat baizik".



Iazko AKE egunaren irudi bat: bazkaria eskolako patioan. IMANOL SORIANO

Haren arabera, elkarteak eragin "handia" du herrian, eta uste du horren adibide dela duen jokalari kopurua. Boluntarioen lana ere goraipatu du.

## Hondarribira txangoa egingo du Landatxope elkarteak

Ekainaren 15ean izango da, eguena, baina lehenago eman beharko da izena. Ekainaren 6an eta 7an egongo da horretarako aukera, 16:30etik 18:00etara. Irteerak 35 euroko prezioa izango du bazkide direnentzat; ez direnentzat, berriz, 40 eurokoa.

Antiguatik izango da irteera 08:45ean eta Sagastitik 09:00etan. Hondarribira heltzean, hamarretakoa egingo dute batzokian; ondoren, 11:30ean, herriko gune historikoan eta La Marinan bisita gidatua, eta 14:30 aldera Guadalupeko Kantinan bazkalduko dute. Arratsaldea ere herrian pasatuko dute, bakoitzaren kontu egongo den arren plana. Itzulera 19:00etan izango da.

# "Oso gogotsu nago, primeran ibiliko gara"

**IBAI LARREA** LINEAKO MENDIKO LASTERKETETAKO EUSKADIKO TXAPELDUNA

Ekainaren 6tik 10era jokatuko den 2023ko World Mountain and Trail Running Championships txapelketan lehiatuko da Ibai Larrea antzuolarra, lehenengoz

**Miren Arana Pagaldai** ANTZUOLA

Austriako Alpeetan jokatuko da aurtengo World Mountain and Trail Running Championships txapelketa; ekainaren 6an irekiera ekitaldiarekin izango du hasiera, baina hurrengo egunean ekingo diete lasterketei; eta ekainaren 10ean amaituko da. Maila nazionaleko txapelketetan parte hartu ostean, lehenengoz arituko da Ibai Larrea antzuolarra mundu mailako txapelketa horretan.

Lasterketaren kronologiari dagokionez: ekainaren 7an modalitate bertikaleko ibilbideak zabalduko du txapelketa; hurrengo egunean, ostegunean, *trail short* motakoa egingo da; ekainaren 9an, *long trail* delakoa; eta txapelketa amaitzeko, *mountain classic* modalitateko lasterketa egingo dute, eta han lehiatuko da antzuolarra.



Ibai Larrea, Antzuolako 8 Miliak proban. GOIENA

**Nola izan zen izen ematea? Zure erabakia da edo aukeraketa bat egiten da?**

Hautatua izaten zara, bai. Nire kasuan, maila nazionaleko bi txapelketatan hirugarren eta laugarren gelditu nintzen, eta horregatik hautatu naute. Murtzian aritu nintzen 23 urtez azpiko igoera bertikaleko txapelketa batean eta laugarren gelditu iritsi nintzen helmugara; Lloret de Marren egindako Mountain Trail Running Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketan ere aritu nintzen, eta hirugarren gelditu nintzen; horregatik aukeratu naute txapelketa horretarako.

**Datorren astean Austriako alpeetan izango da lasterketa; noiz joango zara?**

Txapelketa martitzenean hasiko da, baina ni astelehenean joango naiz Innsbruck-era, hasten den tokira. 6an irekiera ekitaldia bakarrik egongo da, eta 7an izango da lehenengo lasterketa; modalitate bertikalarekin ekingo diote.

## "NIRE ONENA EMANEZ ONDO PASATU NAHI DUT, NIRE ETA IKUSLEEN GOZAMENERAKO"

**Lehengo aldia izango da, ezta? Zer sentsazio duzu?**

Bai, lehenengo aldia da txapelketa horretan arituko naizena. Egia esan, oraindik ez nago urduri, baina badakit jarriko naizela; mundu mailako lehiaketa bat da, gainera. Hori bai, oso gogotsu nago hara joateko; jende pila bat goaz eta primeran ibiliko garela uste dut.

***Trail short* modalitatean lehiatuko zara?**

*Mountain classic* modalitatean arituko naiz, orain arte lehiatu ditudan txapelketen antzekoa izango delako. Hogei kilometro baino gutxiagoko lasterketak egin ditut orain arte, erritmo aldaketa dutenak, eta hura ere antzekoa izango da. Ez dakit zein izango den ibilbide zehatza, bi tontor-edo igoko dira, baina ez dut uste guztia mendi-menditik izango denik.

**Txapelketan lehiatuko den gertukoren bat ezagutzen al duzu?**

Bai, ezagutzen ditut baten batzuk, bai nire modalitate berean arituko direnak eta baita desberdinetan lehiatuko direnak ere. Esan dudan bezala, ni *classic* modalitatean lehiatuko naiz, baita Malen Osa oñatiarra eta Igorreko Onditz Iturbe ere; baina bi haiek Ainhoa Sanz urretxuarrarekin batera beste modalitate batean ere arituko dira, bertikalean.

Gero, maratoian edo *short trail*-en arituko diren bi debagoiendar ere ezagutzen ditut: Ainara Urrutia aretxabaletarra eta Oihana Kortazar elgetarra; eta Urretxuko Aritz Egea ere lehiatuko da, baina hura *long trail* modalitatean.

**Ba al duzu buruan hautsi nahi duzun marka edo helbururen bat?**

Ez, ez dut horrelako helbururik. Disfrutatzera noa; ondo pasatu nahi dut, eta paisaiaz gozatu. Hori da nire helburua; lehenengo aldia da, gainera, eta izugarrizko paisaiak daude, eta horiez ere gozatu nahi dut. Beraz, nire onena emanez ondo pasatzea espero dut, nire eta ikusleen gozamenerako.



NIRE USTEZ

ION LIZARAZU

## IAk dakiena

Adimen artifizialak (IA) eragin handia izan du gizartean azken hamarkadetan, eta horren aplikazioa sektore ugaritara zabaltzen ari da. IAren teknologiei esker, ikuspegi eta erronka berriak sortu dira sare sozialetan, bilaketa-motorretan, bankan eta medikuntzan. Gainera, manufaktura-industrian, nekazaritzan eta hezkuntza ere erabiltzen ari dira.

IA teknologiak erabiltzen ari dira hainbat arlotan arazoak konpontzeko, hala nola industria aeroespazialean, nekazaritzako elikagaien sektorean eta espazio-esplorazioan.

Gainera, euskal kultura eta hizkuntza sustatzeko IA aplikazioak sortzen ari dira.

Oraindik erronka garrantzitsuak dauden arren, IA teknologien etengabeko bilakaerak etorkizunerako ikuspegi eta aukera berriak eskaintzen ditu. IA teknologiek etorkizunean erabilera oso hedatua izatea espero da, eta eragina izango dute ekonomiaren eta gizartearen ia sektore guztietan. (IAk idatzia)


IMANOL SORIANO

## Aldasororen trial memoriala

Ramon Aldasororen omenez trial memoriala egin zuten lehenengo aldiz Antzuolan. Irain motor klubak antolatuta jokatu zen, hirugarrenez, Euskadiko Trial Txapelketaren parte izan zen memoriala. Ramon Aldasoro izena ipini diote aurten trialari, duela 3 urte trial hori bera antolatzeari ekin zion herritarraren omenez. Guztira, 58 parte-hartzaile egon dira.

## Leire Galeanok pilota partidua jokatuko du gaur pilotalekuan

Gaur 20:00etan jokatuko da lau eta erdiko txapelketa partida, Antzuolako udal pilotalekuan. Leire Galeano pilotari antzuolarra, Villabonako (Gipuzkoa) Behar Zana elkarteko Arrillaga pilotariaren aurka arituko da. Atzelariak Bergara Hiriko finala jokatu berri du, Amaia Aldairekin batera; 19-22 galdu zuten Garai-Gaminde bikotearen aurka.

## Xabat Aiastui izan da azkarrena Iralako kronoigoeran

Aiastui elkarteak antolatuta, Iralako kronoigoera egin zen joan den zapatuan, maiatzaren 27an, eta Xabat Aiastui izan zen azkarrena gizonezkoetan; hain zuzen, hiru minutu eta 48 segundo behar izan zituen. Emakumezkoetan, berriz, Garazi Aranburuk lortu zuen garaipena; bost minutu eta 56 segundo behar izan zituen hark.

# Ibon Unzetabarrenetxeak hartuko du aginte makila

Gehiengo osoarekin gobernatuko du EH Bilduk Elgetan beste lau urtez. 412 boto jaso zituen Unzetabarrenetxea buru duen hautagaitzak domekako hauteskundeetan. EAJk, berriz, 178 boto jaso zituen, eta hirugarren zinegotziari eutsi dio



EH Bilduko lantaldea Ibon Unzetabarrenetxearekin batera emaitzak ospatzen. L.Z.L.

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

EH Bilduk jarraituko du alkatetzan Elgetan. Domekako udal hauteskundeetan botoa eman zuten herritarren %65,70aren babesarekin, Ibon Unzetabarrenetxea izango da hurrengo alkatea, eta ekainaren 17an udaletxeko areto nagusian egitekoa den eratze-ekitaldian hartuko du aginte makila Iraitz Lazkanoren eskutik. Datu deigarria da Unzetabarrenetxearen hautagaitzak duela lau urte Lazkanoren hautagaitzak jasotako boto kopuru bera jaso duela: 412, hain zuzen ere.

EAJ izan da Elgetan bigarren indar bozkatuena. Iker Laka buru duen hautagaitza jeltzaleak 178 boto jaso ditu (%28,38). 2019ko udal hauteskundeetan Aintzane Oiarbide buru zuen lantaldeak baino 27 boto gutxiago izan dira, eta, aldeak txikia badirudi ere, jeltzaleak justuan eutsi diote hirugarren zinegotziari. Lau botoko gorabeheran egon da kontua.

Isaias De Castro buru zuen PSE-EEren hautagaitza izan da udal hauteskundeotan alkatetzarako hirugarren aukera. Harrigarriki, hor ere errepikatu egin da duela lau urteko boto kopurua: sozialistek hamahiru boto jaso zituzten 2019an eta hamahiru jaso dituzte berriro ere oraingoan.

Domekako hauteskundeetan 853 elgetar zeuden botoa ematera deituta eta 627 izan ziren botoa eman zutenak. Abstentzioa, beraz, %26,49 izan zen –orain lau urte baino 1,84 puntu handiagoa–.

Abstentzioarekin batera gora egin dute boto zuriek eta baliogabeek –0,36 puntu bakoitzak. Horiek izan daitezke alderdi jeltzalearen emaitzek behera egitearen arrazoietako batzuk. Gauzak horrela, EH Bilduk gehiengo osoarekin gobernatuko du beste lau urtez Elgetan; Ibon Unzetabarrenetxearen lantaldeak sei ordezkari izango ditu udalbatzan eta Iker Lakarenak, hiru.

### Udal hauteskundeetako emaitzak

| Alderdiak | Botoak | % | Zineg. |
|---|---|---|---|
| EH BILDU | 412 | %65,70 | **6** |
| EAJ | 178 | %28,38 | **3** |
| PSE-EE | 13 | %2,07 | **0** |
| *Zuriak* | 12 | %1,91 | **-** |
| *Baliogabeak* | 12 | %1,91 | **-** |
| **GUZTIRA** | **627** | **%100** | **9** |

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

### Batzar Nagusietarako emaitzak

| Alderdiak | Botoak | % |
|---|---|---|
| EH BILDU | 360 | %57,6 |
| EAJ | 191 | %30,56 |
| ELKARREKIN | 22 | %3,52 |
| PSE-EE | 18 | %2,88 |
| PP | 7 | %1,12 |
| STOP | 3 | %0,48 |
| *Zuriak* | 10 | %1,06 |
| *Baliogabeak* | 14 | %2,24 |
| **GUZTIRA** | **625** | **%100** |

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

**Foru hauteskundeak**

Domekan foru hauteskundeak ere izan ziren. EH Bildu izan zen bozkatuena: 360 boto eskuratu zituen; udal hauteskundeetan baino 52 gutxiago. Jeltzaleek 191 boto lortu zituzten; udal hauteskundeetan baino hamahiru gutxiago. PSE-EEk, hamazortzi; udal hauteskundeetan baino bost gutxiago. Elkarrekin alderdiak 22 boto jaso zituen, Alderdi Popularrak (PP) zazpi eta Stop plataformak, hiru.

## Emaitzen balorazioak



**IBON UNZETABARRENETXEA**
EH BILDU

**"Oso pozgarria da berotasun hau sentitzea"**

"Oso pozik gaude emaitzekin. Boto kopurua mantendu egin dugu eta horrek esan nahi du herriak, beste behin, konfiantza jarri duela gugan. Zazpigarren zinegotzia lortzeko lau boto falta izan zaizkigu. Banuen esperantza txiki bat lortuko genuela, baina EAJ jaitsi egin da eta horrek ere zerbait adierazten du. Espero dut aurrekoek baino lan gehiago egitea agintaldi honetan. Eta elgetarrei esan gugan jarritako konfiantzan bueltan jaso dezaten ahal dugun dena emango dugula".



**IKER LAKA**
EAJ

**"Badakigu babes bat dugula herrian"**

"Lehenik, zoriondu egin nahi ditut Ibon eta EH Bilduko lantaldea. Balorazioari dagokionez, hirugarren zinegotziari eutsi diogu. Badakigu babes bat dugula herrian, eta kontsolidatu egin dugu. Agintaldi honetan EAJ jarrera aktiboarekin egongo da proposamenak egiten, herri hau dagoen geldialditik ateratzeko, eta ahaleginduko gara Udal Gobernuari ikusarazten aldaketak behar direla. Proiektuak proposatzen eta elkarlanean aurrera ateratzen saiatuko gara".

## Eratuta energia kooperatiba

Izendatuta daude Ixotzen energia kooperatibako kontseilu errektoreko kideak eta ordezkoak. Maiatzaren 10ean egindako batzarrean egin zituzten izendapenak, eta kooperatibako estatutu sozialak onartu zituzten. Notariotzatik onarpen ofiziala jasotakoan ekingo diote bazkidetza kanpainari. Oraingoz, 57 lagunek erakutsi dute interesa.



IXOTZEN KOOP. S

## Beheko kaleko jaietako afarirako txartelak salgai

Dagoeneko salgai daude hilaren 16an egitekoa den auzo afarirako txartelak. Umeen afariko txartelak Lola jatetxean daude salgai, 7 eurotan. Menua da solomoa patata erreekin eta izozkia. Nagusien afariko txartelak Goikoetxe harategian daude salgai, 17 eurotan. Menua da urdaiazpikoa, errusiar entsalada, oilaskoa labean eta flana.

OHARRAK

### Musika ikasleak

Elgetako musika ikasleen ikasturte amaierako emanaldia eguenean izango da, hilak 8, 19:00etan, Espaloia kafe antzokian.

### Sendabelarrak

Garbiñe Larreak hilaren 21ean aurkeztuko du *Sendabelarren baratzea* liburua liburutegian. Izenematea zabalik da.

# Pascual Askasibar omendu dute Alemanian

Holokaustoaren garaian Neuengamme eta Wöbbelin okupazio-esparruetara bidali zuten, Frantzian erbestean egon ostean, eta han hil zen Pascual Askasibar elgetarra. Maiatz hasieran, Wöbbelinen hil ziren presoei omenaldia egin zieten

**Iñigo Barrena Kortabarria** ELGETA

Pascual Askasibar eta Tomas Rebollo elgetarrak nazien kontzentrazio-esparruetan amaitu zuten holokaustoaren garaian, eta han galdu zuten bizia biek ala biek. Orain dela urte gutxi, Askasibarren ondorengoek Pascualena zen erloju bat ekarri zuten Alemaniatik Elgetara, eta, duela hilabete eskas, Askasibar omendu egin zuten hil zen kontzentrazio-esparru berean.

Ez dago informazio askorik elgetarraren inguruan, baina, haren ondorengo Jesus Mari Txurrukak adierazi duenez, Espainiako gerra hasi baino lehen joan zen Frantziara erbestera, eta, ondoren, handik eraman zuten, lehenik, Neuengammeko kontzentrazio-esparrura, eta, ondoren, Wöbbelinen kontzentrazio-esparrura. Azken hartan oso denbora gutxi egin zuten, eta aliatuak iritsi baino bi aste lehenago galdu zuen bizia han Askasibarrek; bateren batek bizirik irtetea lortu zuen.

Orain, kontzentrazio-esparru haietan hil ziren presoei omenaldia egin diete. Paskual Askasibar zen Wöbbelinengo presoetako bat, eta haren izena daraman adreilu bat dago omenduen artean. Jesus Mari Txurruka izan zen omenaldi hartan egon zenetako bat, eta "hunkituta" amaitu zuela azaldu du. Ekitaldian 200 pertsona baino gehiago elkartu ziren. "Herrialde eta erlijio askotariko jende ugari batu ginen han, bakoitza bere senitartekoa omentzeko. Kontzentrazio-esparrutik bizirik irten zen bateren bat ere hantxe zegoen. Lore sorta eskaini zuten aurrena, eta, ondoren, adreiluaren gainean kandela txiki bat jarri genuen", dio Jesus Mari Txurrukak. Omenaldi horiek urtero egiten dituztela ere adierazi du Txurrukak.



Jesus Mari Txurruka senitartekoekin batera lore eskaintza egiten. JESUS MARI TXURRUKA




Pascual Askasibarren omenezko adreilua. JESUS MARI TXURRUKA

### Omenaldi bat baino gehiago

Wöbbelinenera iritsi aurretik Neuengammeko kontzentrazio-esparruan egon zen Askasibar, eta han egon ziren Espainiako errepublikanoei ere egin zieten omenaldia; Txurruka eta kontzentrazio-esparru hartan egon zirenen ondorengoak izan ziren. "Espainiako errepublikano guztien omenezko adreilua dago han, eta Pascual ere hantxe egon zen; harena ere bada monumentu hura", dio Txurrukak. Beste omenaldia Lübeck herrian izan zen; han alemaniarrek itsasoratu egin zituzten presoak, eta ondoren urperatu. Txurrukak omenaldia "hunkigarria" izan zela aitortu du: "Hango herriko gazte batzuk kantuan hasi ziren, eta benetan emozionatu ginen omenaldian egon ginen gehienok; negar malkoak ere irten zitzaizkigun. Harrigarria da hangoek gertakari haien inguruan hausnartzeko duten modua".



Iazko udako aisialdiaren taldeetako bat. LARRAITZ ZEBERIO

## 'Itsasoa' izango da aurtengo udal aisialdiko gai nagusia

Aurten, nobedade moduan, zuzenean haurrei galdetu diete zer-nolako udalekuak nahi dituzten

**I.B.K.** ELGETA

Ekainaren 26tik uztailaren 21era arte izango dute haurrek Elgetako udal aisialdian parte hartzeko aukera. Aurten, zuzenean haurrei galdetu diete zer-nolako udalekuak nahi zituzten. Eskolan lanketa egin dute horren inguruan, eta liburutegian proposamenen kutxa jarri zuten nahi zuenarentzat. Prozesu baten ostean, proposamen batzuk onartu zituzten eta beste batzuk, berriz, ez. Prozesua haurrekin zein gurasoekin egin da. Hain zuzen ere, gai nagusia *Itsasoa* izango da.

### Bestelako informazioa

Antolaketari dagokionez, taldeak adinka egingo dituzte, 2 urteko haurretatik LHko 6. mailara arte; eta bost hezitzaile egongo dira haien ardurapean. Urtero bezala, udalekuak hasi baino astebete lehenago gurasoentzat informazio bilera egongo da. Badira, ordea, kontuan hartu beharreko batzuk. Ekintza bereziak, irteera, gaubeila eta bits-festa aparte ordaindu beharko dira, 5 euroko prezioan. Azken horretan, gainera, 4 urtetik gorako haurrek parte hartu ahalko dute soilik.

## GORA ETA BEHERA



### 'La Belga' posizioa konpondu egin dute

Berreraikita dago aurreko asteotako denboraleak kaltetutako *La Belga* posizioa. Intxortako ibilbide tematikoan leku oso esanguratsua da hura. Argazkia Elgetako Udalarena da.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.



Izaro Elorza eta EH Bilduko zerrendakideak eta komunitateko hainbat kide emaitzak ospatzen domeka gauean bilgunean. O.E.G.

# Gehiengoa berretsi dute, zinegotzi bat irabazita

EH Bildu eta EAJ izan dira alderdi bozkatuenak eta eurek osatuko dute udalbatza datozen lau urteetan ere. Zinegotzi kopuruan, baina, aldaketak egongo dira: EH Bilduk hamaika izango ditu, bat gehiago, eta EAJk sei, bat gutxiago

**Oihana Elorza Gorostiza** OÑATI

EH Bilduk lortu ditu boto gehien egin berri diren udal hauteskundeetan (3.279 boto), lehen indar politikoa dela berretsiz, eta agintaldi berrian ere gehiengo osoz gobernatuko du, zinegotzi bat gehiagorekin –hamar zinegotzi izatetik hamaika izatera pasako da–. Bigarren alderdi bozkatuena EAJ izan da (1.931 boto), zinegotzi bat galduta –zazpi izan ditu azken agintaldian eta sei izango ditu datorrenean–. Alderdi sozialistak duela lau urte baino ehun boto gutxiago lortu ditu (218 boto) eta alderdi popularrak, 55. Ez batak eta ez besteak ez dute ordezkaririk lortu; beraz, azken hiru agintaldietan bezala, EH Bilduk eta EAJk osatuko dute udalbatza datozen lau urteetan.

**Elorza: "Ondo eginaren seinale"**

San Migel parrokiako kanpaiek zortziak jo zituzten unean itxi zituzten botoa emateko prestatuta zeuden herriko ohiko lau guneetako ateak, eta boto kontaketarekin hasi ziren hamabost hauteslekuetan, postaz bidalitako botoak zegozkien kutxetan sartu ostean. Udal hauteskundeetarako botoak, zuriak, zenbatu zituzten lehenengo. 21:30erako emaitzak ospatzen ari ziren EH Bilduko bilgunean. "Herritarrek konfiantza berriz gugan jarri dutela da irakurketa. Lau urte hauetan eta aurreko zortzietan, hamabi urtez, gauzak ondo egin ditugun seinale da emaitza hau, eta eredu honetan sakontzeko gogoa dagoela. Pozik gaude baita ere Debagoienean EH Bildu gailendu delako eta Gipuzkoan ere goraka doazelako datuek", zioen Izaro Elorzak bilgunean bertan. Oran arteko ereduarekin jarraituko dutela lanean gaineratu zuen, baita oposizioarekin elkarlanean segiko dutela ere.

**ABSTENTZIOA %36KOA IZAN DA, DUELA LAU URTE BAINO ZORTZI PUNTU HANDIAGOA**

**Erostarbe: "Pena hartu dugu"**

Abstentzioa %36koa izan zen domekako hauteskundeetan, duela lau urte baino zortzi puntu pasa handiagoa. Horrek eragina izan zuen alderdiek lortutako boto kopuruan, gutxituz.

Lortutako boto kopuruak sei zinegotzi eman dizkio alderdi jeltzaleari, eta horregatik pena hartu dutela aitortu zuen Amaia Erostarbe zerrendaburuak domeka gauean, batzokian: "Zazpigarren zinegotziari eutsi gura genion. Duela lau urte justuan lortu genuen, oraingoan ez, eta pena dugu. Hala ere, ikusita ze emaitza egon diren Gipuzkoan, gure galera ez da horrenbestekoa izan, eta irakurketa hori ere egin dugu". Erostarbek gehitu zuen talde eta proiektu sendoak dituztela eta lanean jarraituko dutela. Boto kontaketari lotuta, alderdi jeltzaleak azaldu du erreklamazio bat dagoela zabalik, haren ustez hauteskunde mahai batean botoen datu-ematean akats bat gertatu delako. Horren arabera, mahai horretan EAJri legozkiokeen 223 boto PPri eman zitzaizkion.

**Guisado: "Ez goaz Oñatitik"**

Alderdi Popularreko zerrendaburu Ricardo Guisadok "pozik" hartuko lituzke boto horiek eurendako, baina aktak begiratu behar zituela onartu zuen. "Badakit nonbaiten akatsen bat egon dela, guk ez ditugu horrenbeste boto hartu", zioen domeka gauean Oñatin bertan. Era berean, hark aurkeztutako proiektuak herriarendako direla nabarmendu zuen: "Ez dira alderdiko egitasmoak, herriarendako baizik, eta gustatuko litzaidake Udalean egongo diren alderdiek sustatzea". Oñatin jarraitzeko asmoa duela ere esan zuen: "Egingo diegu jarraipena proiektuei. Gu ez goaz Oñatitik".

Alderdi sozialistako zerrendaburuarekin harremanetan jarri arren, GOIENAk ez du haren erantzunik jaso eta ezin izan du beraren irakurketa edo balorazioa jaso.

**Aldundikoan, alderantziz**

Foru Aldundietako emaitzei erreparatuz gero, EH Bilduk ez baina beste hiru alderdiek Udalerako baino boto gehiago lortu zituzten Aldundirako, EAJK, alderdi sozialistak eta alderdi popularrak.

## Boto kopurua lau hauteslekuetan

| | EH BILDU | EAJ | PSE-EE | PP |
|---|---|---|---|---|
| **Kiroldegia** | 1.315 | 888 | 80 | 26 |
| **Santa Marina** | 1.069 | 555 | 49 | 13 |
| **Olakua dorrea** | 274 | 212 | 33 | 9 |
| **Txiki Txoko** | 621 | 276 | 56 | 7 |
| **GUZTIRA** | **3.278** %58,74 | **1.932** %34,62 | **218** %3,90 | **55** %0,98 |
| **ZINEGOTZIAK** | **11** | **6** | **0** | **0** |

OHARRA: BEHIN BEHINEKO DATUAK DIRA

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### Gizarte Zerbitzuak ohiko tokian berriz astelehenetik

Bukatu dituzte Gizarte Zerbitzuetako bulegoetako lanak, eta, ohiko tokian egongo dira berriz astelehenetik aurrera: Bidebarrieta kalean. Sarrera-gunea berrantolatu egin dute, itxaron gela bat egokitu eta beirazko ate automatikoak jarri espazioak bereizteko: itxarongela, harreragunea eta gizarte langileen bulegoak.



Gizarte Zerbitzuak, Bidebarrietan. GOIENA

### Zuhaitz hostozabalen basoak nola zaindu azalduko dute

Zuhaitz hostozabalen zaintzak baditu bere berezitasunak, eta horiek azalduko dituzte Oñatin, Gipuzkoako Baso Jabeen Elkarteak eta Basoa fundazioak antolatutako saioetan. Bi izango dira: teorikoa Aitor Onaindiak eta Eneko Iturbek eskainiko dute ekainaren 7an, 19:00etan, zinema-aretoan; praktikoa uztailaren hasieran egingo dute.

### Haurren danborradarako izen ematea zabalik dago

Irailaren 23an izango da aurtengo haurren danborrada, eta antolatzaileek zabaldu dute izena emateko epea. Datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetan arituko diren umeak animatu gura dituzte parte hartzera. Ekainaren 12a da izena emateko azken eguna. Hemen: *oinatikotanborradatxikia@gmail.com*.

### Urteurren borobila ospatuko du Zumeltzegi dorreak

Hamar urte bete dira ekainaren 1ean Zumeltzegi dorrean hotela eta jatetxea zabaldu zutela, eta herritarrekin batera ospatu gura dute urteurrena. Hala, bihar, zapatua, Legazpiko Alaitasuna Errondailla taldeak musikaz girotuko ditu kaleak goizean zehar. Bezeroei eskerrak eman eta ongizatea eskaintzen jarraituko dutela gaineratu dute jabeek.

# Jolastuz agurtu dute kirol eskolako ikasturtea

Inoiz baino ikasle gehiagok hartu du parte eskola kirolean, 625ek, eta herriko hainbat txokotan adinka hainbat jolas eginez amaitu dute kurtsoa. Arrakasta berretsi du erakundeek eta herriko babesle eta kirol eragileen artean bultzatutako formulak

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI
Adinka antolatuta herriko hainbat gunetan jolasak eginez eman diote amaiera eskola kirolaren ikasturteari. "Arrakastatsua izan da ikasturtea, beste behin. Sekulako altxorra da ekimen hori Oñatiko umeendako", dio eskola kiroleko udal teknikari Rosa Lasagabasterrek.

**Elkarrekin nahastuta**
Hiru ikastetxeetako umeekin osatutako taldeak egiten dituzte, eta hori da, Lasagabasterren ustez ekimena "altxor" bihurtzen duen ezaugarrietako bat. "Nahastu egiten dituzte umeak, eta, kirola egiteaz gain, elkar ezagutzen dute eta elkarrekin jolasten ikasten dute. Hori sekulakoa da, balio erantsi oso garrantzitsua. Izan ere, umeak kirola egitea eta kirolera gerturatzea bada proiektu horren helburuetako bat, baina umeak hezten laguntzea ere bai. Eta elkarren arteko ezagutza eta errespetu hori izatea heziketaren eta gizakiok izan behar ditugun balioen parte dira". Begiraleak ere maila handikoak direla gaineratu du: "Gazteak dira, gehienak kirol ikasketak egiten ari direnak, eta enpatia handia dute umeekiko".

**Babesleekin batera**
Guztira, 625 ikaslek hartu dute parte joan den egubakoitzean jolasean amaitu zuten ikasturtean; inoiz baino gehiagok. "Ondo pasatzen dute umeek, eta aukera dute kirol bat baino gehiago ezagutzeko, probatzeko. Kirol arauak ikasten dituzte, errespetuz jolasten eta jokatzen, eta lagun berriak egin izan dituzte. Balio horiek garrantzitsuak direla iruditzen zait", dio guraso batek.

**EKAINAREN 12TIK 16RA IZANGO DA IKASTURTE BERRIRAKO IZEN EMATEA**

Ikasle, hezitzaile eta gurasoez gain, beste hainbat eragilek osatzen dute eskola kirola Oñatin, izan ikastetxeak, erakundeak edo babesle diren herriko hainbat enpresa –Ulma, Fagor, Lana, Natra, Euskadiko Kutxa eta Sustrai– zein kirol eragile –Aloña Mendi, Tatarraz, Oñatiko orientazio eskola eta Antxintxika, tartean–.

**Datorren ikasturterako**
Datorren ikasturtean ere izango dute eskola kirola Lehen Hezkuntzako ikasleek; kirol egokitua 21 urtera arte. Beste behin, herriko kirol eragileekin batera osatuko dute eskaintza eta hamabost bat kirol mota ezagutu eta egin ahal izango dituzte. Hamar egun barru, ekainaren 12an, zabalduko dute izen ematea, eta 16an itxiko da epea. Ohikoa den moduan, herriko ikastetxeen bitartez bidaliko dute informazioa. Gainera, gurasoendako informazio bilerak egingo dituzte.


Hirugarren eta laugarren mailetako ikasleak Elkar Hezin jolastu ziren. GOIENA


ALOÑA MENDI

## Sari bikoitza Aloña Mendirentzat

Aloña Mendiren eskubaloi saileko gizonezkoen senior taldeak gipuzkoako Aizkorri kopa irabazi zuen joan den astean Iruneko Artaleku kiroldegian jokatu zen finalean. Aloñakoek 29-28 irabazi zioten Tololsari. Gainera, zapatukoaz gain, sari bikoitza lortu dute txantxikuek; izan ere, azkenean, Euskadiko Txapelketan jarraituko dute datorren denboraldian.

## GORA ETA BEHERA



### Aldarrikapen plastikoak, kentzeke

"Sindikatuek plastiko erreibindikatzaileak jarri eta haizeak ibaira eraman arte itxaroten dute. Tamalgarria da euren adibidea", dio egoeraren argazkia GOIENAra bidali duen herritarrak.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## Lehenengo Erregional Mailako taldeak finala dauka bihar

Bihar, arratsaldeko lauretan, Bergaran jokatuko da finala, eta Intxurre taldea izango dute aurrean. Jon Ander Errastik zuzendutako taldeak erakustaldia egin zuen finalerdietan, Irauli Bosteko taldea 5-1 garaituta. Aurrean izango duen taldeak ez dizkio, ordea, gauzak erraz jarriko. Intxurre 4-2 izan zen garaile bere finalerdian.

## Dozena bat debagoiendar egongo dira Olakua sarian

Bihar 16:00retan irtengo dira txirrindulariak Zubillagan kokatuko den irteeratik, eta ibilbideak dituen 40 kilometroetan Untzillako eta Santipillauko igoerak pasa beharko dituzte, Olakuako helmugara iritsi aurretik. Txirrindulariei dagokienez, sei oñatiarrek parte hartuko dute, eta Debagoienetik beste hainbeste izango dira.



Kultur Etxean dago ikusgai pintura erakusketa. IÑIGO BARRENA

# Martxan da urteko erakusketarik ikusiena

Pintura Tailerrean diharduten ikasleek euren artelanak erakusteko aukera izaten dute Kultur Etxean egiten duten erakusketan. Erakusketa zabalik da astelehena ezkero, eta ekainaren 11ra arte egongo da, 18:00etatik 20:00etara

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Ohitura da Oñatin pintura tailerrean dabiltzan ikasleen artelanekin osatutako erakusketa egitea Kultur Etxean, eta aurten ere halaxe izaten ari da. Astelehenean ireki zuten erakusketa, eta ekainaren 11ra bitartean bisitatu ahalko da, arratsaldeetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Erakusketa ugari egin dira urtean zehar Kultur Etxeko erakusketa gelan, baina, zalantzarik gabe, bisitari gehien izaten dituena hura izaten da.

Mayra Jimenez da pintura eta adierazpen artistiko tailerreko irakaslea; hamar urte daramatza lanean, eta erakusketa ikasturteko lana borobiltzeko modua dela dio: "Egia da lan bakarra eramaten dutela erakusketara, baina, era berean, lan horretan ikasitako guztiaren laburpena dago". Ikasleek abenduan ekin zioten euren lanak margotzeari, eta orain, herritarrentzat zein euren lagun guztientzat ikusgai jarri dituzte.

**Prozesua, garrantzitsua**

Tailerrean parte hartzen duten ikasleak 6 eta 17 urte bitartekoak dira. Batzuk hutsetik hasten dira eta beste batzuek, berriz, etxetik daroate margotzeko ohitura, baina ikasturte hasiera berezia izaten da. "Hasieran, berriak direnei kosta egiten zaie, baina, behin konfiantza hartutakoan, dakitena nirekin konpartitzen dute eta nik ikasten laguntzen diet", dio Jimenezek; eta ohiturak apurtzea ere gakoa dela esan du: "Zaila izaten da ohiturak apurtzea; esaterako, arkatza gehiegi sakatzea edo akuarelan ur gehiegi erabiltzea. Horiek ondo ikasteak denbora darama, baina, gutxinaka, aurreratzen joaten gara".

**KULTUR ETXEKO ERAKUSKETAK 6 ETA 17 URTE BITARTEKO IKASLEEN LANAK BATZEN DITU**

Hobekuntzak "nabarmenak" izaten direla ere aipatu du Jimenezek, baina beti egoten da lana azken ordurako uzten duenik ere, eta, ondoren, presiopean aritzen dira erakusketarako lana amaitu nahian. "Presiopean lan egiten dugunean beste modu batera egiten dugu, baina, azkenean, beti iristen gara behar dugun emaitza lortzera", dio pintura tailerreko irakasleak.

**Ikasleek errepikatu egiten dute**

Urtetik urtera jende eta ikasle berri asko animatzen da tailer horietan parte hartzera. Esanguratsua da Mayra Jimenez iritsi zenetik bi talde gehiago sortu direla; baina badira urteetan jarraitzen dutenak ere. Jimenezi poztasun handia ematen dio eboluzio hori ikusteak: "6 urterekin nirekin hasi zen ikasle bat zazpi urte geroago zer egiteko gai den ikusteak, ze segurtasun eta ze autonomia duen ikusteak... horrek asko betetzen nau".

# "Epaileen lanak bereizten du Señora sariketa besteetatik"

**MAIDER ARREGI MARKULETA** BERTSOLARIA
Señora sariketako irabazlea

**O.E.G.** OÑATI

Gaztelekuan jokatu zen zapatuan hirugarren Señora sariketako finala. Maider Arregi oñatiarrak jantzi zuen pamela beltza.

**Nola sentitu zinen saioan?**

Urduri, batetik, ingurumari askotako jendea elkartu zelako: Oñatiko lagunak, familia, Donostiakoak, bertso munduko feministak... Baina gustura ere bai. Giro ona egon zen eta gustura aritu nintzen bertsotan.

**Nolakoa zen giroa?**

Harreman pertsonal hobea edo okerragoa duzu batzuekin eta besteekin, baina denok talde berekoak ginen, bertso munduan feminismoa lantzekoa, eta horrek sortzen du talde giroa.

**Zein momentu azpimarratuko zenuke?**

Bat nabarmentzekotan, Eli Pagolarekin egindako bakarkako ariketa aipatuko nuke, agian. Bertso eskolan batera aritzen gara, eta askotan probatu dugun formula izan zen. Berria zen, arriskatu egin ginen eta harrera ona izan zuen. Bakarkakoa bestela ere oso solemnea izaten da, eta horrelako jolasak sartuta arindu egiten da, pisu galtzen du. Pozik horrekin ere.



Maider Arregi Markuleta. M.A.

**Zerk bereizten du sariketa hau besteetatik?**

Epaileek irizpideekin egindako lanak bereizten du, esaterako, beste sariketa batzuetatik; bereizketa garrantzitsua da hori. Ez dute teknika bakarrik baloratu, normalean izaten den moduan, baizik diskurtsoa, emozioa, laguntasuna... Epai bat ematea da euren lana baina buelta bat eman diote ardura horri, eta bertsolari moduan ere beste modu batera egoten zara, poto egin ote duzun pentsatzen ibili barik, adibidez.



MIREIA BIKUÑA

# Herritarren liburua, aurkeztuta

Joxe Mari Iturralde idazleak zuzendutako lehen idazketa tailerreko partaideek euren liburua aurkeztu dute: *Eta orain gu goaz.* Zazpi herritarrek hiru urtez idazketa tailerrean ikasitakoaren eta landutakoaren emaitza da liburua. Poesia eta prosa lanak jasotzen ditu eta dagoeneko salgai dago hiru liburu-dendatan: Hirukarren, Ibarrondon eta Haritzan.

DEBAGOIENEKO

# OSASUN ZERBITZUAK

**DENTISTAK**

**ADUR HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**DURANA HORTZ KLINIKA**
Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

**GARAI HORTZ KLINIKA**
Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**DIETETIKA**

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

**ENTZUMEN ZENTROAK**

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

**KIROPRAKTIKA ZENTROA**

**BIZI KIROPRAKTIKA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

**MASAJISTAK**

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**NEUROLOGIA**

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

**OPTIKAK**

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**ORTOPEDIA**

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

**OSASUN-DIAGNOSTIKOAK**

**UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA**
Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

**PODOLOGOAK**

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

**PSIKOLOGOAK**

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

**PSIKIATRIA**

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Mendi lasterketen hazkundea berbagai MUn

**MENDI LASTERKETAK** MUrekin harreman estua duten Aritz Egea, Ganix Lasa, Malen Osa, Garazi Artola eta Julen Elorza batu dituzte trailaren gorakadaren gainean berba egiteko; Xabi Igoa moderatzaileak hainbat gai jarri ditu mahai gainean

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuek antolatuta, mendi lasterketen gaineko berbaldia egin zuten eguaztenean fakultatean bertan, eta unibertsitatearekin harreman estua duten edo izan duten lagunak batu zituzten mahaiaren bueltan. "Bagenekien MUko irakasle, ikasle eta ikasle ohien artean mendi lasterketen bueltan ibiltzen den talde polita genuela, eta hori izan da ekimen honen abiapuntua", azaldu zuen Gorka Martinez de Lahidalgak.

Denak ez ziren mendi lasterkariak; tartean, Arrasate-Udalatx lasterketako antolatzaile Ganix Lasa eta nazioarteko lasterketa entzutetsuenetan *film-maker* edo eduki-sortzaile lanetan ibiltzen den Julen Elorza ere egon ziren, eta bakoitzak bere arlotik egin zuen ekarpena. Hala, moderatzaile lanetan ibili zen Xabi Igoak ez zuen berbaldi tekniko bat proposatu. Kontrara, edonork jarraitzeko modukoa izan zen: zer dakarren duen elite mailako kirolaria izatea, sare sozialek duten garrantzia, ikus-entzunezkoek lasterketetan duten protagonismoa eta lasterketek herri mailan egiten duten ekarpena... Halakoen gainean egin zuten berba.



**Eguazteneko berbaldiaren une bat.** X.U.

**Munduko Txapelketara begira**

Eta, noski, Aritz Egea eta Malen Osa eliteko kirolariak aurrean izanda, datozen erronken gainean galdetzea ere derrigorra zen. "Datorren astean Innsbruck-era goaz biok, Munduko Txapelketara. Elite mailan lehiatuko naiz, ez dago 23 urtez azpiko kategoriarik; horrenbestez, korrikalari gazteenetako bat izango naiz. Ikastera noa hara, presio barik. Eta gero, uztailean Golden Trail lasterketak hasiko ditut; hor bai, finalerako sailkatu nahiko nuke", adierazi zuen Osak.

Bada, Egeak ondo daki zer den multinazional baten ordezkari izatea eta hor egoten den exijentzia maila; gaur egun gustura dago Domusa Teknik-en, etxeko proiektu txikiago baten. Malen Osa, berriz, Salomonek harendako propio egindako dokumental baten protagonista izan berri da: "Niretako opari galanta izan da dokumentala. Egia da sare sozialetan duela urtebete inor ez izatetik edukiak sortzera pasa behar izan dudala, baina oso eroso nago Salomonen".

## Erraza da egunerokoa antolatzea?



**ARITZ EGEA** DOMUSAKO MENDI LASTERKARIA

"Momentu txarrean harrapatzen nauzu, ezin denera iritsi nabil. Ultren munduko txapelketara noa datorren astean eta hura prestatzeko kontziente naiz zenbat ordu kendu dizkiodan familiari. Lan ere egin behar dut, hiru ume dauzkat... Ez da batere erraza, ez; eskerrak etxekoei".



**MALEN OSA** SALOMON ETXEKO LASTERKARIA

"Elite mailako kirolak ordu asko kentzen ditu, eta ez entrenamendu aldetik bakarrik, baita bestelako konpromisoak ere egoten direlako. Orain momentuan, eta daukadan adinarekin, ikasketak dira lehentasuna, baina bai, antolaketa, jarrera ona izatea eta diziplina dira, nire ustez, denera ondo iristeko gakoa".



**GANIX LASA** MONDRAITZ TALDEKO KIDEA

"Arrasate-Udalatx lasterketaren atzean urte osoko lana egoten da, eta nire lehentasunen barruan lana badago, baita beste gauza batzuk ere; hala ere, zalantza barik, lasterketetako antolatzaileek denbora asko eskaintzen diogu horri. Ez elite mailako kirolariek beste, baina denbora behar da, bai".



**GARAZI ARTOLA** SORONEA AMMMA TALDEKO ATLETA

"Ni ez nago Aritz Egearen edota Malen Osaren mailan; horrenbestez, entrenamenduei eskaintzen diodan denbora ez da horrenbestekoa. Orain bigarren umea dator bidean, eta, zorionez, gizonezkoen rola ere aldatu egin da; senarra eta biok moldatzen gara biok ere kirol apur bat egiteko, hura ere korrikalaria da eta".

# AEKrekin gola eginda amaitu du Mikel Gonzalezek futbol ibilbidea

**FUTBOLA** Realeko jokalari ohiak bost urte egin ditu Zipren; Europarako sailkatuta agurtu du futbol ibilbidea

**X.U.A.** ARRASATE

AEK Larnaca izan da futbolean Mikel Gonzalez de Martinen azken geltokia. Realeko jokalari ohiak bost denboraldi egin ditu Zipren, eta joan den asteburuan jokatu zuen ligako azken jardunaldian protagonista izan zen, arratsaldeko bigarren gola harena izan zen eta (0-2).

Arrasatekoak Zaragozatik hartu zuen Ziprerako bidea, 2018an, eta urte hauetan taldeko erreferenteetako bat izan da, bigarren kapitain moduan. AEK Larnacatik aste barruan iragarri dute *Gontxa*-k ez duela klubean jarraituko, eta egindako lan ona eskertu diote. "Erdiko atzelariaren ibilbidea erabat emankorra izan da gure taldean egin dituen bost urteotan. Guztira, 143 partida jokatu ditu lehiaketa guztietan, hiru gol egin ditu, eta azkena esanguratsua izan da, Omoniaren aurka lortu berri duena. Kapitainak ekarpen handia egin dio gure taldearen ibilbideari. Lehen



**Gola ospatzen.** @AEKLARNACAFC

unetik nabarmendu zen futbol jokalari gisa, baina, hortik harago, taldekide eta aurkari guztientzat eredugarri izan da. AEK-ko familia osoaren errespetu eta estimua irabazi ditu. Horregatik, gure taldearen atea zabalik egongo da beti. Mikelen kalitate eta izaera duten pertsonei ez diegu inoiz agur esaten, gero arte baizik".

Ligan hirugarren postuan amaitu eta gero, Zipreko taldea Europa Conference Ligarako sailkatu da.

# "Lider egoteari balio handia ematen diot"

**JULEN ARRIOLABENGOA** CAJA RURAL TALDEKO TXIRRINDULARIA

**TXIRRINDULARITZA** Otsaila ezkero erakutsitako erregulartasunari esker, Eskoriatzakoa Euskaldun Txapelketako liderra da, eta asteburuan utzi dezake lehia erabakita

**Xabier Urzelai Atxa** ESKORIATZA

10 urte zituenean joan zen Julen Arriolabengoa (2001) Eskoriatzatik Erentxunera, Arabara, bizi izatera. Baina Apotzagakoak aitortu du entrenamendu saio luzeak egin behar dituenean Debagoienera etortzen dela, hemengo mendate bila. Eskoriatzarra amateur mailako torneo garrantzitsuena irabazteko puntuan dago, eta profesional mailara igotzeko salto batera Caja Rural taldearekin. Asteburuan Seguran eta Irunen erabakita utz dezake txapelketa.

**Zer esan gura du Euskaldunan lider joateak?**

Egutegia otsailean hasi genuenetik erregulartasun handia izan dudala, lasterketa ia guztietan aurreko postuetan ibili naizela, eta horrek emandako puntuei esker nagoela hor. Denboraldia hasterakoan lasterketak irabaztea izaten da buruan, ez txapelketa irabaztea. Azken lasterketetan, baina, egia da bigarren dagoen Iker Mintegi (Laboral Kutxa) eta ni sailkapen orokorrera begira ibili garela lehian, eta igarri egin da lasterketetan. Elkar zaintzen gabiltza, baita gure taldeak ere.

**Mintegik 112 puntu ditu eta zuk, 121. Eta hiru lasterketa geratzen dira.**

Bai, eta asteburuan egingo ditugu bi, zapatuan Seguran eta domekan Irunen. Etzi erabakita gera daiteke sailkapen orokorra, eta nik lasterketa batean atzerago geratzeko tarte apur bat handiagoa daukat. Ikusiko dugu...

**Talde profesionalek zer baloratzen dute gehiago?**

Bi gauzak, esango nuke. Hau da, lasterketak irabaztea bai, baina urte osoan erregularra zarela erakustea ere bai. Taldeek gaur egun World Tourreko abiadura azkarretara azkar egokituko diren ziklistak nahi dituzte, txirrindulari moduan eginda daudenak. Batzuek oso gaztetatik erakusten dute badutela maila hori, eta beste batzuek denbora gehiago behar dute.



Caja Ruraleko ziklista Julen Arriolabengoa. J.A.

## "ASTEBURUAN SEGURAN ETA IRUNEN ERABAKITA GERA DAITEKE EUSKALDUNA TXAPELKETA"

**Euskaldun Txapelketan bost alditan igo zara podiumera, baina irabaztea falta izan zaizu... Aldatuko zenuke sailkapen orokorreko lidergoa garaipen batekin?**

Balentziaga edo maila horretako lasterketa bat irabazteagatik bai [Barreak], baina Euskaldunan lider egoteari balio handia ematen diot. Bestalde, urte hasieran Murtziako Itzuliko hirugarren etapa irabazteak lasaitasun handia eman zidan; hala ere, bai, ziklistak beti gaude hurrengo garaipena noiz iritsiko zain, eta urduritasun puntu batekin.

**Txirrindulari moduan zelakoa zara?**

Igotzaile ona naizela esango nuke, eta azken urteotan igoeran amaitzen diren lasterketetako azken metroetan abiadura irabazi dut, azkarra naiz hor. Gainera, lasterketak zenbat eta gogorragoak izan, hobeto. Iaz 23 urtez azpiko Italiako Giroan ikusi nuen egunak aurrera joan ahala ez nuela behera egiten, mailari eusten diodala edo nekea beste batzuek baino hobeto kudeatzen dudala.

**Asteburuan Seguran eta Irunen dituzue lasterketak. Zein datorkizu hobeto?**

Irungoa. Euskal Herriko probak, orokorrean, gogorrak izaten dira, baina Irunen malda gogorragoak izango ditugu.

**Caja Ruralen harrobian diharduzu, eta goian talde profesionala izatea lagungarri izango da saltoa emateko.**

Bai, beti da lagungarri. Hain zuzen, horretarako dute beheko taldea, nabarmentzen diren txirrindulariak gora igo ahal izateko. Orain arte, konfiantza handia eman dit taldeak.

**Txirrindularitzaren aldeko apustu itsua egitea, baina, arriskutsua da.**

Zalantza barik. Irakasle ikasketak egiten dihardut MUn, Eskoriatzan. Hirugarren urtera arte egin dut eta aurten ziklismoan nabil buru-belarri, baina badakit hau lehenago edo geroago amaitu egingo dela.

# Kadeteen Espainiako txapelketa Bergaran, gaurtik hasita

**PATIN HOCKEYA** Gaurtik hasita Espainiako kadete mailako txapelketako partiduak hartuko ditu Labegaraietak

**X.U** BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasi dute Bergaran kadete mailako Espainiako txapelketa mistoa, eta domeka eguerdira bitartean partiduak jokatuko dituzte Labegaraietan, goiz eta arratsalde. Zortzi talde izango dira, guztira, eta bi multzotan banatuko dira.

Burdinola taldea lehen multzoan dago, Castelloko CPC Vila-Real, Madrilgo Tres Cantos PC eta Valentziako CP Alas de Sagunto taldeekin batera. Eta zapatu goizean, esaterako, etxekoek partidua izango dute 10:15ean eta 12:45ean. B multzoan daude, berriz, CP Castellbisball, CPL Valladolid, CHP Aranda de Duero eta Lostregos Lucus taldeak.



Hockeyan Labegaraietan. GOIENA

**Finala, domeka eguerdian**

Txapelketako lehenengo fasea egubakoitzean eta zapatuan jokatuko dute, eta domekan erabakiko dute txapelketa. Domekan, 09:00etan hasita, 7. eta 8. postuen lehia izango da, eta final handia, esaterako, 12:45ean jokatzea aurreikusten dute. Debagoienekoen helburua lau onenen artean sailkatzea da.

# Profesionaletan debuta egingo du Maialen Gallardok

**BORROKA ARTEAK** Ekainaren 17an, Espainiako Kickboxing Txapelketa izango du jokoan Arrasatekoak, Badalonan

**X.U.** ARRASATE

Maialen Gallardok hilaren 17an izango du borrokalari profesional gisa lehenengo hitzordua. Eta ez da edonolako borrokaldia izango, 50 kiloz azpiko Espainiako Txaeta izango du-eta jokoan. Sheila Martinez izango du aurrean. "Esperientzia handiko borrokalaria da, lehenago ere izan da Espainiako txapeldun tatamian, eta, ikusi ditudan irudiengatik, hankekin oso arriskutsua da; hainbat *knock-out* lortu ditu horrela. Eskuekin, baina, ez da horren arriskutsua, eta, hain zuzen, hor dago nire indarra, distantzia motzetan. Entrenatzaileak ikusi du debuta egiteko moduan nagoela, eta horrek lasaitu egiten nau. Espainiako Txapelketa denez, hiru round beharrean bost izango ditugu. Arnas luzeko borrokalaria naiz, ez naiz berehala nekatzen, eta, hirugarren roundera arte eusteko kapaz banaiz, uste dut handik aurrera abantaila izan dezakedala", adierazi du.



Maialen Gallardo. M.G.

Hain zuzen, txapelketarako hamabost egunen faltan, Arrasatekoa *Harmailatik* saioan izango da astelehenean (21:30).



Arrasate Musikaleko Bandako eta The Potes taldeko kideak, egubakoitzean egin zuten entseguan. EDORTA AIASTUI

# Rock kantuak, bandako instrumentuekin jantzita

Arrasate Musikaleko 50. urteurrenaren harira antolatutako egitarauaren baitan, Arrasate Musikaleko Bandak eta The Potes zazpikoteak elkarrekin kontzertua eskainiko dute ekainaren 10ean, 19:00etan, Monterron parkean; sarrera dohainik da

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Orain dela urtebete pasa hasi ziren Arrasate Musikalekoak aurten ospatzen ari diren 50. urteurrenerako egitaraua prestatzen. "Ideiak botatzen hasi ginen, eta nik neuk oso gustuko dudan Arrasateko The Potes taldearekin elkarlanean kontzertu bat egitea proposatu nion Bandako zuzendari Mikel Markiegiri. Gustatu zitzaion ideia, eskolarentzako eta taldearentzako ez ezik, herritarrentzako ere proposamen berritzailea eta interesgarria iruditu zitzaion, eta The Potesekoen baiezkoa jasota lanean hasi ginen", azaldu du Arrasate Musikaleko irakasle eta Bandako kide Edorta Aiastuik, eta zera gaineratu du The Potes taldeko bateria-jole Beñat Osinagak: "Bertigo puntu bat sentitu genuen hasieran, imajinazio-ariketa bat egin behar izan genuen gure kantuek bandako instrumentuekin nola baterabatuko ziren aurreikusteko, baina erronka polita eta interesgarria iruditu zitzaigun herriko bi musika formaziok elkarrekin jardutea".

**The Potesen hamabi kantu**

Proiektuan parte hartu duten musikariak pozik daude elkarlanak sortutako emaitzarekin. Nork bere aldetik egin ditu prestaketa lanak eta egubakoitzean egin zuten elkarrekin estreinako entsegua. "The Potesen bi diskotako hamabi abesti joko ditugu, eta, horiez gainera, beste bi sorpresatxo izango dira. Ordubete inguru iraungo du emanaldiak. Kantu guztien bandarako moldaketa egin du Markiegik; sekulako lana egin du", dio Aiastuik, eta zera gaineratu du Osinagak: "Gure etxeko lanak errazagoak izan dira; hala ere, urduri samar joan ginen egubakoitzeko entsegura, abestien tempoak eta gure instrumentuen bolumenak ondo batuko ziren zalantzarekin. Baina bitxia izan zen, kasualitatea edo patua; jo genuen lehenengo abestia *Musikaren magia* izan zen, benetako magia sortu zen eta oso ondo joan zen dena".

**60 lagun inguru agertokian**

Urtez urte handitzen doan musika eskolako bandan gaur egun 50 kide dira. "Denetarikoak gaude, gazteak eta helduak. Instrumentuei dagokienez ere, askotarikoak: perkusioa, haize-egur instrumentuak, haize-metalak… Sekulako ilusioarekin ari gara denak lanean. Bitxikeria moduan esan behar da The Poteseko ia kide guztiak gure eskolako ikasleak izan direla", dio Aiastuik.

**ARRASATEKO THE POTES TALDEAREN BI DISKOETAN OINARRITUTAKO ERREPERTORIOA DA**



Banana Shake taldea. GOIENA

## Aurretik, Banana Shake taldea

Haizez-instrumentuek protagonismo handia duten iaz abiatutako Arrasateko Banana Shake formazioak ekingo dio Monterron parkean izango den emanaldiari –eguraldi txarra eginez gero, Amaia antzokian–, 19:00etan. Sarrera dohainik izango da eta ez da aldez aurretik gonbidapenik eskuratu behar.

40 minutuko kontzertua egingo du kuadrilla bereko zazpi lagunek osatzen duten taldeak, orain dela bi aste plataforma digitaletan –Spotifyn eta Youtuben– argitaratu zuten sei kantuko bilduma oinarri izango duen errepertorioarekin. "Kontzertu bat eskaintzeko asmoz hasi ginen lokalean lanean, sekulako harrera izan genuen eta harrezkero beste hainbat egin ditugu. Grabatu berri dugun bilduma, oraingoz, ez dugu formatu fisikoan argitaratzeko asmorik", diote taldekideek.

ORFEOIAREN MENDEURRENEKO KONTZERTUA

GOIENA TELEBISTA
EKAINAREN 3AN, ZAPATUA, 22:00ETAN
EKAINAREN 4AN, DOMEKA, 13:00ETAN ETA 20:00ETAN
MOZARTEN 'REQUIEM' OBRA INTERPRETATUKO DUTE

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



# Ekinez-erako motorrak berotzeko, podcasta

Bergarako Ekinez Musika Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatu duen bigarren Ekinez musika jaialdia ekainaren 9an eta 10ean izango da, Labegaraieta auzoan; antolatzaileak eta musikariak batuta jaialdiari buruzko saio berezia egin du Goienak

**A.A.J.** BERGARA

"Euskal Herriko musika alternatiboaren topaleku eta erakusleiho" izateko helburuarekin iaz abiatu zuten musika jaialdiak izan zuen harrera ikusita, punk, oi! eta rock estiloaz haragoko kartela osatu dute, 28 musika formazio gonbidatuta. "Bi gune izango dira: Ekinez eta Eginez. Lehenengoan punk, oi! eta rock doinuak izango dira protagonista, eta bestelako kaleko musikari egin diogu tokia –rapa, trapa, elektronika...–; bigarrenean, aurrez iragarritako taldeez gainera, aste honetan beste bi iragarri ditugu: bergarako Brigade Loco eta Kaleko Urdangak ", azaldu du antolatzaile taldeko kide Oier Aperribaik.

Musika eskaintza "oparoaz" harago, disko eta arropa azoka, jateko eta edateko saltokiak eta kanpalekua izango dira, besteak beste. Martxoaren 2an jarri zituzten sarrerak salgai, egunekoak zein asteburuko bonua aukeran–, eta oraindik ere eskuragarri daude *Musikaze.net* atarian.


Ekinez jaialdiari buruzko podcastean parte hartu dutenak. JOKIN BEREZIARTUA

### Solasaldia entzungai

Bigarren Ekinez jaialdia hasteko astebete faltan, asteon audio-podcast bat grabatu dute Goienaren egoitzan dagoen Arrasate Irratiko estudioetan. Jago Domingok eta Aitziber Aranburuzabalak gidatuta, eta antolatzaile taldeko kide Oier Aperribai *Olli* eta Beñat Etxebarria eta jaialdiko agertokian izango den Arrasateko eta Aretxabaletako Txakurrak taldeko kide Ander Azkarate *Jauer* gonbidatuta. Tertulia formatua duen ordu eta erdiko saioan jaialdiaren askotariko erpinak aztertu dituzte lagun giroan, azpiegitura eta bestelako argibide eta informazio praktikoarekin lotutako kontuak eta protagonista izango diren Debagoieneko eta kanpoko musika taldeak hitzez eta kantuen bidez aurkeztuta.

Gaur, egubakoitza, hasita izango da *Ekinez podcast* izena duen irratiko saioa entzuteko aukera, eta askotariko bideak izango dira aukeran: *Goiena.eus* atarian, Arrasate Irratian –FMko 107.7an–, eta iVoox plataforma digitalean ere bai.

**Podcasta entzuteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.**

## Euskal sortzaileen bakarrizketa saioak asteburuan Oñatin

Oñatiko Zarramarra elkarteak antolatuta, Komedia Jardunaldiak egingo dituzte gaur eta bihar. Antixena gaztetxean gaur, 22:00etan hasita, *Altxa komedia* izeneko saioan Beñat Iturbe, Ana Goitia, Maialen Sorzalbere, Mikel Irazusta eta Antton Telleria izango dira. Sarrerak, bost eurotan eskuragarri; eta langabeendako, hiru eurotan.

Bihar, zapatua, gaztelekuan izango du Komedia Jardunaldiak ekimenak segida; 12:30ean hasita, mahai-ingurua egingo dute, Euskal Herriko umoristak eta sortzaileak gonbidatuta, eta arratsaldean, berriz, *Hor esketxa dago!* izeneko emanaldiarekin gozatzeko aukera izango da, Barrexerka umore taldeko Maialen Sorzalbere eta Mikel Irazusta kideekin, 19:30ean hasita. *Oñati.eus* atarian eta Txokolateixan daude zapaturako sarrerak eskuragarri, bost eurotan.

## Debagoieneko haur eta gazte abesbatzen topaketa bihar Oñatin

Oñatiko Ganbara Txiki, Txikitxo eta Ikastetxeak Kantari ekimeneko kideez eta Arrasateko Gazte Abesbatza eta Bergarako Orfeoi Gazteaz gainera, Irungo Ametsa Txiki eta Villabonako Eresargi Txiki abesbatzek hartuko dute parte. Emanaldia bihar izango da, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan; sarrerak, bost eurotan daude eskuragarri.

Goienakideen txokoa

MAIATZEKO IRABAZLEAK

ERRIGORAKO SASKIA
Ioseba Larrañaga Azkoitia (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Amalur Arruti San Vicente (Eskoriatza)

SORALUZE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Amaia Bergaretxe Mujika (Arrasate)

MONDRAGON HOTELERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Jose Luis Carnicero Barranco (Bergara)

TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Maite Nuñez Gonzalez (Arrasate)

'LOS DIAS AJENOS DE BOB POP' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK
Susana Jimenez Arrieta (Elgeta)

'AIREPORTUAN' HAUR ANTZERKIRAKO SARRERAK
Joaquin Urteaga Ziardegi (Aretxabaleta)

REALAREN ETA ALMERIAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Josu Zubizarreta Aranguren (Arrasate)

REALAREN ETA GIRONAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Maria Jesus Epelde (Bergara)

REALAREN ETA REAL MADRILAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Leire Urzelai Letona (Bergara)
Iñaki Lizarralde Urtaza (Oñati)
Felix Arrese Garziaetxabe (Aretxabaleta)

SARIAK JASOTZEKO:

Irabazi bi lagunendako otordua
BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: ekainak 6

943 25 05 05
goienakide@goiena.eus
'Goiena app'-a / zozketa atalean.
*GOIENAKIDE Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

puntua

*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...

2023rako Goienakide eginez gero, hemendik aurrera jaso Puntua DOAN
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide
**Okm:** *batzen gaituen distantzia*

OROIGARRIA

## Juan Jose Berezibar Etxaluze



2023ko maiatzaren 31n hil zen, 92 urte zituela.

*Aitejaun ta lagun ona gure Juanjo maitia,
eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.
Betirako gure bihotzetan.*

Iñigo, Irene, Izaskun ta Josemari (†).
Arrasaten, 2023ko ekainaren 2an.

OROIGARRIA

## Esperanza Ugarte Orue



Aretxabaletan hil zen, 2023ko maiatzaren 31n, 91 urte zituela.

*Gure Esperan, gure tia Espe,
Horrenbeste maite gaituenari,
Horrenbeste maite zaitugunengandik.
Gure bihotzean betirako.*

Ugarte familiakoak.
Arrasaten, 2023ko ekainaren 2an.

OROIGARRIA

## Xabier Landaluze Otadui



2022ko maiatzaren 23an hil zen, Donostian, 55 urte zituela.

*Bada urtebete joan zinenetik
baina ez da izan egunik
zutaz gogoratu ez garenik.
Bihotz-bihotzean zaramatzagu.
Maite zaitugu.*

Gurasoak eta anaia.
Arrasaten, 2023ko ekainaren 2an.

URTEURRENA

## Aitor Moyua Murguzur



2022ko maiatzaren 12an hil zen, 59 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da,
ekainaren 3an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2023ko ekainaren 2an.

ESKER ONA

## Esperanza Ugarte Orue



Luis Mendarozketa Herizen alarguna

—Goian bego—

Seme-alabak: Arantxa eta Jose Mari, Estibaliz eta Carlos, Luis Mari eta Miren Gurutze. Bilobak: Mikel, Xabier, Ales eta Izar, Markel eta Maite, Aitor, Julen. Ahizpak eta anaiak: Teodora (†) eta Joxe (†), Rosi eta Jexus (†), Jesusa eta Mikel, Mateo (†), Karmelo (†) eta Mari Luz, Jesus (†) eta M. Jesus (†), Espe. Zaintzaile eta laguna: Marisa Moto.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Arrasaten, 2023ko ekainaren 2an.

ESKER ONA

## Benita Aguirreolea Uriarte



Iñaki Juaristiren alarguna

2023ko maiatzaren 29an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, etxekoen izenean.

Bergaran, 2023ko ekainaren 2an.

ESKELA

## Mario Jauregi Loiti



—Goian bego—

2023ko ekainaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.

Bere emaztea: Fermina Balanzategi. Seme-alabak: Juanjo eta Eli Aranburu, Olga eta Aitor Aspe, Aitor. Bilobak: Naiara eta Beñat, Julen, Andoni, Ander eta Amaia, Mikel. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da,
18:00etan, Aramaioko San Martin parrokian.

Familiak Arrasate Berri Tanatorioan (San Andres) hartuko zaituzte
11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.

ESKER ONA

## Javier Guridi Guridi



2023ko maiatzaren 22an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi
eta gurekin egon zareten guztioi, familiaren izenean.
—
Ondra meza zapatuan izango da, ekainaren 3an,
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Aldez aurretik eskerrik asko bertaratuko zaretenoi.

Oñatin, 2023ko ekainaren 2an.

ESKER ONA

## Isabel Linzoain Ilarduya



Andres Gabilondoren alarguna

2023ko maiatzaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

Lerro hauen bidez Isabelen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi. Baita Mizpirualde egoitzako langileei ere.

Bergaran, 2023ko ekainaren 2an.

# HILDAKOAK

**Julian Mondragon Zubia.** Aretxabaletan, maiatzaren 25ean. 88 urte.
**Juan Luis Orobengoa Fernandez De Jauregui.** Antzuolan, maiatzaren 25ean. 70 urte.
**Bitoriano Etxagibel Urizar.** Arrasaten, maiatzaren 26an. 86 urte.
**Francisca Arana Pagaldai.** Arrasaten, maiatzaren 27an. 92 urte.
**Marcelino Ugalde Ortuoste.** Aretxabaletan, maiatzaren 28an. 86 urte.
**Toñi De Tena Barquero.** Arrasaten, maiatzaren 29an. 59 urte.
**Isabel Linzoain Ilarduya.** Bergaran, maiatzaren 29an. 91 urte.
**Benita Aguirreolea Uriarte.** Bergaran, maiatzaren 29an. 88 urte.
**Flora Serrano Firvida.** Arrasaten, maiatzaren 30ean. 73 urte.
**Juan Jose Berezibar Etxaluze.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 92 urte.
**Agueda Cendegui Ugarte.** Bergaran, maiatzaren 31n. 95 urte.
**Esperanza Ugarte Orue.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 91 urte.
**Mario Jauregi Loiti.** Aramaion, ekainaren 1ean. 90 urte.

ESKER ONA

## Agueda Cendegui Ugarte



Doroteo Martinez Loizagaren alarguna

2023ko maiatzaren 31n hil zen, 95 urte zituela.

*Amama, zure ondare onena
inoiz ahaztuko ez ditugun
momentu on ta irribarreak
izango dira.
Mila esker erakutsi eta
eman diguzun
poztasun guztiagatik.
Asko maite zaitugu.*

Lerro hauen bidez
Aguedaren senitartekoak
eskerrak eman nahi
dizkizuegu bihotz bihotzez
horrenbeste eratan
maitasuna eta elkartasuna
erakutsi diguzuen guztioi

Zure bilobak eta birbiloba.
Bergaran, 2023ko ekainaren 2an.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Guri deitu zaitenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen aseguru-konpainiari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuena.*

*Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenerako.*

**Mario, Iban eta Maribi**



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**BERGARAKO ORFEOIAREN KONTZERTUA**
Mendeurreneko kontzertuan Mozarten *Requiem* obra interpretatuko dute, besteak beste.
***'Bereziak'** Zapatua, 22:00 eta domeka, 13:00 eta 20:00*



**CRIM TALDEAREN ZUZENEKOA**
Maiatzean Kooltur Ostegunetan egindako kontzertua osorik entzuteko aukera.
***'Kooltur Ostegunak'** Egubakoitza, 21:00 eta 23:00*



**MAIALEN GALLARDORI ELKARRIZKETA**
Boxeolari arrasatearra egongo da Goiena telebistako platoan, Xabi Urzelairen galderak erantzuten.
***'Harmailatik'** Astelehena, 21:30 eta 23:30*



**BERGARAKO EREINDAJANEK BOST URTE**
Txomin Madinak bisita egingo die *Landara* saioan, orain arteko ibilaldiaren errepasoa egiteko.
***'Landara'** Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**'MUNDUTIK BINAKA'**
Erresuma Batuan dagoen Judith Fernandez de Arroiaberekin egingo du berba Eneko Azurmendi kazetariak.
***'Mundutik binaka'** Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 2

**ARRASATE Elizkizuna**
San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaleen sorreren 125. urteurrenaren harira.
*Parrokian, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Aretxarteren jaia**
17:00etatik 19:00etara, puzgarriak; 19:00etan, dantza garaikidea Other Side Companyren eskutik, eta flamenkoa, klakea eta sabel dantza; eta 19:30ean, triki-poteoa.
*Aretxabaletan.*

**ESKORIATZA Mahai-jolasak**
12-13 urteko neska-mutikoendako.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**BERGARA Jardun antzerki taldearen emanaldia**
Debalde.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**BERGARA Hiri Galduak taldea**
Izen bereko diskoa aurkeztuko dute.
*Gorlako kantinan, 19:30ean.*

**ARAMAIO Aldakan Beltz taldea**
Vital Fundazioaren eskutik. Debalde.
*Bizente Goikoetxea plazan, 19:30ean.*

**ARETXABALETA Montferri-Aretxabaleta topaketa**
20:30ean, talo-txosna eta pintxoak; eta 21:00etan, Montferrikoei ongietorria.
*Mitarte plazan.*

**OÑATI 'Altxa komedia' bakarrizketa saioa**
Mikel Irazusta, Beñat Iturbe, Antton Telleria, Ana Goitia, Eneko Ibabe eta Maialen Sorzabalbere oholtza gainean. Sarrerak, Aker eta Arrano tabernetan.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 3

**ESKORIATZA 25. Ferixie**
10:00etan azoka zabaldu ostean, askotariko ekintzak. Egitaraua osorik 19. orrialdean.
*Eskoriatzan.*

**ARRASATE Beste Bat Eguna**
11:00etan, futbol partidua Iturripen; 12:30ean, luntxa Doke tabernan; 14:30ean, bazkaria Motxon elkartean; eta 18:00etan, Tije eta Matxinbrada. St Pauli elkarteko bazkide ziren Aido Doyle eta Aitor Iria omenduko dituzte.
*Arrasaten.*

**ANTZUOLA AKE eguna**
11:00etan, puzgarriak; 12:00etan karro-poteoa; 14:30ean, bazkaria; eta, 18:30ean, elektrotxaranga.
*Antzuolan.*

**ARRASATE Elkartasun Eguna**
11:00etan, puzgarriak; 11:30ean, trikiti eskolakoak; 12:00etan, Lore Gazteak taldea; 12:30ean, gaiteroen kalejira; 13:00etan, Arrasate Musikaleko talde gazteak; 16:30ean, puzgarriak; 17:30ean, disko-festa; 18:30ean, txokolate-jana; 19:00etan, Arragoa taldea; eta 20:30ean, Ibai-arteren 300 euroko bonuaren zozketa.
*Arrasaten.*

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**
Izenak emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 05 00.
*Herriko Plazan, 11:00etan.*

**BERGARA Skate festa**
11:30ean, skateren hastapenak; 14:00etan, parrillada; 15:00etan, skate librea; eta, 19:00etan, Azkaiter Pelox eta K-Po eta Blind 09 taldeak.
*Labegaraietan.*

**BERGARA 38. Koldo Eleizalde lehiaketaren sari banaketa**
Idazle gazteak sarituko dituzte.
*Seminarixoan,12:00etan.*

**ARETXABALETA 'Catarsi feminista' erakusketaren irekiera**
Presio estetikoa eta lodifobia gai hartuta, Amaia Txabarri arrasatearraren bilduma. Ikusgai egongo da hilaren 30era arte.
*Arkupen,12:00etan.*

**ELGETA Atzegi Eguna**
Urteko batzarra, bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte.
*Espaloian,12:00etan.*

**ARETXABALETA Aretxarteren jaia**
12:30ean, batukada eta UDAkoen txosna; 14:00etan, kupelaren irekiera; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, jolasak eta karaokea; 16:30ean, mus txapelketa; 19:00etan, Nealtta Fola; eta 20:00etan, Eten taldea.
*Aretxabaletan.*

**ARETXABALETA Montferri-Aretxabaleta topaketa**
13:00etan, Montferriko Clandestines artisau garagardo barraren irekiera; 13:30ean, Trigger eta Larraitz Iparragirre; 14:30en, bazkaria; 21:30ean, afari-pasa; eta 22:30ean, bolo txapelketa.
*Mitarte plazan.*

**ARETXABALETA 1943an jaiotako kintoen bazkaria**
Egun pasa egingo dute.
*Taberna Berrin, 14:00etan.*

**OÑATI Olakua saria**
Kadete mailako txirrindulari proba.
*Olakua auzoan, 16:00etan.*

**ARETXABALETA Dantza garaikide ikastaroak**
10:00etan, Nelson Martinezek gidatuta; eta, 17:00etan, gazteendako, Zuriñe Benaventeren eskutik.
*Kuartelean.*

**ARRASATE Perlata, Txerrikumeak eta Jasan taldeak**
Azken biek kaleratu berri dituzten diskoak aurkeztuko dituzte.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## DOMEKA 4

**ARRASATE 'Besaide-Kobaundi-Udalatx' mendi ibilaldia**
Zortzi kilometrokoa, ingurune harritsu batean. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00.
*Udala auzoan, 09:00etan.*

**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**
Izena aurrez eman behar da: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus.*
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**BERGARA Pintxo Eguna**
12:00etan, umeendako pailazo ikuskizuna; 13:00etan, pintxoen aurkezpena; eta, 13:30ean, Los Terrucos taldea.
*Osintxun.*

**ESKORIATZA 'Chicas... ¡al salón!' antzezlana**
La Farandula de Elburgo taldearen eskutik. Sarrerak, bost euro.
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 5

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARAMAIO Irakurketa taldea**
*Begiak zerumugan* lanari buruzko saioa, Miren Agur Meaberekin.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Zer egin dezakezu energiaren arazoaren aurrean?' hitzaldia**
Eskoriatzan abian jartzen ari diren autokontsumoko esperientziak partekatzeko aukera.
*Ibarraundin, 18:30ean.*

## MARTITZENA 6

**ELGETA 'Azalerako ipuinak' saioa**
Saroa Bikandiren eskutik. Ikasturteko azkena.
*Liburutegian, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Dantza Astea: aretoko dantzak**
Basotxo elkarteko kideekin.
*Mitarte kalean, 18:00etan.*

**ARRASATE Klarinete kontzertua**
Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia.
*Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:30ean.*

**OÑATI 'Pentsio publikoak. Azken erreforma' hitzaldia**
Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko kide Jesus Soubidesek egingo du berba.
*Pake Lekun, 18:30ean.*

**OÑATI 'Escuchando a mi alma' liburuaren aurkezpena**
Liburuaren egile Jose Antonio Villar oñatiarra egongo da ekitaldian. Liburua erosteko aukera.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 7

**ARRASATE Sasoibide, mendira**
Ibilaldia egiteko elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joan.
*Biteri plazan, 16:00etan.*

**ARRASATE Perkusio kontzertua**
Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia.
*Musika Eskolan, 18:00etan.*

**ARRASATE Javier Arrietaren erakusketa**
Hamar olio lan ipini ditu ikusgai, hilaren 18ra arte.
*Mondragon Hotelean, 18:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**BERGARA 'Bergarako Orfeoiak 100 urte' erakusketa**
Argazki zaharrak ikusteko aukera, hilaren 11ra arte.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Saguzarren gida' liburuaren aurkezpena**
Euskal Herrian bizi diren 27 espezieen ilustrazioak jaso ditu Naturtzaindiak.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARETXABALETA 'Harritzeko ipuinak' antzezlana**
Bihar Taldearen eskutik, umeendako.
*Santakurtz plazan, 19:00etan.*



TXERRIKUMEAK

**ARRASATE Perlata, Txerrikumeak eta Jasan taldeak**
Arrasateko Perlata, Aretxabaletako Txerrikumeak (argazkian) eta Jasan taldeak gaztetxeko oholtzara igoko dira. Azken biek kaleratu berri dituzten diskoak aurkeztuko dituzte.
*Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.*

**BERGARA 'The eternal daughter' pelikula**
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 8

**ARRASATE Sasoibide**
Salturrirainoko joan-etorria egingo dute.
*Biteri plazan, 10:00etan.*

**ESKORIATZA Odol-ateratzea**
Odol-emaile guztiendako deia.
*Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15era.*

## EGUBAKOITZA 9

**OÑATI Corpus dantzak**
Goizean herriko ikastetxeetan eta 16:30ean Kasablanka, Ugarkalde eta San Martin auzoetan.
*Oñatin, 09:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**La quietud en la tormenta**
Zapatua eta astelehena: 19:30.

**Alan, giza-antena**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Book club**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**20000 especies de abejas**
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.

**Boys don´t cry**
Martitzenean: 19:30.

**Como Dios manda**
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:20. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 22:20. Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45.

**El colibri**
Egubakoitzetik domekara: 21:30. Astelehenetik eguenera: 19:45.

**El sabor de las cosas simples**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30. Martitzena: 17:00.

**Fast & Fourious**
Egubakoitza: 17:00, 21:30. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 21:30. Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

**La sirenita**
Egubakoitza: 17:00, 19:00, 21:30. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:00, 21:30. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

**Las ocho montañas**
Egubakoitza: 21:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 21:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:30.

**Maestros**
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 21:45. Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Rebel**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 21:00. Astelehena: 17:15, 20:00. Martitzenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Spiderman**
Egubakoitza: 18:00, 19:45, 21:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 18:00, 19:45, 21:00. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:45.

**Super Mario Bros**
EZapatua eta domka: 11:45.

**Patti y la furia de Poseidon**
Zapatuan eta domekan: 12:00.

**Vaya vacaciones**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**OÑATI Odol ematea**
Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84.
*Enpresagintzan, 16:30ean.*

**OÑATI Bertso-paper lehiaketako sari banaketa**
XIV. ekitaldiko bertso onenak sarituko dituzte.
*Gaztelekuan,17:30ean.*

**ARRASATE 'Hizkuntza anitza' kontzertua**
Arrasate Musikaleko ikasleekin.
*Musika Eskolan, 18:00etan.*

**BERGARA Ekinez jaialdia**
Hell Beer Boys, Skabidean, Tatxers, Doubling Boys, Odolkiak Ordainetan, Rebel Noise, Perlata, Against You, Txakurrak, Sofokaos eta Harria taldeak.
*Labegaraietan, 18:00etan.*

**ARRASATE Gitarra kontzertua**
Arrasate Musikaleko ikasleekin.
*Monterron parkean, 19:00etan.*

## ZAPATUA 10

**OÑATI Corpus dantzak**
Foruen plazan hasiko dute eguneko dantzaldia.
*Foruen plazan, 09:00etan.*

**ARRASATE Arrasate Musikalen jaialdia**
10:00etan, Arrasate Musikaleko gaitarien kalejira; 11:00etan, Debagoieneko musika eskolen emanaldiak Herriko Plazan, Seber Altuben eta Monterronen; 13:15ean, Gariband taldearen kalejira; 14:15ean, paella-jana; eta, 19:00etan, Banana Shake taldea eta Arrasate Musikaleko Banda eta The Potes.
*Arrasaten.*

**ARRASATE Angeles Maestroren hitzaldia**
Askatasunaren eta Giza Eskubideen Aldeko Herri Plataformak gonbidatuta.
*Kulturaten, 10:30ean.*

**ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**
Izenak emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 05 00.
*Herriko Plazan, 11:00etan.*

FAGOR TALDEAREN

# BATZAR NAGUSIA 2023

Etorkizuna hobetzeko lanean











FAGOR

## ETORKIZUNA HOBETZEKO, IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA

### 2022KO DATU ADIERAZGARRIENAK

**GOBERNANTZA:**
**212**
bazkide kontseilu errektore eta sozialetan

**LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA:**
Salmentak: **1.819 M€** | Irabaziak: **46,19 M€**

**PERTSONAK:**
**5.791** langile Euskal Herrian → **% 74** bazkideak | 2022an **467** bazkide berri

**INGURUMENA:**
Energia kontsumo totalaren
**% 49**
energia berriztagarria

**GIZARTEA:**
**2,7 M €**
Gizarte Funts bidez banatuta

**578.362 €**
euskararen normalizaziora

FAGOR ARRASATE · FAGOR AUTOMATION · FAGOR ELECTRÓNICA · FAGOR PROFESSIONAL

fagorederlantaldea · COPRECI · galbaian intellectual property · MONDRAGON ASSEMBLY